




I. ERANSKINA TOKI ERAKUNDEETAKO KASU KONKRETUAK

DATU PERTSONALEN BABESAren
arloko Jardunbide Egokien Eskuliburua Euskal
Autonomia Erkidegoko toki erakundeetarako

Ale kopurua: 1500 ale

© **EUDEL. Euskadiko Udalen Elkartea**

Argitaratzailea: **EUDEL. Euskadiko Udalen Elkartea**

Internet: www.eudel.net

Inprimaketa: GRAFILUR S.A.

L.G.: BI-1238-08

Jabetza intelektualaren eskubideak babesten du lan hau. Legeak aitortzen dizkion eskubide guztiak gordeta dauzka, honakoak barne: itzulpena, berrinprimaketa, irrati bidezko, telebista bidezko nahiz Internet bidezko (web orria) transmisioa, erreprodukzio fotomekanikoa edo bestelako erreprodukzioak, bai eta datuak prozesatzeko instalazioetan biltegitratzea ere, nahiz eta lan honen zati bat baino ez erabili.

Jardunbide Egokien Eskuliburu hau egiten parte hartu dute:

Ana Novoa Carbarlido, Vitoria-Gasteizko Udala

Enrique Pascual Antxia, Basauriko Udala

José Antonio Fernández Celada, Ermuko Udala

Javier Aramberri Miranda, Getxoko Udala

José Luis Irigoien Martínez, Eibarko Udala

Julen Urteaga Legarra, Beasaingo Udala

Iñaki Galdeano Larizgoitia, EUDEL

Ignacio Alonso Errazti, EUDEL

Pedro Alberto González González, DBEB

Pablo Lakuntza Amiano, DBEB

Eduarne Barañano Etxebarria, DBEB

Aintzane Osa Alberdi, Euskarazko itzulpena, DBEB

Simón Mesanza Legarda, DBEB

I. ERANSKINA TOKI ERAKUNDEETAKO KASU KONKRETUAK. AURKIBIDEA

1. OROKORREAN

19-72

1.1. Datu pertsonalak babesteko eskubidea eta zeri aplikatzen zaion 19-22

1. Zer da datu pertsonalak babesteko eskubidea? 19
2. Nor da datuen jabea? 19
3. Datuen babesaren arloko araudia hildako pertsonen datuei ere ezarri ahal zaie? 20
4. Modu elektronikoa egiten diren administrazio izapideek bete egin behar dute datu pertsonalak babesteko araubidea? 20
5. Datu pertsonalen tratamendua al da web orri baten bidez datu pertsonalak ezagutzera ematea? 21

1.2. Datu pertsonalak eta toki erakundeek erabiltzen dituzten fitxategiak 23-32

6. Zer dira datu pertsonalak? 23
7. Zer dira bereziki babestutako datu pertsonalak? 23
8. Toki erakundeek zeintzuk fitxategi aitortu ohi dituzte? 24
9. Zer da datu tratamendua, eskuzkoa nahiz automatikoa? 24
10. Zein desberdintasun dago fitxategi automatizatuen eta eskuzko fitxategien artean? 25
11. Eskuzko fitxategiak, hau da, paperezko fitxategiak (fitxak, zerrendak eta abar) Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan inskribatu behar al dira? 25
12. Zein arau edo xedapen erabili behar dute toki erakundeek datu pertsonalen fitxategiak sortzeko? 25
13. Nola aurkeztu behar da DBEBn fitxategiak inskribatzeko eskabidea? 26
14. Titulartasun publikoko fitxategiak aldatu edo ezabatu behar badira, nola egiten da aldatzeko edo ezabatzeke aitortzea? 27
15. Alkateak erabaki du zinegotzigo bakoitzeko erantzukizunak berrantolatzea. Aldaketak jakinarazi egin behar zaizkio DBEBri? 27
16. Nola aitortu behar dituzte haien fitxategiak udalen mankomunitateek? 27
17. Nola aitortu behar dituzte haien fitxategiak partzuergoek? 27
18. Nola aitortu behar dituzte haien fitxategiak Arabako Lurralde Historikoko kuadrillek? 28
19. Nola aitortu behar dituzte haien fitxategiak Arabako Lurralde Historikoko kontzejuek? 28

20.	Fitxategiak Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (DBEB) aitortzeaz gain, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan ere aitortu behar dira (AEPD)?	28
21.	Non aitortu behar dira udal enpresen fitxategiak?	29
22.	DBEBk badaki zeintzuk datu dauden bertan aitortutako fitxategietan?	29
23.	Nortzuk izan daitezke toki erakundeetako fitxategien arduradunak?	30
24.	Zeintzuk dira toki erakundeetako datuen babesaren arloan esku hartzen duten eragile aktiboak?	30

1.3. Datu bilketa 33-38

25.	Zer da adostasuna adieraztea?	33
26.	Noiz eta nola eskatzen da adostasuna?	33
27.	Noiz ez da beharrezkoa adostasuna eskatzea?	34
28.	Zer da datu-bilketako informazio eskubidea? zein informazio eman behar da?	34
29.	Pertsona bati datuak ahoz eskatzen bazaizkio, nola eman behar zaio berak jakin behar duenari buruzko informazioa (informazio eskubidea)?	35
30.	Pertsona bati datuak idatzizko inprimaki bidez eskatzen bazaizkio, nola eman behar zaio berak jakin behar duenari buruzko informazioa (informazio eskubidea)?	35
31.	Pertsona bati datuak web orriaren bidez eskatzen bazaizkio, nola ematen zaio berak jakin behar duenari buruzko informazioa (informazio eskubidea).	36
32.	Bereziki babestutako datuak biltzean informazio berezia eman behar da?	37
33.	Zer da "datuen kalitatea"?	37
34.	Zer dira datu egokiak, beharrezko datuak eta neurriko datuak?	38
35.	Zer dira helburu zehatz, esplizitu eta legitimoak?	38

1.4. Datuen tratamendua 39-44

36.	Zer da tratamendu arduraduna?	39
37.	Datu pertsonalen atzipendun zeintzuk tratamendu enkargatu ohi dituzte udalek?	39
38.	Datuen babesarekin zerikusia duten zeintzuk klausula jaso behar ditu entitate batekin egiten den kontratuak, entitate horrek datu pertsonaldun udal fitxategiak atzitu behar baditu?	40
39.	Zein dokumentazio berezi eskatu beharko dute "kontratu txikietan", kontratuaren helburuetako bat datu pertsonalak tratatzea bada?	41

40.	Noiz esaten da helburu bat ez dela bateraezina datuak eskatu zirenean zegoen helburuarekin?	42
41.	Informazio pertsonalaren kudeaketan, noiz esaten da datu pertsonalak zehatzak eta eguneratuak direla?	42

1.5. Datu tratamendua eta segurtasun neurriak 45-54

42.	Zer da segurtasun agiria?	45
43.	Zein egitura izan behar du segurtasun agiriak?	45
44.	Zer da segurtasun gorabeheren erregistroa?	46
45.	Zeintzuk dira segurtasun gorabehera ohikoenak?	46
46.	Zer dira erabiltzaile zerrondak, erabiltzaile profilak eta baimendutako atzipenak?	47
47.	Zer dira pasahitzak? Zer da pasahitzak kudeatzeko prozedura?	47
48.	Zeintzuk dira pasahitzak erabiltzeko ematen diren gomendio ohikoenak?	48
49.	Zer ez da egin behar pasahitzekin?	48
50.	Pasahitzen kudeaketa errazten laguntzen duten zenbait gomendio	49
51.	Nolako euskarriak erabili behar dira informazioa biltzeko edo eramateko?	50
52.	Euskarri bat ez bada gehiago erabili behar, zer egin behar da euskarrian jasotako datu pertsonalak behin betiko deuseztatzeko?	50
53.	Zer dira segurtasun, babes eta berreskuratze kopiak?	51
54.	Nor izendatu behar da fitxategi baten segurtasun arduradun?	52
55.	Zer da segurtasun neurrien gaineko auditoria?	52
56.	Noiz gomendatzen da barneko auditoria bat egitea?	53
57.	Noiz gomendatzen da kanpoko auditoria bat egitea?	53
58.	Nola enkriptatzen dira datuak?	53
59.	Zeintzuk dira eskuzko datu-fitxategiak babesteko ohiko neurriak?	54

1.6. Datu lagatzeak 55-60

60.	Nola jokatu behar da datu lagatzeetarako adostasuna eskatu behar denean?	55
61.	Noiz ez da beharrezkoa datu lagatzeetarako adostasuna eskatzea?	55
62.	Noiz eta nolako baldintzekin eskatu ahal zaie datuak lagatzeko beste administrazio batzuei?	56
63.	Nola eta nolako baldintzekin laga ahal zaizkie datuak beste administrazio batzuei?	56

64.	Nolako baldintzekin eskatu eta laga ahal izango zaizkie datuak toki erakunde bereko beste sail edo zerbitzu batzuei?	57
65.	Bidezkoa da udalerriko ikastetxe publiko edo pribatuek urte jakin batean jaiotako haurren helbideari buruzko datuak eskatzea matrikulak sustatzeko kanpainak egiteko?	58
66.	Bidezkoa da Eusko Jaurlaritzako sailek udalei datu pertsonalak eskatzea berariazko komunikazio kanpainak egiteko? badago horretarako beste aukerarik?	58
67.	Erroldako datuak laga ahal zaizkie pertsona fisikoei edo enpresa pribatuei?	59

1.7. Tratamendua bukatzean 61-62

68.	Zein da datu pertsonalak ezerezteko prozedura?	61
69.	Zein da datu pertsonalak blokeatzeko prozedura?	61
70.	Nola suntsitu behar dira paper euskarrian (zerrendak, espedienteak eta abar) dauden datu pertsonalak?	62

1.8. Datu pertsonalak babestearen arloan herritarrek erabil ditzaketen eskubideak 63-72

71.	Zer egin daiteke herritarrek erraz erabil ditzaten haien datu pertsonalak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak?	63
72.	Zer da atzipen eskubidea eta nola eskatu behar da?	63
73.	Atzipen eskubideaz baliatzea ukatu ahal da zaila delako edo garestia delako?	64
74.	Zer da zuzentzeko eskubidea eta nola eskatu behar da?	65
75.	Zer da ezerezteko eskubidea eta nola eskatu behar da?	65
76.	Noiz da ezinezkoa datu pertsonalak ezerezteak?	66
77.	Zer da aurka egiteko eskubidea eta nola eskatu behar da?	67
78.	Zer dira herritarrengan eragin handia duten eta datuen tratamendu automatizatu batean bakarrik oinarrituta dauden erabakiak?	68
79.	Nola eska dezake pertsona batek DBEBren babesa, bere datu pertsonalak direla eta, berak dauzkan eskubidea ez badira aintzat hartzen?	69
80.	Nola kontsultatu daiteke Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroa?	70

81.	Nola lor dezake pertsona batek publizitate baztergarririk ez jasotzea?	70
82.	Zer egin behar du pertsona batek telefono aurkibideetan ez agertzeko?	71

2. UDAL BARRUKO GESTIO BEREZIAK 73-128

2.1. Biztanleen Errolda 75-78

83.	Biztanleen Udal Erroldaren fitxategia sortu egin behar da nahitaez? eta Euskadiko Datu Pertsonalen Erregistroan inskribatu behar da?	75
84.	Zer jaso behar du nahitaez udal erroldak?	75
85.	Nolako baldintzekin laga ahal zaizkie udal erroldako datuak beste administrazio batzuei?	76
86.	Zein baldintzekin laga daitezke udal erroldako datuak toki erakundean bertan?	76
87.	Udal erroldako datuak laga ahal zaizkie pertsona fisikoek edo enpresa pribatuak?	77
88.	Toki erakunde bateko erroldako datuak laga ahal zaizkie bertako administrazio batzarrei kontzejuko erroldak egiteko? (Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeentzat bakarrik)	77
89.	Kontratatu ahal da enpresa pribaturik udal erroldaren fitxategia kudeatzeko?	77

2.2. Informazio atzipena. Herritarrak atenditzeko bulegoak. Ziurtagiriak luzatzea 79-88

90.	Nork dauka bukatuta dauden udal espedienteak atzitzeko eskubidea? Zeintzuk baldintza bete behar dira atzipena baimentzeko?	79
91.	Nork dauka izapidetzen ari diren udal espedienteak atzitzeko eskubidea? Zeintzuk baldintza bete behar dira atzipena baimentzeko?	80
92.	Nola jokatu behar da administrazio agiri bat atzitzeko eskabide bat dagoenean eta administrazio agiri hori ulertu ahal izateko datu pertsonalak dauzkan zerrenda bat behar bada? (alde batera utzita dena delako zerrenda hori atzitu nahi den administrazio agiriaren espedientekoa den ala ez)	80
93.	Etxebizitza batean erroldatuta dauden pertsonen gainerako informazioa eman ahal zaio etxebizitzaren jabeari?	81
94.	Eman ahal zaio Biztanleen Udal Erroldako ziurtagiri bat datu pertsonalen titularrak ez den pertsona bati, titularrarekin ahaidetasun harremana duela ikusita?	81

95.	Eman ahal zaio Biztanleen Udal Erroldako ziurtagiririk hildako pertsona baten senide bati, ziurtagiria beharrezkoa bada herentziarekin eta aseguruarekin zerikusia duten gestioak egiteko?	82
96.	Zuzena da ziurtagiria telefonoz eskatzea eta pertsona titularren posta helbidera bidaltzea?	82
97.	Udalerrri batean bizi zen pertsona batek errolda ziurtagiri bat eskatzen badu telefonoz edo Internetez, zer egin behar da? nola egiazta daiteke bere identitatea?	83
98.	Zer egin behar da pertsona batek ziurtagiri bat eskatzen badu postaz, bere identitatea egiaztatu badu (izenpetutako idazki baten bidez eta NANaren kopia aurkeztuta), baina erroldan jasotako helbidea ez den beste batera bidaltzeko eskatzen badu? zer egin behar da?	84
99.	Bizileku eta erroldatze ziurtagiria. Eskatzeko eta emateko prozedura.	84
100.	Biztanlearen ziurtagiri historikoa. Eskatzeko eta emateko prozedura.	85
101.	Heriotza ziurtagiria. Eskatzeko eta emateko prozedura.	85
102.	Ordainketa ziurtagiria. Eskatzeko eta emateko prozedura.	86
103.	Ondasunen ziurtagiria. Eskatzeko eta emateko prozedura.	86
104.	Errausketa ziurtagiria. Eskatzeko eta emateko prozedura.	87
105.	Gorpuzkiak aldatzea eta errautsak lekuz aldatzeari buruzko ziurtagiria. Eskatzeko eta emateko prozedura.	87
106.	Herritarraren portaera ona ziurtatzea. Eskatzeko eta emateko prozedura.	88

2.3. Publizitatea, zabalkundea eta jakinarazpenak 89-94

107.	Datu pertsonalak argitaratzea aldizkari ofizialetan edo ediktu-taula birtualetan. Nola jokatu behar da zuhurtasunagatik?	89
108.	Norgehiagoka prozedurak eta datu pertsonalak argitaratzea	90
109.	Pertsonen adostasuna ez da nahitaezkoa derrigorrezko argitalpen bat egin behar denean, nahiz eta datu pertsonalak argitaratu, argitalpenaren helburua hauetako bat bada: dei bat ziurtatzea, prozedura batean interesdunak diren pertsonak bertaratzea edo legezko betebeharrak bat betetzea.	91

110.	Argitara daitezke Interneten Udalbatzaren eta Gobernu Batzordearen bileren aktak, aktetan datu pertsonalak badaude?	92
111.	Zehapen prozedurak eta datu pertsonalak argitaratzea.	93

2.4. Politikoen parte hartzea 95-98

112.	Zinegotziek datu pertsonalak eskatzen badituzte kontrol eginkizunetarako, nola jokatu behar da zuhurtasunagatik?	95
113.	Udalbatzan datu pertsonalak aipatzen direnean, nola jokatu behar da zuhurtasunagatik?	96
114.	Akten edukia laburtu eta jendaurrean jartzean, datu pertsonalekin nola jokatu behar da zuhurtasunagatik?	96
115.	Udalbatzak edo batzordeen bilerak tokiko telebista edo Internet bidez grabatu eta zabaltzen badira, nola jokatu behar da zuhurtasunagatik?	97

2.5. Babestutako etxebizitzak esleitzeko prozedurak eta zozketak 99-102

116.	Etxebizitzen esleipena dela eta, Udalek jarri ahal dituzte ikusgai behin-behineko eta behin betiko zerrendak, esleipenak eta itxaron zerrendak Herriarren Zerbitzurako Bulegoan?	99
117.	Etxebizitzen esleipena dela eta, Udalek jarri ahal dituzte ikusgai behin-behineko eta behin betiko zerrendak, esleipenak eta itxaron zerrendak udalaren web gunean?	100
118.	Esleipen prozedurak kudeatzeko zerrendetan izen-abizenak baino ezin izango dira jaso. Ba al dago NANren datua argitaratzerik ala egokiagoa da datu ez pertsonalak jartzea: espediente zk., zozketarako esleitutako zenbakia eta abar?	101

2.6. Udaltzaingoak. Bideozaintza sistemak 103-108

119.	Udaltzaingoak atzitu ahal ditu Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren datuak? zein da atzipenaren helburua? datu lagatzea da?	103
120.	Udaltzaingoak laga ahal dizkie aseguru konpainiei zirkulazio istripuekin zerikusia duten datu pertsonalak?	104
121.	Udaltzaingoak atzitu ahal ditu herriko hezkuntza zentroetan eskolaratuta dauden adin gabekoen datu pertsonalak?	104

122. Egokia da ikastetxe batek adin gabeko baten gizarte eta familia egoera balioztatzeko txosten bat egitea Udaltzaingoak eskatu diolako?	105
123. Udal eraikinetan dauden bideozaintzako sistemak Datuak Babesteko Euskal Bulegoan aitortu behar dira?	106
124. Nola adierazi eta jakinarazi behar da bideozaintza sistemak daudela?	107

2.7. Hirigintzako espedienteak eta ingurumenari buruzko espedienteak 109-110

125. Izapidetzen ari den hirigintzako espediente bat atzitzeko baimena eman ahal zaio interesduna dela egiaztatzen duenari?	109
126. Izapidetzen ari den ingurumenari buruzko espediente bat atzitzeko baimena eman ahal zaio eskatzen duen edonori?	109

2.8. Pertsonen kudeaketa eta datu pertsonalak 111-122

127. Toki erakundeek zeintzuk datu pertsonal eta fitxategi kudeatzen dituzte langileen administrazioarako eta pertsonen zuzendaritza eginkizunetarako?	111
128. Langileentzako aseguru poliza kolektiboak edo pentsio planak kontratatzeko, pertsona onuradunen aldez aurreko adostasuna behar da?	111
129. Interesdunen adostasuna behar da PFEZaren helbururako foru ogasunei egin beharreko datu lagatzeetarako?	112
130. Interesdunen adostasuna behar da Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiari datuak lagatzeko, toki erakundeak arlo horretan dauzkan obligazioak bete ditzan?	112
131. Langileen aldez aurreko adostasuna eskatu behar da langileen ordezkariari langileen datu pertsonalak komunikatzeko?	112
132. Langileei buruzko zeintzuk datu laga ahal zaizkio Enpresa Batzordeari edo Langile Batzordeari?	113
133. Hauteskunde sindikaletan langileen hautesle errolda argitaratzeko mugak daude?	114
134. Langile bakoitzaren aldez aurreko adostasuna behar da toki erakunde batek bertako langileen mediku azterketa antola dezan?	114
135. Langileen osasun datuak direla eta, nola jokatu behar da zuhurtasunagatik?	115

136. Langileen aldeez aurreko adostasuna behar da Gizarte Segurantzako Lan-istripu eta Gaixotasun Profesionalek Mutuari datuak lagatzeko?	116
137. Langileak udalean sartzeko kontroletan datu biometrikoak erabil daitezke?	117
138. Hautaketa prozesuetan datu pertsonalak eskatzean, zeintzuk jardura dira desegokiak?	117
139. Bidezkoa da toki erakundearen komunikazio gida argitaratzea Interneten eta zerbitzu publikoa ematen duten lanpostuak zeintzuk diren jasotzeaz gain, lanpostua betetzen ari diren pertsonen identifikazio datuak ere ematea?	118
140. Zeintzuk datu argitara daitezke hautaketa prozesuetako edo lekualdatze lehiaketetako prozesuen kudeaketako hautagaien zerrendetan edo emaitzen zerrendetan?	119
141. Bidezkoa da toki erakundeko langileen posta elektronikoen edukia aztertzea?	120
142. Bidezkoa da toki erakundeko langileek Interneten ikusi dituzten orriak aztertzea?	121

2.9. Gizarte Zerbitzuak 123-128

143. Zein egoeratan laga ahal dizkio erakunde publiko batek (foru aldundi batek edo Eusko Jaurlaritzak) toki erakunde bati bertako Gizarte Zerbitzuetako espedienteetako datuak, datuen titularren aldeez aurreko adostasunik gabe?	123
144. Adin gabeko edo ezgaitu baten gaineko informazioa eman ahal zaio altari edo amari, horren zaintzaren ardura foru aldundian eginkizun hori dagokion sailak hartu badu? eta harrera programa baten bidez adin gabekoaren kargu egiten diren pertsonen?	124
145. Interesdunari eman ahal zaio espediente baten barruan zenbait profesionalen egindako txosten edo irizpenen kopiarik?	124
146. Gizarte zerbitzuak ematen dituzten udalek zeintzuk fitxategi aitortu behar dituzte?	125
147. Toki erakunde batek pertsona bati zeintzuk datu eskatu ahal dizkio gizarte zerbitzu bat eman ahal izateko?	125
148. Datuen titularrei gizarte zerbitzuren bat emateko eskatutako datuak erabili daitezke geroago beste helburu batzuetarako?	127
149. Toki erakunde bateko gizarte zerbitzuetan lan egiten duen langile batek badauka bertako fitxategietan dauden datu pertsonalak atzitzerik?	128

3. DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA, JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUA ETA EUDEL 129-141

3.1. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa 131-134

- 150. Zer da Datuak Babesteko Euskal Bulegoa? 131
- 151. Zeintzuk dira Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren eta toki erakundeen arteko lankidetzarako ildoak? 131
- 152. DBEBk zeintzuk eginkizun gauzatu behar ditu toki erakundeek datu babesaren arloko legedia betetzen dutela zaindu ahal izateko? 132
- 153. EAEko toki erakundeetarako datu babesari buruzko Jardunbide Egokien Eskuliburua zergatik erregistratu da ereduzko gida bezala? 133

3.2. EUDEL, arloko erakunde ordezkaria eta Jardunbide Egokien Eskuliburua ereduzko kode moduan bultzatu duena 135-138

- 154. Zer da Euskadiko Udalen Elkartek (EUDEL)? 135
- 155. Nola formalizatu da EUDEL-Euskal Udalen Elkartearen eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren arteko lankidetzaren harremana? 135
- 156. Nola egin da EAEko toki erakundeetarako datuen babesaren arloko Jardunbide Egokien Eskuliburua? 136
- 157. EUDELek eta toki administrazioaren arloan eskumenak dauzkaten foru aldundietako sailek nola sustatzen dute datu pertsonalen kudeaketan eta babesean jardunbide egokiak garatzea toki erakundeetan? 136

3.3. Udaletarako Jardunbide Egokien Eskuliburua Ereduzko Kodea da 139-141

- 158. Zer da datu pertsonalak kudeatzeko eta babesteko EAEko toki erakundeetarako ereduzko kodea? 139
- 159. Zein da datu babeserako Jardunbide Egokien Eskuliburuari atxikitzeko prozedura? 139
- 160. Nola kudeatzen da Jardunbide Egokien Eskuliburuari atxikita dauden toki erakundearen zerrenda? 140
- 161. Zeintzuk bete behar izango ditu Jardunbide Egokien Eskuliburuari atxikitzen zaion toki erakundeak? 140
- 162. Nola ebaluatzen da toki erakunde bat betetzen ari dela Jardunbide Egokien Eskuliburuan jasotakoa? 141

ERANSKINA



TOKI
ERAKUNDEETAKO
KASU
KONKRETUAK

1. OROKORREAN

1

ZER DA DATU PERTSONALAK BABESTEKO ESKUBIDEA?

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien garapenaren ondorioz sortu den **oinarrizko eskubide bat** da.
- Gai hau alor zabalago batean txertatu behar da, hau da, bizitza pribatuaren babesaren eta giza duintasunaren baitan. Izan ere, zenbaitek hirugarren belaunaldiko giza-eskubideen arloan kokatzen du honako eskubideekin batera: norbanakoaren identitatearen eskubidea, norberari buruzko informazioaren jabetzarako eskubidea, intimitaterako eta pribatutasunerako eskubideak eta norbere irudia izateko eskubidea.
- Zentzu horretan, autore batzuek informazio-autodeterminaziorako eskubidea deitu diote. Azken finean, kontua da informazio pertsonala zein den jakitea eta informazio hori kontrolatzea, hau da, honakoen berri izatea: zein informazio dagoen, nork atzitu dezakeen, nork daukan hirugarren pertsona buruzko informazioa sortzeko eta zabaltzeko gaitasuna, zertarako erabiltzen diren datu pertsonal horiek, zeintzuk erabaki hartzen diren datu horiekin eta abar.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Espainiako Konstituzioa. 18.4 artikulua.
- Konstituzio Auztegia, Osoko Bilkura, 254/1993, 290/2000 eta 292/2000 Epaiak.

2

NOR DA DATUEN JABEA?

- **Datu pertsonalak nori buruzkoak diren, datuak harenak dira** eta horrek baino ez du datuen gaineko erabakiak hartzeko ahalmena. **Beraz, udaleko zerbitzu edo sailak ez dira datuen jabeak.**
- Zenbait legek baimena ematen dute toki erakunde bateko zerbitzu edo sailek pertsona baten datu pertsonalak izan ditzaten, pertsona horren adostasunaren beharrik gabe.
- Datu horiek erabili ahal izateko datu pertsonalen babesaren arloko araudia bete beharko da.

3

DATUEN BABESAREN ARLOKO ARAUDIA HILDAKO PERTSONEN DATUEI ERE EZARRI AHAL ZAIE?

- **Hildako pertsonak ez dira** datu pertsonalak babesteko **eskubidearen** titularrak.
- Hala ere, hildako pertsona bati buruzko datu pertsonalak eta pertsona baten heriotzari buruzko datuak datu pertsonaltzat jo ahal izango dira **beste pertsona batzuei buruzko datu pertsonalak badira (hildakoaren seme-alabenak, oinordekoenak eta abar)**. Horrelakoetan, datu pertsonaltzat joko dira, datuen babesaren arloko legediaren ondorioetarako, **eta babestu egin beharko dira**.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 2. artikulua.
- DBEBren CN06-013 Irizpena.

4

MODU ELEKTRONIKOAN EGITEN DIREN ADMINISTRAZIO IZAPIDEEK BETE EGIN BEHAR DUTE DATU PERTSONALAK BABESTEKO ARAUBIDEA?

- Legeak ez du bereizketarik egiten datuak tratatzeko erabil daitezkeen euskarrien artean. Beraz, **administrazio elektronikoaren bidez egiten diren administrazio izapideek ere datuen babesaren arloko legedian ezarritako eskakizunak bete beharko dituzte**.
- Administrazio izapide telematikoetan tratatzen diren datu pertsonalak ere fitxategietan jaso beharko dira eta fitxategi horiek sortu eta aitortu egin beharko dira, Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan inskribatuak izan daitezzen. Datu horiek direla eta, adostasuna eskatu beharko da, horrelakoak aurreikusten dituen legerik egon ezean, eta interesduna behar bezala informatu beharko da.

5

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA AL DA WEB ORRI BATEN BIDEZ DATU PERTSONALAK EZAGUTZERA EMATEA?

- Web orri batean pertsona baten aipamena egitea eta pertsona hori bere izenarekin edo bestelako bitartekoekin identifikatzea, hau da, telefonoarekin edo bere lan baldintzei edo zaletasunei buruzko informazioarekin identifikatzea, datu pertsonalen tratamendutzat jotzen da. Beraz, horrelakoetan nahitaezkoa da Legean xedatutakoa betetzea.
- Gogoan izatekoa da oso erraza dela Interneten pertsonen gaineko erreferentziak aurkitzea bilatzaileekin; izan ere, tresna aproposak dira Interneteko gune edo dokumentuetan datuen aztarnei segitzeko.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegia , 2003ko azaroaren 6ko Epaia. LINDQVIST kasua.

6

ZER DIRA DATU PERTSONALAK?

- "Datu pertsonaltzat" jotzen da pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarriei buruzko edozein informazio (zenbakizkoa, alfabetikoa, grafikoa, fotografikoa, akustikoa edo beste edozein motatakoa).
- Ezin da esan pertsona bat identifikagarria denik, pertsona hori identifikatzeko fitxategi edo dokumentu batean baino gehiagotan erabilitako datuak behar badira eta identifikazioa egiteko denbora eta ahalegin handia behar badira. Era berean, ez da datuak babesteko araudia ezarriko, informazioa anonimoa bada edo datu erantsiak badira (adibidez: erakunde bateko langileen adin egituraren profila).
- Hona hemen udaletako fitxategiek izan ohi dituzten datu pertsonalak: izen-abizenak, NAN zk., telefonoa, helbidea, titulazio akademikoak eta prestakuntzako datuak, jaiotze data, nazionalitatea, sexua, lanbide jarduerak, kirol jardueren eta jarduera kulturalen eskaerak, bankuko datuak, zergak, jabetzako ibilgailuak, jabetzako higiezinak, prestazio sozialak, prestakuntzako jardueren eskaerak, laguntzak eta diru-laguntzak, egoera soziala, diru sarrerak eta errentak.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 3. artikulua.

7

ZER DIRA BEREZIKI BABESTUTAKO DATU PERTSONALAK?

- Badira zenbait datu kontuzkoak direnak, pertsonaren barne-barnekoak direlako edo datu horien komunikazioak pertsona egoera ahulean utz dezaketelako. Horregatik, datu horiek bereziki babestutako datutzat jo dira, eta datu horien tratamenduan segurtasun neurri bereziak erabili beharra dago. Bereziki babestutako datuak dira pertsonaren ideologia, sindikatu afiliazioa, erlijioa, sinesmenak, jatorria, arraza, osasuna, bizitza sexuala eta arau-hauste penalak eta administratiboa agerian uzten dituztenak.
- Ideologiari, erlijioari eta sinesmenei buruzko datuak badira, inor ez dago horien gaineko aitopenik egitera behartuta.
- **Ideologia, sindikatu afiliazioa, erlijioa eta sinesmenak** agerian uzten dituzten datu-tratamenduetarako, ezinbestekoa da interesdunaren berariazko eta idatzizko adostasuna.

1.2. Datu pertsonalak eta toki erakundeek erabiltzen dituzten fitxategiak

- Eta **arraza, osasuna eta bizitza sexualari** buruzko datu-tratamenduetarako, ezinbestekoa da interesdunaren berariazko adostasuna.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 7. eta 8. artikulua.

8

TOKI ERAKUNDEEK ZEINTZUK FITXATEGI AITORTU OHI DITUZTE?

- Toki erakundeek nahitaez aitortu behar dituzte Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan erakundearen legezko eskumenez baliatu ahal izateko sortzen dituzten fitxategi guztiak, baldin eta datu pertsonalak badauzkate.
- Hona hemen normalean aitortzen diren fitxategiak: Biztanleen Udal Errolda, Tasen eta zergen kudeaketa, Sarrera eta irteera erregistroa, Kontabilitate kudeaketa, Gizarte zerbitzuen prestazioa (asistentzia eta gizarteratzea), Langileen eta nominaren kudeaketa, Eskoletako ikasleen kudeaketa (haur eskolak, musika eskolak, arte eskolak ...), Kirol instalazioetako bazkideak eta erabiltzaileak, Landa jabetzako ondasun higiezinak, Etxeko animaliak, Hilerriaren kudeaketa eta Hirigintza.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datuak Babesteko Erregistroa ikusi hemen: www.avpd.es
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea. 25. artikulua.

9

ZER DA DATU TRATAMENDUA, ESKUZKOA NAHIZ AUTOMATIKOA?

- “Datu tratamendua” esaten zaio datu pertsonalak jaso, gorde, elkartu edo jakinarazteari edo datu pertsonalekin egin daitekeen bestelako edozein erabilerari, erabilera eskuzkoa ala informatizatua izan. Batzuetan, datu-tratamendua eskuzkoa eta automatikoa izan daiteke aldi berean, ohikoa delako betiko artxibatze metodoak eta sistema informatikoak batera erabiltzea, sistema informatikoetan datu batzuk gordez eta gainontzeko datuak eskuratzeko betiko artxiobotara jo behar izanez.

10

ZEIN DESBERDINTASUN DAGO FITXATEGI AUTOMATIZATUEN ETA ESKUZKO FITXATEGIEN ARTEAN?

- Fitxategia datu pertsonalei buruzko informazio-multzo egituratua da, edozein dela sortzeko, biltegitratzeko, antolatzeko eta atzitzeko era edo modalitatea.
- Udalek erabiltzen dituzten fitxategiak etengabe automatizatuz joan dira, hau da, datu baseetan egituratutako informazio multzoz osatuta daude eta informatikaren beharra dute bertako datuak prozesatzeko, biltegitratzeko eta ustiatzeko. Horregatik fitxategi informatikoak direla esaten da.
- Hala ere, toki erakundeek oraindik erabiltzen dituzte paper formatuko fitxategiak edo espedienteen multzo egituratuak.
- Fitxategi automatizatuak eta eskuzko fitxategiei datuak babesteko araudia ezarri behar zaie. Informazioaren segurtasuna bermatzeko neurriak fitxategiaren formatura —informatikoa ala eskuzkoa— egokitu behar dira.

11

ESKUZKO FITXATEGIAK, HAU DA, PAPEREZKO FITXATEGIAK (FITXAK, ZERRENDAK ETA ABAR) EUSKADIKO DATUAK BABESTEKO ERREGISTROAN INSKRIBATU BEHAR AL DIRA?

- Eskuzko formatu batean tratatzen diren datu multzo egituratuak (espediente multzoak, zerrenda egituratuak, antolatutako edo sailkatutako fitxak ...) sortu eta aitortu egin beharko dira, Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan inskribatuak izan daitezen.

12

ZEIN ARAU EDO XEDAPEN ERABILI BEHAR DUTE TOKI ERAKUNDEEK DATU PERTSONALEN FITXATEGIAK SORTZEKO?

- 15/1999 Lege Organikoak ezartzen du fitxategiak izaera orokorreko xedapen baten bidez sortu, aldatu edo ezabatu behar direla. “Izaera orokorreko xedapenaren” kontzeptua ezin da zuzenean estrapolatu udal araudi sistemara.
- Toki erakundeek ordenantza edo erregelamendu baten bidez aitortu izan dituzte fitxategiak eta inoiz alkatetza-dekretu bidez. Egun, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak (DBEB) ordenantzak, erregelamenduak edo alkatetza-dekretuak onartzen ditu sortze-xedapen moduan.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 20. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 15. artikulua. II Eranskina M6.

13

NOLA AURKEZTU BEHAR DA DBEB-N FITXATEGIAK INSKRIBATZEKO ESKABIDEA?

- DBEBren web orriaren bidez (www.avpd.es). Web orrian autoaitorpenak egiteko programa bat eta inprimakiak betetzeko jarraibideak eskura daitezke, fitxategiak Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan inskribatu ahal izateko.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki erakundeetarako JEE. 16. artikulua.
- 2/2004 Legea garatzen duen urriaren 18ko 308/2005 Dekretua. 2. artikulua.
- DBEBren zuzendariaren 2005eko uztailaren 21eko Ebazpena, eredu normalizatuak ezartzen dituen.

14

TITULARTASUN PUBLIKOKO FITXATEGIAK ALDATU EDO EZABATU BEHAR BADIRA, NOLA EGITEN DA ALDATZEKO EDO EZABATZEKO AITORPENA?

- Toki erakundeetako fitxategiak aldatu edo ezabatzeko, fitxategia sortzeko erabili zen maila bereko xedapena erabili beharko da.
- Fitxategia aldatu edo ezabatzen bada, horren berri eman beharko zaio DBEBri. DBEBren web orrian (www.avpd.es) autoaitorpenak egiteko programa bat eta inprimakiak betetzeko jarraibideak eskura daitezke, fitxategiak Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan inskribatu ahal izateko.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki erakundeetarako JEE. 16. artikulua.
- 2/2004 Legea garatzen duen urriaren 18ko 308/2005 Dekretua. 2. artikulua.
- DBEBren zuzendariaren 2005eko uztailaren 21eko Ebazpena, eredu normalizatuak ezartzen dituen.

15

ALKATEAK ERABAKI DU ZINEGOTZIGO BAKOITZEKO ERANTZUKIZUNAK BERRANTOLATZEA. ALDAKETAK JAKINARAZI EGIN BEHAR ZAIZKIO DBEB-RI?

- Zinegotzigoen artean egiten diren erantzukizunen barne aldaketek datu pertsonalen fitxategien erantzukizuna duten pertsonak ere aldatzen badituzte eta, ondorioz, aldaketek Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroko inskripzioan ere eragiten badute, orduan beharrezkoa izango da aldaketak jakinaraztea DBEBri.
- Adibidez, “udal kirol instalazioen erabiltzaileak” fitxategiaren ardura duen organoa kulturako zinegotzigoa bazen, eta aurrerantzean eginkizun horiek hartzeko kirol zinegotziko bat sortzen bada, aldaketa hori jakinarazi egin beharko zaio DBEBri, inskripzioa egin dezan. Gainera, erantzukizun aldaketa arautzen duen udal arauaren kopia bat ere bidali beharko zaio DBEBri.

16

NOLA AITORTU BEHAR DITUZTE HAIEN FITXATEGIAK UDALEN MANKOMUNITATEEK?

- Euskal Autonomia Erkidegoko udalen mankomunitateek Datuak Babesteko Euskal Bulegoan aitortu behar dituzte bertako fitxategiak. Horretarako, ordenantza bat, erakunde errektorearen erabaki bat edo izaera orokorreko xedapen bat egin dezakete, Toki Araubidearen oinarrien legedian eta erakundearen estatutuetan aurreikusten dena kontuan hartuta.

17

NOLA AITORTU BEHAR DITUZTE HAIEN FITXATEGIAK PARTZUERGOK?

- Euskal Autonomia Erkidegoko udalek parte hartzen duten partzuergoek Datuak Babesteko Euskal Bulegoan aitortu behar dituzte bertako fitxategiak. Horretarako, ordenantza bat edo izaera orokorreko xedapen bat egin dezakete, Toki Araubidearen oinarrien legedian eta erakundearen estatutuetan aurreikusten dena kontuan hartuta.

18

NOLA AITORTU BEHAR DITUZTE HAIEN FITXATEGIAK ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO KUADRILLEK?

- Arabako Lurralde Historikoko kuadrillek Datuak Babesteko Euskal Bulegoan aitortu behar dituzte bertako fitxategiak. Horretarako, ordenantza bat edo izaera orokorreko xedapen bat egin dezakete, dagokien araudian edo bakoitzaren funtzionamendu erregelamenduan aurreikusten dena kontuan hartuta.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Kuadrillei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua.

19

NOLA AITORTU BEHAR DITUZTE HAIEN FITXATEGIAK ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO KONTZEJUEK?

- Arabako Lurralde Historikoko kontzejuek Datuak Babesteko Euskal Bulegoan aitortu behar dituzte bertako fitxategiak. Horretarako, ordenantza bat edo erregelamendu bat egin dezakete, Toki Araubidearen oinarrien legedian eta Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuen martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauan aurreikusten dena kontuan hartuta.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzko martxoaren 20ko 11/1995 Foru Araua.

20

FITXATEGIAK DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAN (DBEB) AITORTZEAZ GAIN, DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO BULEGOAN ERE AITORTU BEHAR DIRA (AEPD)?

- Ez da nahitaezkoa izango toki erakundeetako fitxategiak agentzia bietako erregistroetan aitortzea, hau da, DBEBn eta Espainiako Agentzian (AEPN); izan ere, DBEBri jakinaraziz gero, ulertuko da Datuak Babesteko Espainiako Bulegoari ere jakinarazi zaiola, DBEBk bidaliko baitio informazioa Espainiako Agentziari.

- Estatuko lau agentzien artean (Espainiakoa, Madrileko Erkidegokoa, Kataluniakoa eta Euskadikoa) informazio trukatzeko protokolo bat dago erregistro trukerako.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki erakundeetarako JEE. 16. artikulua.

21

NON AITORTU BEHAR DIRA UDAL ENPRESEN FITXATEGIAK?

- Udal enpresen fitxategiak Datuak Babesteko Espainiako Agentzian (AEPD) aitortu beharko dira.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 2ko 2/2004 Legea.

22

DBEB-K BADAHI ZEINTZUK DATU DAUDEN BERTAN AITORTUTAKO FITXATEGIETAN?

- DBEBk kudeatzen duen Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroak **ez dauka datu pertsonalik**; izan ere, Erregistroan bakar-bakarrik jasotzen dira udaletako datu pertsonalen fitxategien ezaugarrien gaineko informazioa eta ez datuak.
- Hona hemen Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroak daukan informazioa: Administrazio mota:
 - Tratamendu kontrolatzailea.
 - Fitxategia atzitzeko posta-helbidea.
 - Fitxategiaren izena.
 - Fitxategiaren deskribapena.
 - Zein xedapen orokorretan argitaratu zen.
 - Ezarri beharreko segurtasun maila.
 - Datu lagatzeak.
 - Helburuaren deskribapena.
 - Datuen jatorria.
 - Datu bilketaren prozedura.
 - Euskarria (papera, automatizatua, besterik).
 - Datuen egitura.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki erakundeetarako JEE. 15. eta 16. artikulua.
- Erregistroa kontsultatu www.avpd.es web orrian.

23

NORTZUK IZAN DAITEZKE TOKI ERAKUNDEETAKO FITXATEGIEN ARDURADUNAK?

- Tratamendu kontrolatzailea pertsona fisikoa nahiz juridikoa, publikoa nahiz pribatua edo administrazio organoa da, eta datu pertsonalen helburuari, edukiari eta tratamenduaren erabilerari buruzko erabakiak hartzen ditu.
- Toki erakunde bakoitzeko lehendakaritza da bertako fitxategien arduraduna. Beste organoren bat ere izan daiteke arduraduna, halakorik jaso bada toki erakundearen egitura organikoan.
- Lehendakaritzak bertako langileen arteko pertsona fisiko bati eskuordetu ahal izango dizkio fitxategien segurtasunarekin zerikusia duten lanak. Normalean zinegotziei, idazkariei, zuzendariei eta abarrei eskuordetzen zaizkie eginkizun hauek.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki erakundeetarako JEE. 25 3 b). artikulua.

24

ZEINTZUK DIRA TOKI ERAKUNDEETAKO DATUEN BABESAREN ARLOAN ESKU HARTZEN DUTEN ERAGILE AKTIBOAK?

- Toki erakunde bakoitzaren egitura hartuko da kontuan datu pertsonalen babesaren arloan eragile izateko. Hona hemen eragileak izan daitezkeen figurak:
 - a) Toki erakundeko lehendakaria. Bera izango da azken erantzulea.
 - b) Tratamendu kontrolatzailea: alkatetzan dagoen pertsona bera izan daiteke edo horrek eskuordetzen duen beste bat.
 - c) Segurtasun arduraduna.
 - d) Erabiltzaileak (datuak edo baliabideak atzitzeko baimena duen pertsonak edo prozesuak).
 - e) Tratamenduaren arduraduna den pertsona edo entitatea (tratamendu kontrolatzailearen kontura datu pertsonalak tratatzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa).

1.2. Datu pertsonalak eta toki erakundeek erabiltzen dituzten fitxategiak

- f)** Datu pertsonalak babesteko batzordea.
- g)** Datuak babestearen arloko laguntzailea edo koordinatzailea (pertsona).

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki erakundeetarako JEE. 25 3 b). artikulua.

25

ZER DA ADOSTASUNA ADIERAZTEA?

- Adostasuna da interesdunak egiten duen borondate adierazpena, berari buruzko datu pertsonalak tratatzeko adostasuna adierazteko.
- Borondate adierazpenak honakoa izan behar:
 - Askea, hau da, ezin da eman akats baten, indarkeriaren, beldurraren edo engainuaren ondorioz.
 - Argia (ez ustezkoa).
 - Berariazkoa, hau da, tratamendu operazio bati buruzkoa eta helburu esplizitu baterako.
 - Informatua, hau da, pertsonak aldeztatik izan behar du tratamenduaren eta haren helburuen berri.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 3. eta 6. artikulua.

26

NOIZ ETA NOLA ESKATZEN DA ADOSTASUNA?

- Fitxategietan tratatuko diren datu pertsonalak jasotzeko, datuen titularraren adostasuna eskatu behar da, hau da, datu horiek ukitzen duten pertsonaren adostasuna.
- Adostasunak **argia** izan behar du, hau da, ez da ustezkoa izan behar. Beraz, adostasuna eman dela agerian uzten duen berariazko egite edo ez-egiteren bat egon beharko du.
- Adostasuna honakoa izan daiteke:
 - **Adierazi gabea:** informazioa ematen da, adostasuna eskatzen da eta esaten da adostasuna adierazi dela, kontrako adierazpenik ez bada egin.
 - **Adierazia:** informazioa ematen da, adostasuna eskatzen da eta berariaz eta ahoz adierazi behar da adostasuna.
 - **Adierazia eta idatzia:** informazioa ematen da, adostasuna eskatzen da eta berariaz eta idatziz adierazi behar da (prozedura hau nahitaezkoa da ideologiari, erlijioari, sinesmenei eta sindikatu afiliazioari buruzko datuak badira).

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 6. eta 7. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 20. eta 21. artikulua.

27

NOIZ EZ DA BEHARREZKOA ADOSTASUNA ESKATZEA?

- Ez da adostasunik eskatu beharrik izango honelakoetan:
 - Tratamendua baimentzen duen legeren bat badago.
 - Datuak beharrezkoak badira udalak haien eskumenez baliatu daitezzen.
 - Kontratu edo aurrekontratu batean toki erakunde baten eta pertsona (datuen titularra) baten arteko lan, merkataritza edo administrazio harremanen bat badago, eta datuak beharrezkoak badira harremana mantentzeko edo betetzeko.
 - Pertsona baten bizitza arriskuan badago.
 - Datu pertsonalak jendearen eskurako iturrietatik hartzen badira, eta beste
 - baldintza batzuk betetzen badira.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 6. eta 7. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 20. eta 21. artikulua.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea. 25. artikulua.

28

ZER DA DATU-BILKETAKO INFORMAZIO ESKUBIDEA? ZEIN INFORMAZIO EMAN BEHAR DA?

- Norbaiti datu pertsonalak eskatu baino lehen, ezinbestean eman beharko zaio berariaz ondoko informazioa:
 - Datu pertsonalak tratatzen dituen fitxategi bat dagoela.
 - Fitxategiaren helburua zein den eta informazioaren hartzaileak nortzuk diren.
 - Galderei erantzutea nahitaezkoa den ala ez, eta datuak emateak edo ez emateak dauzkan ondorioak.
 - Atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak erabiltzeko aukera dagoela.
 - Eta datuen tratamendu kontrolatzailearen identitatea eta helbidea.

- Oinarrian dagoen galdera zera da: pertsonak izan behar dute administrazioari eman behar dioten informazioaren ondorioen berri? Pertsonak erabakiak hartu ahal izateko eta adostasuna (adostasun informatua) eman ahal izateko informazioa izan behar dute.

29

PERTSONA BATI DATUAK AHOZ ESKATZEN BAZAIZKIO, NOLA EMATEN ZAIO BERAK JAKIN BEHAR DUENARI BURUZKO INFORMAZIOA (INFORMAZIO ESKUBIDEA)?

- Informazioa biltzeko erabiltzen den sistemarekin bat datorren bitarteko baten bidez eman beharko da informazioa.
- Beti informazio bera eman behar da, ahoz, idatziz edo posta elektroniko bidez eman.
- Datuak ahoz biltzen direnean ere nahitaezkoa izango da informazioa berariaz, zehatz eta argi ematea:
 - **Berariaz:** ahoz ala idatziz (informazio orri bat emanez).
 - **Zehatz:** 27. galderan azaldutako puntuen gainean eman beharreko informazio guztia emanez (fitxategia, helburua, hartzaileak, arduradunaren helbidea, erantzunaren ondorioak, atzipen eskubidea eta abar).
 - **Argi:** informazio desegokia, zehaztasunik gabea eta gaizki ulertzeak ekar ditzakeena saihestuz.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 5. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 6. artikulua.

30

PERTSONA BATI DATUAK IDATZIZKO INPRIMAKI BIDEZ ESKATZEN BAZAIZKIO, NOLA EMAN BEHAR ZAIO BERAK JAKIN BEHAR DUENARI BURUZKO INFORMAZIOA (INFORMAZIO ESKUBIDEA)?

- Datu pertsonalak galde-sorta edo inprimaki bidez jasotzen badira, ondoko informazioa ere argi eta garbi adierazi beharko da:
 - Fitxategi bat dagoela, fitxategiaren datu bilketaren xedea eta nortzuk diren informazioaren hartzaileak.
 - Tratamenduaren arduradunaren identitatea eta helbidea.
 - Erantzutea nahitaezkoak ala borondatezkoa den.
 - Datuak ematearen edo ukatzearen ondorioak.

- Atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak erabiltzeko aukera dagoela.
- Dokumentuaren diseinua dela eta, informazio klausuletan letra tamaina askoz txikiagoa erabili beharra badago, informazioa osatu egin beharko da, herritarren arretarako bulegoetako leku ageri eta egoki batean txartelak ipinita. Era berean, informazioa toki erakundearen web orrian ere argitaratu ahal izango da.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 5. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 6. artikulua eta M1.1 Eranskina.

31 PERTSONA BATI DATUAK WEB ORRIAREN BIDEZ ESKATZEN BAZAIZKIO, NOLA EMAN BEHAR ZAIO BERAK JAKIN BEHAR DUENARI BURUZKO INFORMAZIOA (INFORMAZIO ESKUBIDEA)?

- Normalean web orrira egokitutako galde-sortak edo inprimakiak erabiliko dira. Galde-sorta edo inprimaki horietan argi eta garbi agertu beharko dira informazio klausulak. Ahozkorako eta inprimaki ez elektroniketarako erabiltzen diren klausula berberak erabiliko dira:
 - Fitxategi bat dagoela, fitxategiaren datu bilketaren xedea eta nor den informazioaren hartzailea.
 - Tratamenduaren arduradunaren identitatea eta helbidea.
 - Erantzutea nahitaezkoak ala borondatezkoak den.
 - Datuak ematearen edo ukatzearen ondorioak.
 - Atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak erabiltzeko aukera dagoela.
- Gerta daiteke dokumentuaren diseinua dela eta, ezinezkoa izatea informazio klausulak bertan jartzea, edo ez izatea oso gomendagarria. Horrelakoetan, han eman beharreko informazioa osatu egin beharko da web orrian jarriko den esteka baten bidez, eta informazioa han jarritz.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 5. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 6. artikulua eta M1.1 Eranskina.

32

BEREZIKI BABESTUTAKO DATUAK BILTZEAN INFORMAZIO BEREZIA EMAN BEHAR DA?

- Bereziki babestutako datuak biltzean komeni da informazioa idatziz ematea. Beraz, informazioa emateko modua honelakoa izan beharko da:
 - **Adierazia:** idatziz, informazio orri bat emanez.
 - **Zehatza:** behar den informazioa emanez:
 - Fitxategi bat dagoela, fitxategiaren datu bilketaren xedea eta nor den informazioaren hartzailea.
 - Tratamenduaren arduradunaren identitatea eta helbidea.
 - Erantzutea nahitaezkoak ala borondatezkoa den.
 - Datuak ematearen edo ukatzearen ondorioak.
 - Atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak erabiltzeko aukera duela.
 - **Argia:** informazio desagokia, zehaztasunik gabea eta gaizki ulertzeak ekar ditzakeena saihestuz.
- Honakoak ere adierazi beharko dira:
 - Ideologiari, erlijioari eta sinesmenei buruzko datuak badira, inor ez dagoela horien gaineko aitortpenik egitera behartuta.
 - Ideologiari, erlijioari, sinesmenei eta sindikatu afiliazioari buruzko datuak badira, adostasuna adierazia eta idatzizkoa izan behar dela.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 5. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 6. artikulua eta M1.1 Eranskina.

33

ZER DA "DATUEN KALITATEA"?

- Datu babesaren oinarritzko printzipioetako bat da, eta pertsonen bermatzen die haien datuak baldintza hauekin biltzen direla:
 - Legezkoak, leialak eta zintzoak diren bitartekoekin.
 - Helburu esplizitu eta mugatugetarako tratatuko direla eta ezin direla tratatu bestelako helburuetarako.
 - Datuak egokiak, beharrezkoak eta neurrikoak izango direla.
 - Datuak zehatzak eta eguneratuak izango direla.
 - Behar den denbora tartean baino ez direla biltegitratuko.

34

ZER DIRA DATU EGOKIAK, BEHARREZKO DATUAK ETA NEURRIKO DATUAK?

- **Datuak egokiak dira** informazio bilketaren xedearen egoerari eta baldintzei erantzuteko aproposak badira.
- Datuak **bereizleak** dira informazio bilketaren xedearekin zerikusia edo harremana badute edo xedeari eragiten badiote edo hura lortzera bideratuta badaude.
- Datuak **neurrikoak** dira informazio bilketaren xedea lortzeko arrazoizkoak eta zentzuzkoak badira.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 4. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 18. artikulua.

35

ZER DIRA HELBURU ZEHATZ, ESPLIZITU ETA LEGITIMOAK?

- **Helburu zehatzak dira** argi eta garbi zehaztuta daudenak, **doi-doiak, eta inola ere ez lausoak.**
- **Helburu esplizituak dira** gauza bat **argi eta garbi eta zehatz adierazten dutenak.**
- **Helburu legitimoak dira legeekin bat datozenak.**

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 5. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 18. artikulua.

36

ZER DA TRATAMENDU ARDURADUNA?

- Administrazioaren edo tratamendu kontrolatzailearen kontura datu pertsonalak tratatzen dituen pertsona, enpresa, agintari publiko, zerbitzu nahiz bestelako erakundea da. Adibidez, IZFE da Gipuzkoako zenbait udalen tratamenduen tratamendu arduraduna.
- Datu pertsonalak tratatzen direnez, ezarri beharrekoak diren segurtasun neurri guztiak finkatu eta betearazi behar dituzte.
- Datuak Babesteko Lege Organikoa garatzen duen 2007ko erregelamendu berriak berriro definitzen du tratamendu kontrolatzailearen kontzeptua. Ondorioz, administrazio publikokoarekin harreman juridikoa duten administrazio-organoak ere izan daitezke tratamendu kontrolatzaile. Era berean, nortasun juridikorik ez duten zenbait ente ere izan daitezke tratamendu arduradun, subjektu berezitu moduan jarduten dutenean, adibidez, aldi baterako enpresa elkarteak (ABEE).

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 3. eta 12. artikulua.
- DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 20-22. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 5. eta 23. artikulua.

37

DATU PERTSONALEN ATZIPENDUN ZEINTZUK TRATAMENDU ENKARGATU OHI DITUZTE UDALEK?

- Kontratuak enpresekin honakoak egiteko:
 - Datu pertsonalen tratamenduak dauzkaten aplikazio informatikoak eta horien mantentze-lanak egitea (adibidez: zergen kudeaketarako aplikazio bat garatzea eta abar).
 - Ur kontagailuen irakurketa kudeatzea.
 - Zenbait tasa edo zerga kobratzea.
 - Laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzea.
 - Dokumentazio bidalketak kudeatzea (mailing arloko enpresekin).
 - Nominen ordainketa kudeatzea edo zergen ordainketaren koordinazioa kudeatzea (finantza entitateak).
 - Segurtasun fisikoa eta instalazioak.
 - Paperen eta zerrenden suntsiketa kudea.

- Garbitasuna.
- Kanpoko aholkularitzek nominak egitea.
- Nominen ordainketak koordinatzeko finantza entitateak.

38

DATUEN BABESAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ZEINTZUK KLAUSULA JASO BEHAR DITU ENTITATE BATEKIN EGITEN DEN KONTRATUAK, ENTITATE HORREK DATU PERTSONALDUN UDAL FITXATEGIAK ATZITU BEHAR BADITU?

- Udalak **arautu egin beharko du kontratatu duen entitateak egin behar duen datu pertsonalen tratamendua**, eta entitatea tratamendu arduraduntzat jo beharko du. Horretarako, kontratu idatzi bat egin beharko da, edo beste bitarteko bat erabili ahal izango da, baldin eta baliokoa bada kontratua eta haren edukia egiaztatzeko.
- Hona hemen izenpetu beharreko kontratuaren edukia: zeintzuk datu ematen diren, zein fitxategitan tratatuko diren datuak, lana zein jarduera motatarako izango den eta datuak nola tratatu behar diren.
- Hona hemen **tratamendu arduradunaren betebeharrak**:
 - 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzea.
 - Aldez aurretik zehaztutako helbururako bakarrik erabiltzea informazioa.
 - Jarraibideak kontuan hartuta tratatzea informazioa.
 - Lanbide sekretua gordetzea bai enpresak bai bertako langileek.
 - Segurtasun neurriak betetzea.
 - Segurtasun agiri formalizatu eta dokumentatu bat izatea.
 - Segurtasun sistemako akatsen edo ihesen berri ematea toki erakunde kontratatzaileari.
 - Informazioa ez erreproduzitzea, ez komunikatzea eta hirugarren ez lagatzea.
 - Jarduera ez azpikontratatzea, baimentzen den kasuaten izan ezik.
 - Kontrataturako zerbitzua bukatutakoan, datuak ezabatzea edo euskarri informatikoa itzultzea.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 3. eta 12. artikulua.
- Toki erankudeetarako JEE. 5. eta 23. artikulua eta II Eranskineko M11 eta M12.

39

ZEIN DOKUMENTAZIO BEREZI ESKATU BEHARKO DUTE “KONTRATU TXIKIETAN”, KONTRATUAREN HELBURUETAKO BAT DATU PERTSONALAK TRATATZEA BADA?

- Kontratu txiki bat formalizatzeko, nahikoa izan daiteke ordainagiri bat edo ordainketen egiaztagiri bat.
- Baina kontratistak datu tratamendua dakarren ondasunen edo zerbitzuren bat kontratatzeko izapideetarako erabiltzen badu, kontratu agiri bat egon beharko da kontratatutako zerbitzua gauzatu aurretik, eta kontratu agiri horren bidez, Datuak Babesteko Lege Organikoaren 12. artikuluan xedatutakoa garatuko da eta kontratistari artikulua horretan xedatutakoa betearaziko zaio.
- Kontratuaren edukia honakoa izango da:
 - Zeintzuk datu ematen diren, zein fitxategitan tratatuko diren datuak, lana zein jarduera motatarako izango den eta datuak nola tratatu behar diren.
- Hona hemen **tratamendu arduradunaren betebeharrak**:
 - 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzea.
 - Aldez aurretik zehaztutako helbururako bakarrik erabiltzea informazioa.
 - Jarraibideak kontuan hartuta tratatzea informazioa.
 - Lanbide sekretua gordetzea bai enpresak bai bertako langileek.
 - Segurtasun neurriak betetzea.
 - Segurtasun agiri formalizatu eta dokumentatu bat izatea.
 - Segurtasun sistemako akatsen edo ihesen berri ematea toki erakunde kontratatzaileari.
 - Informazioa ez erreproduzitzea, ez komunikatzea eta hirugarrei ez lagatzea.
 - Jarduera ez azpikontratatzea, baimentzen den kasuetan izan ezik.
 - Kontratutako zerbitzua bukatutakoan, datuak ezabatzea edo euskarri informatikoa itzultzea.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 3. eta 12. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 5. eta 23. artikulua eta II Eranskinetako M11 eta M12.

40

NOIZ ESATEN DA HELBURU BAT EZ DELA BATERAEZINA DATUAK ESKATU ZIRENEAN ZEGOEN HELBURUAREKIN?

- Datu pertsonalak ezin izango dira erabili datu horiek biltzeko ezarri ziren helburuekin bateraezinak diren bestelako helburuetarako. Ez dira joko helburu bateraezintzat datu horiekin gero egiten diren tratamenduak, helburu historiko, estatistiko edo zientifikoetarako badira.
- **Helburu bateraezinak dira** hasierako helburuarekin batu edo uztartu ezin diren helburuak.
- Jurisprudentiaren arabera, helburu jakin baterako bildutako datuak ezin dira erabili bestelako helburu baterako, nahiz eta datu bilketako helburuarekin bateragarria izan. Erabili ahal izateko, interesdunaren adostasuna eskatu behar da.
- Adibidez, zirkulazio zergari buruzko udal fitxategiaren datuak ezin dira erabili egoiliarrei aparkatzeko txartel pertsonalizatuak esleitzeko, fitxategiaren helburua zirkulazioko zerga kobratzea delako. Hori egin ahal izateko, aldeztu aurretik interesdunaren adostasuna eskatu behar da. Hala ere, zirkulazio zergaren fitxategiko datu pertsonalekin disoziazio teknikak erabiltzen badira, eta informazioa datu erantsi bihurtu, datu orokor horiek erabili ahal izango dira TAO txartelen banaketa antolatzeko, ez delako datu pertsonalik tratatzen.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 4. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 18. artikulua.

41

INFORMAZIO PERTSONALAREN KUDEAKETAN, NOIZ ESATEN DA DATU PERTSONALAK ZEHAZKAK ETA EGUNERATUAK DIRELA?

- Datu pertsonalak zehatzak eta eguneratuak izan beharko dira eta baliokoak interesdunaren egungo egoerarako.
- **Datu zehatzak** dira interesdunaren egoera zehaztasunez eta doitasunez islatzen dutenak.
- **Datu eguneratuak** dira egunean jarrita daudenak, hau da, interesdunaren uneen uneko benetako egoera islatzen dutenak.

- Toki erakundeek aldian-aldian eguneratu beharko dituzte erabiltzen dituzten datu pertsonalak. Horrek esan nahi du noizean behin herritarrei galdetu beharko dietela ea toki erakundeak dauzkan haiei buruzko datu pertsonalak zehatzak diren eta eguneratuta dauden edo, aitzitik, aldatu egin diren.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 4. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 18. artikulua.

42

ZER DA SEGURTASUN AGIRIA?

- Segurtasun agiria tratamendu kontrolatzaileak onartzen du, eta bertan arlo teknikoko eta antolaketa arloko neurriak jasotzen dira, indarrean dagoen legediaren arabera.
- Informazio sistemetara sarbidea duten langileek nahitaez bete behar dute eta erakundearen barneko agiri bat da.
- Ondorio horietarako, informazio sistematzat jotzen dira datu pertsonalak biltegitratzeko eta tratatzeko erabiltzen diren fitxategi automatizatuak eta eskuzko fitxategiak, programa informatikoak, euskarriak eta ekipoak.
- Segurtasun Agiriak hainbat elementu hartzen ditu bere baitan: ereduak, arauak, inprimakiak, kontratuak, borondate adierazpenak, dekalogoak, jardunbide kodeak eta errutinak. Agiriak datuen babesari buruzko araudia betetzeaz gain, pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarrien gaineko informazioaren tratamenduarekin zerikusia duten gainontzeko arauak ere bete behar ditu.
- Segurtasun Agiri bakar bat egon daiteke fitxategi eta tratamendu guztietarako edo agiri bat fitxategi bakoitzeko edo fitxategi edo tratamendu multzo bakoitzeko.

43

ZEIN EGITURA IZAN BEHAR DU SEGURTASUN AGIRIAK?

- Agiriak honakoak jaso beharko ditu gutxienez:
 - Agiriaren ezarpen eremua eta babestutako baliabideak.
 - Jardunbide Egokien Eskuliburu honetan eta indarrean dagoen araudian eskatzen den segurtasun maila bermatzen dela ziurtatuko duten segurtasun neurriak (arauak, prozedurak, erregelak eta ereduak).
 - Datu pertsonalak tratatzen dituzten langileek nahitaez bete behar dituzten eginkizun eta jardunbide arau komunak.
 - Datu pertsonalak dituzten fitxategien egitura eta horiek tratatzeko erabili behar diren informazio sistemen deskribapena.
 - Jakinarazpen, kudeaketa eta erantzun prozedura, gorabeheraren bat dagoenerako.
 - Fitxategi automatizatueta babes kopiak egiteko eta datuak berreskuratzeke prozedurak.
 - Euskarriak eta dokumentuak garraiatzeko neurriak.

- Euskarri bat baztertu behar denean edo berriz erabili behar denean hartuko diren neurriak.
- Segurtasun Agirian jasotakoa bete egiten dela egiaztatzeko egin behar diren aldizkako kontrolak.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki erakundeetarako JEE. IV Eranskina D1. Segurtasun Agiriaren eskema.

44

ZER DA SEGURTASUN GORABEHEREN ERREGISTROA?

- Segurtasun gorabehera noizbehinka jazo daitekeen gertaera bat da, baina informazioaren segurtasuna arriskuan jar dezakeena segurtasunaren hiru aldeetatik, hau da, datuen eskuragarritasunaren, osotasunaren eta konfidentzialtasunaren aldetik.
- Zentzu horretan, pasahitzak ahaztea, fitxategiak galtzea, birusak sartzea edo ekipo informatikoen mantentze lanak segurtasun gorabeheratzat jo beharko dira.
- **Segurtasun gorabeheren erregistroak** informazioaren segurtasuna eta prebentzioa bermatzen ditu, eta autokontrolerako aldizkako txostenak egiteko ezinbesteko tresna da. Segurtasun gorabehera guztiak jakinaraztea eta kudeatzea ahalbideratzen duen datu base bat edo programa informatiko bat izan ohi da.
- Honako informazioa erregistratu behar da segurtasun gorabehera bakoitzeko: segurtasun gorabehera mota, noiz gertatu den (eguna eta ordua), nork egin duen jakinarazpena, nori jakinarazi zaion, zeintzuk ondorio izan dituen eta zeintzuk neurri zuzentzaile ezarri diren.

45

ZEINTZUK DIRA SEGURTASUN GORABEHERA OHIKOENAK?

- Hona hemen segurtasun gorabehera ohikoenak:
 - Erabiltzailearen gakoa eta pasahitza ahaztea.
 - Sareko hainbat baliabide erabiltzeko eskaerak (diskoak, inprimagailuak, aplikazioak eta abar).
 - Fitxategiak berreskuratzea segurtasun kopietatik.

46

ZER DIRA ERABILTZAILE ZERRENDAK, ERABILTZAILE PROFILAK ETA BAIMENDUTAKO ATZIPENAK?

- **Erabiltzaile zerrenda** esaten zaio informazio sistema bat atzitzeko baimena duten pertsonen zerrendari.
- **Erabiltzaile profilak** dira erabiltzaile talde bati baimendutako atzipenak.
- **Baimendutako atzipenak** erabiltzaile bati hainbat baliabide erabil ditzan ematen zaizkion baimenak dira, kontuan izanda baliabidetzat jotzen dela informazio sistema bateko edozein osagai.
- Erabiltzaileek bakar-bakarrik atzitu ditzakete haien eginkizunak gauzatzeko behar dituzten baliabideak.
- Erabiltzaileen, erabiltzaile profilen eta horietako bakoitzari baimendutako atzipenen zerrendaren ardura tratamendu kontrolatzaileak du.

47

ZER DIRA SARBIDE PASAHITZAK? ZER DA PASAHITZAK KUDEATZEKO PROZEDURA?

- Sare edo sistema informatiko baten erabiltzaileak sarean edo sistema informatikoan sartzeko erabiltzen duen **giltza birtualari** pasahitza esaten zaio.
- Erabiltzailearen sarbide giltzak edo pasahitzak bi atal ditu: identifikatzailea eta autentifikazio kodea.
- **Identifikatzaileak edo erabiltzaile izenak** bi eginkizun dauzka: baimendutako erabiltzailea identifikatzea eta ezagutzea, eta erabiltzaileak sisteman jarduteko daukan gaitasuna zehaztea. Pertsonala, besterenezina eta sekretua izango da.
- **Autentifikazio kodeak** erabiltzaile baten identitatea egiaztatzeke balio du, bere sinadura ordezkatzan du, eta pertsonala, besterenezina eta sekretua da, erabiltzaile izena bezala.
- **Pasahitzak kudeatzeko prozedura** erabiltzaileek pasahitzekin izandako gorabeherak edo erabiltzaile berrien alta eta bajen ohiko funtzionamendua kudeatzeko tresna bat da.

- Adibidez, pasahitzak kudeatzeko prozedurak ezartzen du zeintzuk urrats jarraitu behar diren erabiltzaile berri bati alta emateko, nork baimendu behar duen, baimena nola jakinarazten den, zeintzuk aplikazio edo aplikazio atal atzitu daitezkeen eta nolako baldintzekin eta abar.

48

ZEINTZUK DIRA PASAHITZAK ERABILTZEKO EMATEN DIREN GOMENDIO OHIKOENAK?

- Gutxienez 6 karaktereko luzera, gomendatzen da 8koa izatea, eta beti 16 baino gutxiago.
- Letra larriak eta xeheak erabili behar dira, zenbakiak eta puntuazio zeinuak tartekatuz.
- Pasahitza aldatu egin behar da aldian-aldian (adibidez, hiru hilean behin), baina modu korrelatiboan aldatu gabe.
- Lagunarteko hizkeran esan daiteke “Pasahitza *hortzetako eskubila* bezalakoa dela: *egunero erabili, sarri aldatu eta EZ partekatu lagunekin*”.

49

ZER EZ DA EGIN BEHAR PASAHITZEKIN?

- Ez erabili izenik, leku-izenik eta horrelakorik; ez eta beste hizkuntza bateko hiztegi batean ager daitezkeen hitzik ere.
- Ez erabili begi-bistako datu pertsonalik edo familiako daturik: NAN zk., telefonoak, ibilgailuen matrikulak, e-mailak, data esanguratsuak eta abar.
- Ez erabili pasahitz bakarra zerbitzu guztietarako, kontuetarako, bankurako eta abar.
- Pasahitza ez partekatu inorekin, ez apuntatu paper zati batean, ez eta testu fitxategi batean ere, ez bidali posta elektronikoz, SMSz edo berehalako mezularitza bidez, eta ez jarri ordenagailuaren pantailan post-it batean itsatsita.
- Ez eman inori pasahitza telefonoz edo postaz, ez eta lankide bati ere ahoz.
- Maiz aldatu behar diren pasahitz luze eta zailak ordenagailuaren teklatuaren inguruan apuntatzen dira azkenean.

50

PASAHITZEN KUDEAKETA ERRAZTEN LAGUNTZEN DUTEN ZENBAIT GOMENDIO

- Denok dugu pasahitz mordo bat, maiz aldatu behar izaten ditugu eta, beti eta gauden tokian gaudela, horiek gogoratzeko gai izan behar dugu. Ondoko aholku hauen bidez pasahitzen irmotasuna eta pasahitzak erraz gogoratzeko eta kudeatzeko moduak uztartu nahi dira:

1. Oinarrizko hiru pasahitz izatea: ona, itsusia eta txarra

- Hiru pasahitzez osatutako oinarrizko multzotxo bat hautatu, segurtasun eskakizun desberdina duten zerbitzuetan edo sarbideetan erabiltzeko:
- “Txarra” erabil daiteke probak egiteko, aldi baterako erabileretarako, garrantzi txikiko zerbitzu eta sarbideetarako, eta premiarik izanez gero, arriskurik gabe esan ahal izateko (Adibidez: cacatua).
- “Ona” gainontzeko zerbitzu eta sarbideetarako erabil daiteke, segurtasun betekizun guztiekin. Gomendagarria da 8 karakterekoa izatea, zerbitzu batzuk muga hori dutelako (adibidez: KaKa-tu4).
- “Itsusia” segurtasun indartua duten zerbitzuetarako da: PUK baterako, berresteko bigarren kodeetarako, pasahitza kudeatzeko programetarako, eta abar. Ahoskaezina baina erraz gogoratzeko modukoa izan behar da (adibidez: #K4.KΛ-7u+@#).

2. Pinen segida bat erabiltzea

- Oinarri moduan 16 zenbakidun segida bat hautatu, eta hobeto gogoratzeko, lau zenbakiko lau multzotan banatu. Zenbakiak buruz ikasi ondoren, hainbat zenbaki multzo lor ditzakegu: lau multzo bakoitza, multzo bakoitzeko lehendabizikoekin egindako multzoak (edo bigarrenekin, edo ...), multzo bakoitza alderantziz eta abar. Zenbakizko pinak dauzkaten zerbitzuetarako eta beste pasahitz batzuekin konbinatzeko baliokoak izango dira.
- Ez erabili NAN zenbakirik, telefonorik, kotxeen matrikularik, urtemugarik eta antzekorik.

3. Paseko hitzak baino hobeto paseko esaldiak

- Ausazko esaldi bat hautatu liburu, olerki edo abesti batean (kontuz begi-bistakoekin), eta hitz bakoitzeko lehenengo letra hartu. Esaldia beste hizkuntza batean ere izan daiteke (“En un lugar de La Mancha” = euldLM).

4. Ehun pasahitz baino hobeto arau bakarra

- Pasahitz asko edukiz gero, oinarrizko pasahitzetik abiatuta, zenbait pasahitz multzo sor daitezke norbere eraldaketa arauen bidez. Arau horiek pertsonalak izan behar dute, norberarenak, eta horiek emango diete sendotasuna horrela sortzen diren pasahitz multzoei. Adibidez, pasahitzak eta segidak konbinatzen badira, paper edo fitxategi batean idatzi ahal da nola gogoratu, hau da, araua nola aplikatu behar den apuntatuz eta ez emaitza (“ona, gehi bigarren multzoa”).

5. Gorde pasahitzak pasahitz batekin

- Konbinazio araurik erabili ezean, eta ondorioz, pasahitz mordo batekin topo egiten badugu, egokiena da enkriptatutako fitxategi bat edo pasahitzak kudeatzeko programa bat erabiltzea, programak enkriptatuta gordetzen baititu bere baitan (horrelakoetan, pasahitz “itsusia” erabiliko dugu).

51

NOLAKO EUSKARRIAK ERABILI BEHAR DIRA INFORMAZIOA BILTZEKO EDO ERAMATEKO?

- Bi euskarri mota bereizten dira:

- **Euskarri analogikoak:** biltegiratzeko betiko moduak dira: papera, bideokasetearen zintak, irratikasetearen zintak eta abar.
- **Euskarri digitalak:** biltegi edukiera handiagoa eta prozesu gaitasun handiagoa dute. Multzo honetan sar daitezke honakoak: egun oso gutxi erabiltzen diren disko malguak edo disketeak, memoria ez-hegazkorreko dispositiboak (adibidez: USB memoriak edo bestelako zenbait memoria txartel), zinta magnetikoak, disko gogorrak edo mota guztietako disko optikoak (CDak, DVDak eta multzo honetako berrienak: HD-DVDak edo Blue-Ray motakoak).

52

EUSKARRI BAT EZ BADA GEHIAGO ERABILI BEHAR, ZER EGIN BEHAR DA EUSKARRIAN JASOTAKO DATU PERTSONALAK BEHIN BETIKO DEUSEZTATZEKO?

- Euskarri bat ezgaitu nahi bada, neurri egokiak hartuko ditugu euskarri mota kontuan hartuta, bertako datuak berreskuratzeko modurik egon ez dadin: **papera txikitzeko tresnaren bat erabili beharra izan dezakegu edo disketea formateatu beharra.**

- Sarri gertatzen den kasu bat da lanpostu bat eguneratzean ordenagailu zaharrarekin zer egin ez jakitea. Horrelakoetan, ordenagailu zaharreko informazio guztia berrira pasatu beharko da eta hori egin ondoren, ziurtatu beharko dugu ordenagailu zaharreko informazio guztia suntsitu egiten dela (ez dela ezabatzen, suntsitu baizik) horretarako dagoen eta sortu den tresnaren bat erabiliz, ezinezkoa izan dadin informazioa berreskuratzea.
- Gaur egun informazioa leku batetik beste batera eramateko gehien erabiltzen den euskarria **USB memoria** da. Beraz, memoria horietan eramaten dugun informazioa arretaz zaindu behar dugu; izan ere, han dugun informazioa ezabatzeaz gain, ziurtatu behar dugu informazioa ezin dela berreskuratu (**ezabatzea ez da nahikoa, berreskuratze programak daudelako**). Teknikari adituen laguntza edo aholkularitzaren beharra egon daiteke.

53

ZER DIRA SEGURTASUN, BABES ETA BERRESKURATZE KOPIAK?

- **Segurtasun edo babes kopia** (ingelesez: backup): informazioaren kopia osagarriak dira, informazioa galdu ostean, sistema bat lehengoratzeko balio dutenak.
- Segurtasun kopia baliagarria da hainbat gauzatarako:
 - Ordenagailu bat lehengoratzeko eta operatzeko egoeran jartzeko, ezbehar baten ondoren (**sistemaren segurtasun kopiak**).
 - Fitxategi kopuru txiki bat lehengoratzeko halabeharrez ezabatu edo kaltetuak izan direnean (**datuen segurtasun kopiak**).
 - Datu pertsonalen fitxategien segurtasun kopiak direla eta, esan daiteke kopia horiei esker istripu edo informazio galeraren bat gertatzen bada ere, ez dugula berriro herritarrarengana jo beharrik izango galdutako informazioa berriro eskatzera.

54

NOR IZENDATU BEHAR DA FITXATEGI BATEN SEGURTASUN ARDURADUN?

- Fitxategi baten segurtasun arduradunak dauka segurtasun agirian finkatutako neurri teknikoak, logikoak eta antolakuntzakoak kontrolatzeko eta koordinatzeko ardura.
- Beraz, pertsonak horrek Segurtasun Agirian jasotako edozein ekintza edo prozedura egiteko edo inork egin dezan agintzeko adina eskuduntza edo babes izan behar du erakundean.
- Aldian-aldean barneko auditoria bat egin behar du nahitaez eta Segurtasun Agiriak edo barneko segurtasun erregelamenduak eskatzen dituen segurtasun neurrien betetze mailaren berri eman behar du.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 95. artikulua.

55

ZER DA SEGURTASUN NEURRIEN GAINEKO AUDITORIA?

- Esan dezakegu auditoria bat dela prozesu sistematiko, independente eta dokumentatu bat azterketari buruzko ebidentziak lortzeko eta ebidentzia horiek modu objektiboan ebaluatzeko, eta bere helburua dela segurtasun agirian jasotako politika, prozedura eta eskakizunen multzoa zenbateraino betetzen den zehatzea.
- Auditoriaren ebidentziazat jotzen da egiaztatu daitekeen informazioa eta modu batean edo bestean erregistratuta dagoena.
- Segurtasun arduradunak aztertu behar ditu auditoriako txostenak, eta tratamendu kontrolatzaileari helarazi beharko dizkio ateratzen dituen ondorioak eta proposatzen dituen neurri zuzentzaileak.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 96. artikulua.

56

NOIZ GOMENDATZEN DA BARNEKO AUDITORIA BAT EGITEA?

- Barneko auditoria erakundeko bertako giza baliabideekin eta baliabide materialekin egiten den aholkularitza eginkizun bat da. Auditorea, erakundekoa bada ere, organikoki independentea izango da eta ikuskatzen duen arloarekin lotzen duen harremanik izan gabekoa.
- Normalean barne auditoriak zuzendaritzaren erabaki baten ondorioz egiten dira, eta nagusiki erakundea hobetzera zuzendutako txostenak egiteko izaten dira.

57

NOIZ GOMENDATZEN DA KANPOKO AUDITORIA BAT EGITEA?

- Kanpoko auditoria auditorietan aditua den kanpoko espresa batek egindako azterketa kritikoa da. Azterketa egitea Zuzendaritzaren ekimena izan daiteke, baina ohikoa da betebeharrak eta konpromiso formalen ondorio izatea. Gainera, auditoria txostenaren helburua hirugarren bati aurkeztea izaten da.
- Auditoria enpresak ezin du izan inolako harremanik ikuskatutako enpresarekin, eta ikuskatuko diren objektuen bizi-zikloan ere sekula parte hartu gabea izan beharko da.

58

NOLA ENKRIPTATZEN DIRA DATUAK?

- "Kodetzea edo enkriptatzea" da datu multzo irakurgarri bat datu multzo enkriptatu irakurtezin bihurtzea, edo ez hain irakurteraz. Kontrako prozesuari "deskodetzea" edo "desenkriptatzea" esaten zaio.
- Kodetzea eta deskodetzea modu automatizatuan egiten duten programak daude eta enkriptatze sistemaren konplexutasuna zenbat eta handiagoa izan orduan eta konputazio lan handiagoa eskatzen dute.
- **Enkriptatze sistemak "sistema kriptografiko"** esaten zaie eta idatzizko testuak nahiz ahotsa kodetu ditzakete. Enkriptatze sistemak asmatzen dituztenak kriptografoak dira eta sistema horiek deszifratzen dituztenak kriptanalistak dira.

ZEINTZUK DIRA ESKUZKO DATU-FITXATEGIAK BABESTEKO OHIKO NEURRIAK?

- Eskuzko fitxategiak fitxategi automatizatuak bezala sailkatzen dira, hau da, bertan dagoen informazioari dagokion segurtasun mailaren arabera: oinarrizko, maila ertaineko ala goi-mailako segurtasun mailakoak izan daitezke, ezarri behar zaien segurtasun mailaren arabera. Beraz, fitxategi horiek atzitu, zaindu eta abarretarako bete behar diren zuhurtzia neurriak maila bereko fitxategi automatizatuek dituztenen pare-parekoak izan beharko dira.
- Segurtasun neurriak honakoak izan daitezke: armairuak jartzea sarbidea kontrolatuta dagoen gunetan, giltzadun itxierak jartzea; segurtasun neurriak jartzea, fitxategiak suntsitu ez daitezen (detektagailuak); inbentarioak egitea; sarbidea baimendutako pertsonen murriztea eta abar.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua. VIII. tituluko IV. kapitulua.
- Toki erakundeetarako JEE. IV. Eranskina D5. Segurtasun Mailen Koadroa.

60

NOLA JOKATU BEHAR DA DATU LAGATZEETARAKO ADOSTASUNA ESKATU BEHAR DENEAN?

- Datu pertsonalak hirugarren pertsona edo erakunde bati jakinarazi ahal izateko, honako baldintzak bete behar dira:
 - Toki erakundearen eta datuak jasotzen dituen aldearen legezko eginkizunekin zuzenean lotutako helburuak betetzeko lagatzea datuak.
 - Datuak lagatzeko, aldez aurretik datuen titularren adostasuna izatea, legean ezarritako salbuespenak kontuan hartuta.
- Hona hemen datuak lagatzeko prozedura:
 - Datuak lagatzeko eskaera.
 - Erakunde eskatzaileak onartu beharreko Baldintzen Gutuna.
 - Datuen titularrei aldez aurreko adostasuna eskatzea, beharrezkoa ez denean izan ezik.
 - Datuak lagatzea.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 11. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 42. eta 43. artikulua eta II. Eranskina M15.

61

NOIZ EZ DA BEHARREZKOA DATU LAGATZEETARAKO ADOSTASUNA ESKATZEA?

- Ez da beharrezkoa izango datuak lagatzeko interesdunaren adostasuna eskatzea:
 - Lege batek baimentzen badu lagapena.
 - Jendearen eskurako iturrietatik hartutako datuak badira.
 - Harreman juridiko bat askatasunez eta modu legitimoan onartzearen ondorioz egiten den datu-tratamendu bat bada.
 - Komunikazioaren hartzailea Herriaren Defendatzailea, Arartekoa, Fiskaltza, epaileak, epaitegiak edo Herri-Kontuen Epaitegia badira, eta esleitura dauzkaten eginkizunetarako behar badituzte.
 - Lagapena administrazio publikoen artean egiten bada eta lagatzearen helburua bada gero datu horiek xede historiko, estatistiko edo zientifikoarekin tratatzea.
 - Osasunari buruzko datu pertsonalak lagatzea ezinbestekoa bada larrialdi bat konpontzeko edo ikerketa epidemiologikoak egiteko.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 11. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 42. artikulua.

62

NOIZ ETA NOLAKO BALDINTZEKIN ESKATU AHAL ZAIE DATUAK LAGATZEKO BESTE ADMINISTRAZIO BATZUEI?

- Toki erakunde batek datu pertsonalak behar baditu, beste administrazio batzuei (beste toki erakunde batzuei, foru aldundietako sailei, Eusko Jaurlaritzako sailei eta abar) eskatu ahal izango dizkie datuak, baldin eta:
 - Toki erakundeak seguru badaki dena delako beste administrazioak badauzkala behar dituen datuak.
 - Toki erakundeak datu pertsonal horiek erabiltzeko jarduera burutzeko eskumena badauka. Eskumena daukala egiztatu beharko du.
- Eskabidea egin eta gero, eskaera jaso duen erakundeak erabakiko du datuen titularraren berariazko adostasuna behar den ala ez edo 15/1999 Lege Organikoaren 11. artikuluan jasotako egoeraren bat den ala ez.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 11. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 45. artikulua.

63

NOLA ETA NOLAKO BALDINTZEKIN LAGA AHAL ZAIZKIE DATUAK BESTE ADMINISTRAZIO BATZUEI?

- Toki erakunde batek datuak lagatzeko eskaeraren bat jasotzen badu beste erakunde batzuetatik (beste toki erakunde batzuetatik, foru aldundietako sailetatik, Eusko Jaurlaritzako sailetatik ...), horretarako dagoen protokoloa bete beharko du, datuen titularraren adostasuna behar den ala ez kontuan hartuta.

- Datu lagatzerako adostasuna nahitaezkoa bada, prozedura hau bete beharko da:
 - Datu pertsonalak lagatzeko eskaera egitea.
 - Erakunde eskatzaileak onartu beharreko Baldintzen Gutuna.
 - Datuen titularrei adostasuna eskatzea.
 - Datu pertsonalak lagatzea.
- Datu lagatzerako adostasuna ez bada nahitaezkoa, prozedura hau bete beharko da:
 - Datu pertsonalak lagatzeko eskaera egitea.
 - Erakunde eskatzaileak onartu beharreko Baldintzen Gutuna.
 - Datu pertsonalak lagatzea.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 11. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 44. artikulua.

64

NOLAKO BALDINTZEKIN ESKATU ETA LAGA AHAL IZANGO ZAIZKIE DATUAK TOKI ERAKUNDE BEREKO BESTE SAIL EDO ZERBITZU BATZUEI?

- Ez da onargarria administrazio espediente bat izapidetzeko datu pertsonalen fitxategi bat partekatzea. Fitxategia toki erakunde bereko beste organo batekin partekatzea ere ez da onargarria, nahiz eta organo horren eskumen bat garatzeko izan. Horretarako, ezinbestekoa da helburu hori ere fitxategiaren helburuetan jasota egotea.
- Badago salbuespen bat: Biztanleen Udal Erroldako datu lagatzea izatea, toki entitatearen beraren eskumen bat erabiltzeko, eta helbideari buruzko datua garrantzitsua izatea. Horrelakoetan ez da beharrezkoa izango interesdunaren adostasuna, helburuak bateragarriak direla ulertzen delako.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 11. artikulua.
- Toki erandudeetarako JEE. 45-4. artikulua.

65

BIDEZKOA DA UDALERRIKO IKASTETXE PUBLIKO EDO PRIBATUEK URTE JAKIN BATEAN JAOTAKO HAURREN HELBIDEARI BURUZKO DATUAK ESKATZEA MATRIKULAK SUSTATZEKO KANPAINAK EGITEKO?

- Udal Erroldako datuak, interesdunen edo haien ordezkarien (adin gabekoak badira) aldez aurreko adostasunik gabe, ikastola edo ikastetxe pribatu bati ematea ez dator bat datuak babesteko legediarekin.
- Udal Erroldako datuak ikastetxe publiko bati lagatzeko, baldintza bat bete beharko da: datu horiek nahitaezkoak izatea administrazio biak haien eskumenez baliatu ahal izateko, eta horretarako egoitzaren datua garrantzitsua izatea. Zentzu horretan esan behar da zalantzazkotzat jotzen dela matrikulak sustatzeko eskumena ikastetxe publiko batena izatea; izan ere, eskumen hori Hezkuntza Sailaren esku dagoela ematen baitu, sailaren zerbitzu zentraletan edo lurralde ordezkartzetan.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 11. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 45-4. artikulua.
- DBEBren CN006-08 Irizpena

66

BIDEZKOA DA EUSKO JAURLARITZAKO SAILEK UDALEI DATU PERTSONALAK ESKATZEA BERARIAZKO KOMUNIKAZIO KANPAINAK EGITEKO? BADAGO HORRETARAKO BESTE AUKERARIK?

- Eusko Jaurlaritzako sailek maiz egiten dizkiete informazio eskeak udalei, udalek Erroldari buruzko datu eguneratuenak dauzkaten aitzakiarekin. Adibidez, Osasun Sailak aldian-aldian eskatzen ditu bularreko minbiziaren gaineko kanpainetarako datuak.
- Arau orokor moduan, Erroldako datuak beste administrazio batzuei lagatzeko, ezinbesteko baldintza izango da administrazio biek nahitaez behar izatea datu horiek bakoitzak bere eginkizunetarako, eta bakar-bakarrik eman ahal izango dira egoitza edo helbideari buruzko datuak garrantzizkoak diren gaietarako.

- Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen bigarren xedapen gehigarrian badago horrelako datuak eskuratzeko aukera bat; izan ere, lege horrek xedatzen du EAEko administrazioek eskatzen dizkioten datu pertsonalak eman ahal izango dizkiela Euskal Estatistika Institutuak (EUSTAT) administrazio horiei, udaletatik jasotzen duen Erroldako fitxategiaren datu eguneratuen kopiaetik abiatuta. Administrazio eskatzaileek egiaztatu beharko dute gauzatu nahi duten jarduera egiteko eskumena dutela eta helbideari buruzko datua garrantzitsua dela jarduera hori gauzatzeko.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 11. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 45. artikulua.
- DBEBren CN06-018 Irizpena.
- Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal sortzeari buruzko atzailaren 25eko 2/2004 Legea. Bigarren Xedapen Gehigarria.

67

ERROLDAKO DATUAK LAGA AHAL ZAIZKIE PERTSONA FISIKOEI EDO ENPRESA PRIBATUEI?

- Ohikoa izaten da udalerrian jarri berriak diren espresak biztanleen Udal Erroldako datuak eskatzea udalari, enpresaren produktuen gaineko publizitatea bidaltzeko bertako biztanleei.
- Baina datu lagatze hau ezin da egin, Udal Erroldako datuak legeak xedatutako helburuetarako baino ezin baitira erabili.
- Merkataritza arloko jarduera horiek egin ahal izateko, marketin zuzeneko enpresetara jo dezakete enpresek eta pertsona fisikoek, enpresa horiek merkataritza erabileretarako datu pertsonalen baseak izaten dituztelako.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 11. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 45. artikulua.

68

ZEIN DA DATU PERTSONALAK EZEREZTEKO PROZEDURA?

- Datu pertsonalak ezereztu egingo dira datu-bilketa egin zenean edo datuak erregistratu zirenean zegoen helbururako beharrezkoak eta bereizleak ez direnean. Datu horiek ezingo dira datuen titularra identifikatzeko moduan gorde, eta bildu edo erregistratu zirenean zegoen helbururako behar den denbora tartean bakarrik gorde ahal izango dira, ez luzaroago.
- Datuak ezerezteko, fisikoki suntsitu beharko dira edo, hala badagokio, disoziazio prozedurak erabiliko dira, datuen titularren identifikazioa ezinezkoa izan dadin.
- Fitxategi automatizatu batean badaude, datuak ezabatu egingo dira, berreskuratzea ezinezkoa izateko moduan. Ez du balioko ezabatze fisiko arruntak, eta ezabatzea modu espezializatuan egin beharko da, hau da, teknikari informatikoek edo jarraibide tekniko egokiak jaso dituzten bestelako langileek ezabatuko dituzte.
- Datuak paper-euskarrian badaude papera txikitzeko tresnen bidez suntsituko dira, edo, bestela, modu seguruan suntsitzeko konpromisoa hartzen duen enpresa espezializatu baten bidez.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 4. artikulua.

69

ZEIN DA DATU PERTSONALAK BLOKEATZEKO PROZEDURA?

- Gerta daiteke datuak beharrezkoak ez izatea datu-bilketaren hasierako helbururako, baina mantendu behar izatea legeren batek edo kontraturen batek eskatzen duelako, hau da, prozedura judizial bat abian dagoelako, helburu historiko, estatistiko edo zientifikoak tartean daudelako edo datu tratamenduaren ondorioz sortu diren erantzukizunei erantzun behar zaielako. Horrelakoetan, datuak blokeatzeko prozeduraren bat ezarri beharko da.
- Datuak blokeatzea da datu pertsonal bat edo datu pertsonal multzo bat identifikatzea edo erreserbatzea, trata ez daitezen; eta aurreko paragrafoan adierazitako egoeretan bakarrik atzitu ahal izango dira.

- Egoera berezi horien preskripzio epea igaro bada, datu blokeatua ezereztu egin behar da.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 4. artikulua.

70

NOLA SUNTSITU BEHAR DIRA PAPER EUSKARRIAN (ZERRENDAK, ESPEDIENTEAK ETA ABAR) DAUDEN DATU PERTSONALAK?

- Datu pertsonalak ezereztu egingo dira datu-bilketa egin zenean edo erregistratu zirenean zegoen helbururako beharrezkoak eta bereizleak ez direnean.
- Datuak ezerezteko, edo fisikoki suntsitu behar dira edo datuen titularra identifikatzen uzten ez duen disoziazio teknika bat aplikatuko zaie.
- Datu pertsonalak paper-euskarrian badaude papera txikitze tresnen bidez sunsituko dira, edo, bestela, modu seguruan sunsitze konpromisoa hartzen duen enpresa espezializatu baten bidez.
- Paper euskarrian dauden datu pertsonalak disoziatzeko teknika aplikatzeko, datuen titularra identifikatzea ahalbideratzen duten aipamen guztiak ezabatu beharko dira. Disoziazioa egiteko, datuak ikustea edo berreskuratzea galarazten duen moduren bat erabiliko da, datuak ezabatuz edo gainetik margotuz.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 4. artikulua.

71

ZER EGIN DAITEKE HERRITARREK ERRAZ ERABIL DITZATEN HAIEN DATU PERTSONALAK ATZITZEKO, ZUZENTZEKO, EZEREZTEKO ETA AURKA EGITEKO ESKUBIDEAK?

- Toki erakundeek erraztasunak emango dituzte pertsonak AZETA eskubideez balia daitezen (atzitzea, zuzentzea, ezerezteia eta aurka egitea). Horretarako, honako jarduerak gauzatu beharko dituzte:
 - Beharrezkoa ikusten bada, administrazio prozedurak birdiseinatzea, AZETA (atzitzea, zuzentzea, ezerezteia eta aurka egitea) eskubideez baliatzea ez dadin eginkizun zaila izan administrazioarentzat eta herritarrarentzat.
 - Dokumentuen ereduak diseinatzea formatu elektronikoan, paperezko formatuan, nahiz bestelako formatuetan, horiek betez AZETA eskubideez baliatu ahal izateko. Eginkizun horretarako erabil daitezkeen ereduak daude Eskuliburu honi atxikita.
 - Prestakuntza egokia ematea herritarrak atzitzeko eginkizuna duten administrazio publikoetako langileei, herritarrei behar bezala azaltzeko zeintzuk eskubide dauzkaten eta nola erabil ditzaketen.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki erakundeetarako JEE. 22. artikulua, III Eranskina P1-1 eta P1-2 eta II Eranskina M2, M3, M4 eta M5.

72

ZER DA ATZIPEN ESKUBIDEA ETA NOLA ESKATU BEHAR DA?

- Atzipen eskubidea da herritarrak daukan eskubidea bere toki erakundeari galdetzeko honakoak: berari buruz dauzkan datu pertsonalen gaineko informazioa, zeintzuk datu pertsonal dauzkan, datu horiek zein helbururekin biltegitatu ziren, zein den datuen jatorria eta datu horiekin zeintzuk komunikazio edo lagapen egin diren eta zeintzuk egitea aurreikusten den. Eta toki erakundeak eman egin behar dio eskatutakoa.
- **Zer egin behar den norbere datu pertsonalak atzitzeko:**
 - Interesdunak edo bere legezko ordezkariak eskatu behar du.
 - Eskubidea tratamendu kontrolatzaileari zuzendu behar zaio.
 - 12 hilean behin bakarrik eskatu ahal da; hori da arau orokorra.
 - Atzipen eskubidea doan da.

- Atzipen eskubidea onartuz ala ezetsiz erantzuteko epea 30 egunekoa da. Eskubidea onartzen bada, datuak atzitzen utzi beharko zaio eskatzaileari, eskubidea onartu eta 10 eguneko epean.
- **Eskubidea babesteko prozedura.** Eskatzaileak uste badu ez zaiola behar bezala erraztu bere datuak atzitzeko eskubidea (ez bazaio 30 eguneko epean erantzun edo erantzuna ezezkua izan bada eta abar), erreklamazio bat aurkez dezake Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 15. artikulua.
- 2/2004 Legea. 8. artikulua.
- DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 27-30 artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 7. artikulua eta II. Eranskina M2.

73

ATZIPEN ESKUBIDEAZ BALIATZEA UKATU AHAL DA ZAILA DELAKO EDO GARESTIA DELAKO?

- Ez. DBLOk ezartzen du datu pertsonalak atzipen eskubidea errazteko moduan biltegitratuko direla.
- Gainera, datuen atzipena doan da.
- Hala ere, eskubide hau hamabi hilabetez behin erabili ahal izango da (ezin izango da epealdi laburragoetan erabili), interesdunak interes legitimoren bat aurkezten duenean izan ezik. Horrelakoetan, hamabi hilabeteko epea baino laburragoa den epealdi batean ere erabili ahal izango du.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 15. artikulua.
- 2/2004 Legea. 8. artikulua.
- DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 27-30 artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 7. artikulua eta II. Eranskina M2.

74

ZER DA ZUZENTZEKO ESKUBIDEA ETA NOLA ESKATU BEHAR DA?

- Datuak zuzentzeko eskubidea da herritarrek duen eskubidea bere toki erakundeari eskatzeko berari buruzko datuak zuzendu edo osatzeko, baldin eta ez badira zehatzak, ez badira egokiak, ez badaude osorik edo gehiegizkoak badira.
- **Zer egin behar den norbere datu pertsonalak zuzentzeko eskatzeko:**
 - Interesdunak edo bere legezko ordezkariak eskatu behar du.
 - Eskabidea tratamendu kontrolatzaileari zuzendu behar zaio.
 - Adierazi beharko da zeintzuk datu zuzendu nahi diren eta zuzenketa. Eskatzen den zuzenketa egiaztatzeko dokumentazioa ere aurkeztu beharko da.
 - Aurka egiteko eskubidea erabiltzea doan da.
 - Tratamendu kontrolatzaileak eskabidea jaso eta 10 eguneko epean ebatzi beharko du eskabidea, bai eta, hala badagokio, zuzenketa egin ere.
- **Eskubidea babesteko prozedura.** Eskatzaileak uste badu ez zaiola behar bezala erraztu bere datuak zuzentzeko eskubidea, ez bazaio 10 eguneko epean erantzun edo erantzuna ezezkoa izan bada, erreklamazioa aurkez dezake Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 16. artikulua.
- 2/2004 Legea. 8. artikulua.
- DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 31-33 artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 8. artikulua eta II. Eranskina M3.

75

ZER DA EZEREZTEKO ESKUBIDEA ETA NOLA ESKATU BEHAR DA?

- Datuak ezerezteko eskubidea da denok dugun eskubidea geure toki erakundeari eskatzeko geure datuak ezerezteko, datuak bildu zirenean zegoen helbururako beharrezkoak eta bereizleak ez badira edo datuak bildu zirenean zegoen helburua betetzeko behar zen epealdia igaro bada.

● **Zer egin behar den norbere datu pertsonalak ezerezteko eskatzeko:**

- Interesdunak edo bere legezko ordezkariak eskatu behar du zuzenean.
- Eskabidea tratamendu kontrolatzaileari zuzendu behar zaio.
- Ezerezteko eskubideaz baliatzea doan da.
- Tratamendu kontrolatzaileak eskabidea jaso eta 10 eguneko epean ebatzi beharko du eskabidea, bai eta, hala badagokio, datuak ezereztu ere.
- Datu pertsonalak ezerezteak datuak fisikoki ezabatzea dakar, baina ezinezkoa bada datuak fisikoki ezabatzea, tratamendu kontrolatzaileak datuak blokeatu beharko ditu, ezinezkoa izan dadin datuak erabiltzea edo tratazea.

- **Eskubidea babesteko prozedura.** Eskatzaileak uste badu ez zaiola behar bezala erraztu bere datuak ezerezteko eskubidea, ez bazaio 10 eguneko epean erantzun edo erantzuna ezezkoa izan bada, erreklamazio bat aurkez dezake Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 16. artikulua.
- 2/2004 Legea. 8. artikulua.
- DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 31-33 artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 9. artikulua eta II. Eranskina M4.

76

NOIZ DA EZINEZKOA DATU PERTSONALAK EZEREZTEA?

- Datu pertsonalak ezin izango dira ezereztu, baldin eta epe jakin batzuk igaro arte gorde behar badira.
- Datu pertsonalak zein epealditan ezin diren ezereztu ezartzen dute, batetik, ezargarriak diren lege-xedapenek, eta, bestetik, hala badagokio, interesdunaren eta tratamenduaren ardura duen entitatearen edo pertsonaren arteko kontratu-harremanetan ezarritako epeek irauten duten bitartean, kontuan izan behar baita kontratu horiek direla ezereztu nahi diren datu pertsonalen tratamenduaren jatorria.

- Kasu horietan, datu pertsonalak gordetzeko epea igarotzen denean, datuak blokeatu egin beharko dira eta administrazio publikoen, epaileen eta epaitegien esku bakarrik jarri ahal izango dira, tratamenduaren ondorioz sor daitezkeen erantzukizunei erantzun ahal izateko, eta beti ere erantzukizunaren preskripzio epean. Preskripzio epea igaro ondoren, datu pertsonalak ezabatu egin beharko dira. (IKUSI 68. KASUA)

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 16. artikulua.
- 2/2004 Legea. 8. artikulua.
- DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 31-33 artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 9. artikulua.

77

ZER DA AURKA EGITEKO ESKUBIDEA ETA NOLA ESKATU BEHAR DA?

- Aurka egiteko eskubidea denok dugun eskubide bat da edozein toki erakunderi eskatzeko gure datu pertsonalik ez tratatzeko edo tratatzeari uzteko, baldin eta:
 - a) Interesdunaren adostasuna ez bada tratamendurako beharrezkoa, herritarraren egoera pertsonala dela-eta arrazoi sendo eta legitimoak badaude, eta beti ere legeren batek ez badu kontrakorik xedatzen. (...)
 - b) Tratamenduaren helburua interesdunari buruzko erabaki bat hartzea bada eta erabakia interesdunaren datu pertsonalen tratamendu automatizatuetan bakarrik oinarritu bada.
- **Zer egin behar den norbere datu pertsonalei aurka egitea eskatzeko:**
 - Interesdunak edo bere legezko ordezkariak eskatu behar du zuzenean.
 - Eskabidea tratamendu kontrolatzaileari zuzendu behar zaio.
 - Aurka egiteko eskubideaz baliatzea doan da.
 - Tratamendu kontrolatzaileak eskabidea jaso eta 10 eguneko epean ebatzi beharko du eskabidea, bai eta, hala badagokio, eskatzailearen datuak tratamendutik atera ere. Aurka egiteko eskabidea ukatzen bada, hori egiteko ere 10 eguneko epea egongo da eta zergatik ukatzen den arrazoitu beharko da. Eskatzailearen datu pertsonalik ez dago ere, berdin-berdin eman beharko zaio horren berri 10 eguneko epean.

- **Eskubidea babesteko prozedura.** Eskatzaileak uste badu ez zaiola behar bezala erraztu bere datuei aurka egiteko eskubidea, ez bazaio 10 eguneko epean erantzun edo erantzuna ezezkua izan bada, erreklamazio bat aurkez dezake Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 17. artikulua.
- 2/2004 Legea. 8. artikulua.
- DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 95. eta 34-36. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 9. artikulua eta II. Eranskina M5.

78

ZER DIRA HERRITARRENGAN ERAGIN HANDIA DUTEN ETA DATUEN TRATAMENDU AUTOMATIZATU BATEAN BAKARRIK OINARRITUTA DAUDEN ERABAKIAK?

- Pertsonak ez dute zertan jasan (eskubide bat da) beraiengan eragin juridikoa edo, besterik gabe, eragin handia duen erabaki baten ondorioak, baldin eta erabakia pertsonaren nortasunaren alderdi jakin batzuk (adibidez, laneko errendimendua, sinesgarritasuna, fidagarritasuna edo portaera) balioztatzeke datu tratamendu automatizatu batean oinarritu bada. **Herritarrek aurka egiteko eskubideaz balia daitezke horrelako erabakien aurrean.**
- Hala ere, interesdunak onartu egin beharko du goiko erabakietako batek berarengan ondorioak izatea, baldin eta berak eskatutako kontratu baten esparruan hartu bada erabakia eta egoki iruditzen zaizkion alegazioak egiteko aukera eman badiote. Edozelan ere, tratamendu kontrolatzaileak aldeztu aurretik azaldu beharko dio interesdunari argi eta zehatz goian adierazitako ezaugarriak dituzten erabakiak hartuko direla. Bestalde, kontratua ez bada gauzatzen, tratamendu kontrolatzaileak ezereztu egin beharko ditu datuak.
- Goian adierazitako moduko erabakiak onartu egin beharko dira interesdunaren interes legitimoa bermatzen duten neurriak ezartzen dituen lege batek baimentzen baditu.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 13. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 12. artikulua.
- DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 36. artikulua.

79

NOLA ESKA DEZAKE DBEB-REN BABESA PERTSONA BATEK, DATU PERTSONALEN ARLOKO ESKUBIDEEZ BALIATZEA UKATU BADIOTE?

- Herritarrak eskubidea du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan eskatzeko eskubideak babesteko prozedura bat hasteko, osotasunean edo zati batean ukatu bazaio Atzitzeko, Zuzentzeko Ezerezteko edo Aurka egiteko eskubideez baliatzeko aukera edo uste badu ez diotela erraztu edo kontuan hartu eskubidea erabiltzeko aukera.
- DBEBren web orrian (www.avpd.es) "Herritarrak" atalean daude eskuragarri babes prozedura hasteko eskabide-eredu batzuk eta aurkeztu behar diren agirien zerrenda.
- Eskubideak babesteko eskabide bati buruzko ebazpena eman eta jakinarazteko gehienezko epea 6 hilabetekoa da.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 18. artikulua.
- 2/2004 Legea. 9. artikulua.
- DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 30-3 eta 33-3 artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 14. artikulua.

80

NOLA KONTSULTATU DAITEKE EUSKADIKO DATUAK BABESTEKO ERREGISTROA?

- Herritarrek eskubidea dute Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan kontsultatzeko edozein toki erakunde egindako datu pertsonalen tratamenduen gaineko, tratamendu horien helburuen gaineko eta tratamendu kontrolatzailearen identitatearen gaineko informazioa.
- Kontsulta egiteko bizpahiru era daude: idatziz egitea, posta elektronikoz egitea ala Erregistroaren kontsulta funtziora jotzea zuzenean Bulegoaren web orrian (www.avpd.es).
- Kontsulta web orriaren bidez eginez gero, zenbait aukera ematen ditu hautaketak eta bilaketak egiteko. Gainera, informazioa pdf formatuko fitxategietan sor daitekeenez, zuzenean inprimatu ahal da ala ordenagailuan kargatu.
- Erregistroak ez dauka datu pertsonalik. Erregistroan aitortutako fitxategien ezaugarriei buruzko informazioa eta fitxategi horiek dauzkaten datu moten gaineko eta datuekin egiten diren tratamendu moten gaineko informazioa jasotzen da.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 14. artikulua.

81

NOLA LOR DEZAKE PERTSONA BATEK PUBLIZITATE BAZTERGARRIRIK EZ JASOTZEA?

- Herritarrek eskubidea dute publizitaterako eta merkataritza prospekziorako erabiltzen diren datu pertsonalak nondik datozen jakiteko. Sarritan datuen jatorria beste jarduera bat egitean agertutako adostasuna da (adibidez: leialtze txartel baten kontratua izenpetu zenean).
- Publizitatea jasotzeko adierazitako adostasuna edonoiz ezeztatu daiteke.

- Edonoiz egin ahal zaio aurka horrelako datu tratamendu bati, justifikatu beharrik gabe, berariazko eskabide bat eginez eta doan. Datu pertsonalak ezerezteko eskatu eta berehala emango dira bajaran. Aurka egiteko eskubidea merkatoriaren (tratamendu kontrolatzailea) aurrean erabil daiteke. Prozedurak erraza izan behar du: doako telefono baten bidez, posta elektronikoko mezu baten bidez ala kexa zerbitzu edo bezeroaren harretarako zerbitzu baten bidez.
- Merkataritza Elektronikoaren eta Marketin Zuzenaren Espainiako Federazioak (FECMD) Robinson zerrenda izeneko erregistroa kudeatzen du eta bertan edonork eman dezake izena, baldin eta ez badu nahi berak merkataritza harremanik ez duen enpresa bateko publizitate zuzenik jaso.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 30. artikulua.
- 1720/2007 EDren 45-51 artikulua.

82

ZER EGIN BEHAR DU PERTSONA BATEK TELEFONO AURKIBIDEETAN EZ AGERTZEKO?

- Pertsonak eskubidea dute jakiteko ea non lortu diren telefono aurkibideetan agertzen diren haiei buruzko datu pertsonalak.
- Gainera, aurka egin ahal diote horrelako datu pertsonalen tratamendu bati, justifikatu beharrik gabe, datu pertsonalak zerrendatik ezerezteko berariazko eskabide bat eginez eta doan. Telefono aurkibidea editatu duen enpresari edo tratamendu kontrolatzaile moduan agertzen den pertsona edo enpresari zuzendu beharko zaio eskabidea. Aurka egiteko eskubidea doan da eta datu pertsonalak berehala eman beharko dira baja. Gainera, edizio berrietan ere ezin izango dira erabili.
- Aurka egiteko eskubideaz baliatzeko inprimaki eredu bat dago eskuragarri DBEBren web orrian (www.avpd.es).

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 30. artikulua.
- 1720/2007 EDren 45-51 artikulua.

ERANSKINA



TOKI
ERAKUNDEETAKO
KASU
KONKRETUAK

2. UDAL BARRUKO
GESTIO BEREZIAK

83

BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN FITXATEGIA SORTU EGIN BEHAR DA NAHITAEZ? ETA EUSKADIKO DATU PERTSONALEN ERREGISTROAN INSKRIBATU BEHAR DA?

- Udal Errolda udalerri bateko biztanleak jasotzen dituen administrazio erregistro bat da.
- Horrez gain, Udal Errolda toki erakunde guztiek duten datu pertsonalen fitxategi bat ere bada. Hona hemen bere helburuak:
 - Udalerriko biztanleria zehaztea.
 - Udalerrian bizilekua izatearen eta bertan ohiko egoitza izatearen froga izatea.
 - Estatistikak egitea familien osaerari, ezaugarri ekonomikoei, hezkuntza mailari, ugalkortasunari eta heriotzei buruz.
- Udal Errolda sortu egin behar da eta DBEBn aitortu, Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan inskribatzeko.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea. 16. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 45-1 artikulua.

84

ZER JASO BEHAR DU NAHITAEZ UDAL ERROLDAK?

- Erroldak nahitaez izan behar ditu honako datuak:
 - Izen-abizenak.
 - Sexua.
 - Ohiko helbidea.
 - Nazionalitatea.
 - Jaioterria eta jaiotze-data.
 - Nortasun agiriaren zenbakia. Atzerritarrak izanez gero, bizileku-txartelaren zenbakia, indarrean.
 - Eskola ziurtagiria edo titulua edo titulu akademikoak.
 - Hauteskunde errolda egiteko beharrezkoak izan daitezkeen bestelako datuak, beti ere Konstituzioak aitortzen dituen oinarrizko eskubideen babesa bermatzen bada.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea. 16. artikulua.

85

NOLAKO BALDINTZEKIN LAGA AHAL ZAIZKIE UDAL ERROLDAKO DATUAK BESTE ADMINISTRAZIO BATZUEI?

- Erroldako datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko interesdunaren adostasunik gabe, datu horiek nahitaezkoak izan behar dira administrazio horiek euren eskumenez baliatu ahal izateko, eta bakar-bakarrik lagako zaizkie helbidearen edo egoitzaren gaineko datuak ezinbestekoak badira.
- Administrazio eskatzaileak honakoak egin beharko ditu toki erakundeari zuzendutako eskabidean:
 - Erroldako datuekin gauzatu nahi duen eginkizuna justifikatu.
 - Ordenamendu juridikoak aitortzen dizkion eskumenetan kokatu beharko du eginkizun hori, eskabidean eskumena zehatz-mehatz adieraziz.
 - Egiaztatu beharko du egoitzaren edo helbideren gaineko informazioa garrantzitsua dela gauzatu nahi duen eginkizunerako.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea. 16. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 45-2 artikulua.

86

ZEIN BALDINTZEKIN LAGA DAITEZKE UDAL ERROLDAKO DATUAK TOKI ERAKUNDEAN BERTAN?

- Udal Erroldako datuak beste administrazio publiko batzuei edo toki erakunde bereko beste sail edo zerbitzu batzuei lagatzeko interesdunaren adostasunik gabe, datu horiek nahitaezkoak izan behar dira administrazio horiek euren eskumenez baliatu ahal izateko, eta bakar-bakarrik lagako zaizkie helbidearen edo egoitzaren gaineko datuak ezinbestekoak badira.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki erakundeetarako JEE. 45-4 artikulua.

87

UDAL ERROLDAKO DATUAK LAGA AHAL ZAIZKIE PERTSONA FISIKOEI EDO ENPRESA PRIBATUEI?

- Pertsona fisikoei eta enpresa pribatuei ezin zaie bidali Udal Erroldari buruzko informaziorik.
- Hala ere, ohikoa izaten da udalerrian jarri berriak diren espresek biztanleen Udal Erroldako datuak eskatzea udalari, enpresaren produktuen gaineko publizitatea bidaltzeko bertako biztanleei. Horrelako eskaerei ezetz esan behar zaie, helburu hori ez dagoelako Udal Erroldaren helburuen artean jasota.

88

TOKI ERAKUNDE BATEKO ERROLDAKO DATUAK LAGA AHAL ZAIZKIE BERTAKO ADMINISTRAZIO BATZARREI KONTZEJUKO ERROLDAK EGITEKO? (ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ERAKUNDEENTZAT BAKARRIK)

- Bai, Udalak laga ahal dizkie bertako kontzejuei Udal Erroldan jasota dauden kontzejuko bizilagunei buruzko datuak, baldin eta kontzejuko errolda egiteko bada.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- BEBren CN 06-012 Irizpena.

89

KONTRATATU AHAL DA ENPRESA PRIBATURIK UDAL ERROLDAREN FITXATEGIA KUDEATZEKO?

- Udalak dauka Udal Errolda egin, mantendu, berraztertu eta gordetzeko ardura, eta errolda bitarteko informatikoen bidez kudeatzeko obligazioa dauka.
- Udal Erroldaren kudeaketa informatikoa egiteko nahikoa gaitasun edo egiturarik ez duten toki erakundeen kasuan, dagokion foru aldundiak hartuko du bere gain eginkizun hori.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea. 17-1 artikulua.

90

NORK DAUKA BUKATUTA DAUDEN UDAL ESPEDIENTEAK ATZITZEKO ESKUBIDEA? ZEINTZUK BALDINTZA BETE BEHAR DIRA ATZIPENA BAIMENTZEKO?

- Pertsona guztiek dute bukatutako espedienteetako dokumentuen kopia jasotzeko eskubidea, eta ez da beharrezkoa pertsonak interesdun zuzenak izatea.
- Hala ere, dena delako lizentzia eskatzeko aurkeztu ziren proiektu teknikoak eta horien gaineko dokumentuak badira, jabetza intelektualaren eskubideak babesten dituenek, ezin izango zaio hirugarren bati horien kopiarik eman, dokumentuen jabearen berariazko baimenik gabe.
- Bukatutako espedienteetako dokumentazio administratiboa atzitzeko aukera egon dagoen arren, badago muga bat, eta da pertsonen intimitatea errespetatzea eta datu pertsonalak babestea.
- Ondorioz, datu pertsonalak dauzkan dokumentazioa ematen denean, ahalegina egingo da informazioa era disoziatuan aurkezteko. Horretarako, datuaren eta pertsonaren arteko lotura hautsi beharko da, datua despertsonalizatu eta pertsonaren pribatutasuna babestu.
- Eta disoziazio prozedura egitea ezinezkoa bada, eman beharreko dokumentazioan dauden datu pertsonalak irakurtezinak direla ziurtatu beharko da, datu pertsonalak ezabatuz edo zirriborratuz.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Administrazio Prozedurari buruzko 30/1992 Legearen 35 h) eta 37. artikulua.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 69. eta 70-3 artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 48.2 artikulua.

91

NORK DAUKA IZAPIDETZEN ARI DIREN UDAL ESPEDIENTEAK ATZITZEKO ESKUBIDEA? ZEINTZUK BALDINTZA BETE BEHAR DIRA ATZIPENA BAIMENTZEKO?

- Ukitutako prozeduretako interesdunek edo parte hartzaileek izango dute bakar-bakarrik izapidetzen ari diren espedienteetan dauden dokumentuak atzitzeko aukera. Horrela, administrazioaren jardueraren eraginkortasuna babestu nahi da.
- Administrazio-isiltasunaren teknika ezartzen denean, ulertu beharko da prozedura bukatu egin dela informazioa atzitzeko eskubidearen ondorioetarako, ebazpena eta jakinarazpena egiteko data igarotzen den momentuan bertan, nahiz eta, isiltasunaren xedea ezestea denean, udalak izan dezakeen berariazko ebazpen berantiarra emateko aukera.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Administrazio Prozedurari buruzko 30/1992 Legearen 35 a) artikulua.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 69. eta 70-3 artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 48-1 artikulua.

92

NOLA JOKATU BEHAR DA ADMINISTRAZIO AGIRI BAT ATZITZEKO ESKABIDE BAT BADAGO ETA, ADMINISTRAZIO AGIRI HORI ULERTU AHAL IZATEKO, DATU PERTSONALAK DAUZKAN ZERRENDA BAT BEHAR BADA? (ALDE BATERA UTZITA DENA DELAKO ZERRENDA HORI ATZITU NAHI DEN ADMINISTRAZIO AGIRIAREN ESPEDIENTEKO DEN ALA EZ)

- Atzipen eskubideak hirugarren pertsonen eskubideei edo interesei eragin ahal badie, bermatu beharko da hirugarren horiek ere prozeduran parte har dezaketela; eta horretarako, prozedura izapidetzen ari dela jakinaraziko zaie, parte hartzeko aukera izan dezaten.
- Era berean, ikusi beharko da ea dena delako agiria edo administrazio espediente hobeto ulertzeko behar den datu pertsonalen zerrendan edo agirian jasotako informazioa modu disoziatuan eman daitekeen, hau da, datu pertsonalik agertu gabe; eta hori ezinezkoa bada, irakurtezinak direla ziurtatu beharko da, datu pertsonalak ezabatuz edo zirriborratuz.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki erakundeetarako JEE. 47-7. artikulua.

93

ETXEBIZITZA BATEAN ERROLDATUTA DAUDEN PERTSONEN GAINEKO INFORMAZIOA EMAN AHAL ZAIO ETXEBIZITZAREN JABEARI?

- Etxebizitza batean erroldatuta dauden pertsonen gaineko informaziorik ezin zaio inori eman, nahiz eta etxebizitzaren jabea izan.
- Edozelan ere, kontuan hartu behar da etxebizitza batean erroldatu nahi duenak, jabea ez bada, honakoak aurkeztu beharko dituela besteak beste okupazioa legeztatzeko: etxebizitzaren errentamendu-kontratua edo jabearen (edo bizikide nagusi moduan inskribatuta pertsonaren) baimen idatzia.
- Etxebizitza baten jabeak eskatzen badu bere etxebizitzan dauden pertsonen gaineko informazioa, ezin izango zaio bertako inoren datu pertsonalik eman, baina bai esan ahal izango zaio zenbat pertsona dauden bertan, pertsona horiek identifikatu gabe.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 16-1 artikulua.
- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 6. eta 11. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 45. artikulua.
- Toki-erakundeetako Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiaren 59-2 artikulua.

94

EMAN AHAL ZAIO BIZTANLEEN UDAL ERROLDAKO ZIURTAGIRI BAT DATU PERTSONALEN TITULARRA EZ DEN PERTSONA BATI, TITULARRAREKIN AHAIDETASUN HARREMANA DUELA IKUSITA?

- Datu pertsonalak nori buruzkoak diren, datuak harenak dira, eta hark bakarrik edo haren ordezkariak - adin gabeak edo ezgaituak badira - har ditzake datuen gaineko erabakiak. Beraz, interesdunak berak baino ezin dezake eskatu errolda ziurtagiria.
- Edozelan ere, interesdunak (datuen titularrak) eskabidea egiten duenean aukera izan dezake eskabidean adierazteko nork nahi duen jasotzea errolda ziurtagiria bere orde. Horretarako, aukera hori jasotzeko, leku bat jarri beharko da eskabidean edo oharrentzat gordetako tokian.

- Berariazko adierazpenik egin gabe, ezin izango zaio eman titularra ez den beste inori datu pertsonaldun ziurtagiririk, nahiz eta senideak izan.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki erakundeetarako JEE. 17-1. artikulua.

95

EMAN AHAL ZAIO BIZTANLEEN UDAL ERROLDAKO ZIURTAGIRIRIK HILDAKO PERTSONA BATEN SENIDE BATI, ZIURTAGIRIA BEHARREZKOA BADA HERENTZIAREKIN ETA ASEGURUAREKIN ZERIKUSIA DUTEN GESTIOAK EGITEKO?

- Bai, hildakoaren senide bati eman ahal zaio hildakoaren datu pertsonalak dauzkan Biztanleen Udal Erroldako ziurtagiria. Hori egitea ez dago DBLOrekin kontrajarrita.
- Hildako pertsonak ez dira datu pertsonalak babesteko eskubidearen titularrak. Hala ere, hildako pertsona bati buruzko datu pertsonalak edo pertsona baten heriotzari buruzko datua ere datu pertsonaltzat jo ahal izango dira beste pertsona batzuei buruzko datu pertsonalak badira (hildakoaren seme-alabenak, oinordekoenak eta abar). Horrelakoetan, datu pertsonaltzat joko dira, datuen babesaren arloko legediaren ondorioetarako, eta babestu egin beharko dira.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 2. artikulua.
- DBEBren CN06-013 Irizpena.

96

ZUZENA DA ZIURTAGIRIA TELEFONOZ ESKATZEA ETA PERTSONA TITULARRAREN POSTA HELBIDERA BIDALTZEA?

- Izapide eta kontsulta errazak telefonoz egiteko aukera - eta horien artean daude Udal Erroldaren ziurtagiriak - herritarrei laguntzeko sortutako bitartekoak dira, jendea alferrikako joan-etorrian ez dadin ibili, derrigorrezkoa ez denean.

- Ezinbesteko baldintza da telefonoz deitzen duen pertsona behar bezala identifikatzea, eman beharreko informazioaren konfidentzialtasuna bermatuta gera dadin.
- Arazoa konpontzeko, lehendabizi zerbitzua eskatzen duen pertsona identifikatu beharko dugu pantailan ikusten ari garen datuak berari eskatuz. Erroldatze agiri bat eskatzen badigute, eskatzailearen izena eta NAN zenbakia, bere senar edo emaztearenak, seme-alabaren baten jaiotze data eta abar eskatu ahal izango dizkiogu; izan ere, horrelako datuak eskatzaileak bakarrik jakin baititzake. Eta, bigarrenik, dokumentazioa erroldan ageri den helbidera bidaliko dugu beti, salbuespenik gabe.
- Eskaera telefonoz egin nahi duen pertsona identifikatzeko beste modu bat da herritarrei hainbat erabilera eskaintzen dizkien Osasun Nortasun Agirian (ONA) edo osasun txartel elektronikoan dauden zenbakizko gakoak erabiltzea (itsasontzien jokia).

97

UDALERRI BATEAN BIZI ZEN PERTSONA BATEK ERROLDA ZIURTAGIRI BAT ESKATZEN BADU TELEFONUZ EDO INTERNETEZ, ZER EGIN BEHAR DA? NOLA EGIAZTA DAITEKE BERE IDENTITATEA?

- Izapide eta kontsulta errazak telefonoz edo Internetez egiteko aukera - eta horien artean daude Udal Erroldaren ziurtagiriak - herritarrei laguntzeko sortutako bitartekoak dira, jendea alferrikako joan-etorrian ez dadin ibili, derrigorrezkoa ez denean.
- Ezinbesteko baldintza da telefonoz deitzen duen pertsona behar bezala identifikatzea, eman beharreko informazioaren konfidentzialtasuna bermatuta gera dadin.
- Arazoa konpontzeko, lehendabizi zerbitzua eskatzen duen pertsona identifikatu beharko dugu pantailan ikusten ari garen datuak berari eskatuz. Erroldatze agiri bat eskatzen badigute, eskatzailearen izena eta NAN zenbakia, bere senar edo emaztearenak, seme-alabaren baten jaiotze data eta abar eskatu ahal izango dizkiogu; izan ere, horrelako datuak eskatzaileak bakarrik jakin baititzake. Eta, bigarrenik, dokumentazioa erroldan ageri den helbidera bidaliko dugu beti, salbuespenik gabe.

98

ZER EGIN BEHAR DA PERTSONA BATEK ZIURTAGIRI BAT ESKATZEN BADU POSTAZ, BERE IDENTITATEA EGIAZTATU BADU (IZENPETUTAKO IDAZKI BATEN BIDEZ ETA NAN-AREN KOPIA AURKEZTUTA), BAINA ERROLDAN JASOTAKO HELBIDEA EZ DEN BESTE BATERA BIDALTZEKO ESKATZEN BADU?

- Ziurtagiriak eskatzeko eskabidea interesdunak berak egin beharko du Udalari zuzenduta eta idatziz. Horretarako, toki administrazioak bulegoetan edo herritarrak atenditzeko zerbitzuan dauzkan eskabide-eredu normalizatuak erabili ahal izango ditu, edo formatu elektronikoa edo eskatzaileak berak aukeratutako beste edozein.
- Kasu honetan esan behar da interesdunak berak eman zuela, eskaera egin zuenean, bere datu pertsonalen tratamendu hori egiteko baimena, hau da, berak eman zuen ziurtagiria beste helbide batera bidaltzeko baimena. Beraz, bidezkoa da eskatutakoa egitea.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 17. artikulua.

99

BIZILEKU ETA ERROLDATZE ZIURTAGIRIA. ESKATZEKO ETA EMATEKO PROZEDURA

- Bizileku eta erroldatze ziurtagiriak pertsonen egoitza egiaztatzen du, eta horregatik begiratzen du eskabidea egiten den garaian edo lehenagoko beste edozein datatan (ziurtagiri historikoa) ea interesduna Biztanleen Udal Erroldan inskribatuta dagoen ala ez.
- Interesdunak bakarrik eska dezake horrelako ziurtagiri bat. Baina, ziurtagiria jasotzera beste bat ere joan daiteke bere izenean, baldin eta interesdunak adierazi badu horrela egitea nahi duela.

100

BIZTANLEAREN ZIURTAGIRI HISTORIKOA. ESKATZEKO ETA EMATEKO PROZEDURA

- Bizileku eta erroldatze ziurtagiri historikoa esaten diogu ziurtagiria egiten den data baino lehenagoko beste data batean pertsona batek bizilekua udalerrian izan zuela egiaztatzen duen agiriari, pertsona hori ez dagoelako azken Biztanleen Udal Erroldan jasota, bere garaian baja izan zelako.
- Ziurtagiri mota hau eskatzeko eta emateko prozedura erroldatze ziurtagiria eskatzeko eta emateko dagoen bera da: eskaera interesdunak berak egin behar du, eta nahi badu, beste batek jasotzea nahi duela adieraz dezake eskaeran.

101

HERIOTZA ZIURTAGIRIA. ESKATZEKO ETA EMATEKO PROZEDURA

- Erregistro Zibilek ematen dituzte heriotza ziurtagiriak, baina udalerrri ertainetan eta txikietan bake epaitegiek ematen dituzte.
- Udalak izapide hau nola egin behar den azaldu ahal die interesdunei: heriotza ziurtagiria nola eskatzen den, zein organo judizialek ematen duen, ziurtagiria eskatzeko zeintzuk betekizun dauden eta abar.
- Ziurtagiria postaz eskatzen bada, gutun bat bidali behar da Bake Epaitegira. Gutunean adierazi beharko da zein posta helbidetan jaso nahi den ziurtagiria eta jasotzailearen izen-abizenak. Eskabidean datu hauek aipatu behar dira:
 - Ziurtagiria eskatu duen pertsonaren izen-abizenak.
 - Ahal bada, heriotza inskribatuta dagoen Familia Liburuaren alea eta orrialdea.
 - Nolako ziurtagiria behar den adierazi behar da: laburpena ala hitzez hitzekoa.
- Komenigarria da harremanetarako telefono bat ere jartzea, eskatzailearekin harremanetan jarri beharra egongo balitz ere, daturen bat argitzeko.
- Izapidea Erregistroan bertaratuta eginez gero, honako agiriak aurkeztu beharko dira:
 - Ziurtagiria eskatzen duen pertsonaren NANA.
 - Familia liburua. Familia liburua eraman ezean, ziurtagirian agertu behar den pertsonaren izen-abizenak eta heriotzaren eguna eta lekua adierazi beharko dira.

102

ORDAINKETA ZIURTAGIRIA. ESKATZEKO ETA EMATEKO PROZEDURA

- Zerga arloko legediak arautzen duenez, ordaindu beharra duten pertsonak ordezkari baten bidez egin dezakete ordainketa.
- Era berean, xedatuta dago edonork egin dezakeela ordainketa eta ordainketaren frogagiria jaso, obligazio hori betetzeko interesa izan ala ez, eta ordaintzera behartuta dagoen pertsonak obligazioaren berri izan ala ez eta onartu ala ez.
- Ordaindu izanak ez du esan nahi ordaindu duenak ordainketa egin beharra daukan pertsonaren eskubideak dauzkanik administrazioarekiko, eskubideak ordaindu beharra daukanarenak baitira.
- Normalean gertatzen da interesdunak berak ordaintzen duela zerga zorra, edo beste batek bere izenean, eta ordaindu bezain pronto eman egiten zaiola zorraren likidazioaren edo ordainketaren frogagiria.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Estatuko araudia: Zergabiltetarako Erregelamendu Orokorra onartzen duen uztailaren 29ko 939/2007 Errege Dekretuaren 33. eta 41. artikulua.
- Ikusi foru arauak: adibidez Bizkaian Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergabiltetarako Erregelamendua onartzen duen apirilaren 6ko 52/1993 Foru Dekretua.

103

ONDASUNEN ZIURTAGIRIA. ESKATZEKO ETA EMATEKO PROZEDURA

- Zerga erroldetako datu izendunak atzitzeko eta horiei buruzko dokumentazioa eskuratzeko, nahitaezkoa izango da datu pertsonal horien titularren berariazko baimena izatea idatziz.
- Bestalde, zerga erroldako datuak atzitzeko beste aukera bat izan daiteke datu pertsonalak behar bezala disoziatuta egotea, hau da, atzipena egitea, baina erroldan titular bezala inskribatuta dagoen pertsonaren edo subjektu pasiboaren datu babestu hauek agertu gabe: izen-abizenak, NAN/IFZ, helbidea eta, hala badagokio, ondasun banakatuei esleitutako balioa ere agertu gabe.

104

ERRAUSKETA ZIURTAGIRIA. ESKATZEKO ETA EMATEKO PROZEDURA

- Hildako pertsona baten senide batek hildakoaren errausketa ziurtagiria eskatzen badu, egin eta eman egin beharko zaio.
- Hildako pertsonak ez dira datu pertsonalak babesteko eskubidearen titularrak. Hala ere, hildako pertsona bati buruzko datu pertsonalak edo pertsona baten heriotzari buruzko datua ere datu pertsonaltzat jo ahal izango dira beste pertsona batzuei buruzko datu pertsonalak badira (hildakoaren seme-alabenak, oinordekoenak eta abar). Horrelakoetan, datu pertsonaltzat joko dira, datuen babesaren arloko legediaren ondorioetarako, eta babestu egin beharko dira.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko. 15/1999 Lege Organikoa. 2. artikulua.
- DBEBren CN06-013 Irizpena.

105

GORPUZKIAK ALDATZEA ETA ERRAUTSAK LEKUZ ALDATZEARI BURUZKO ZIURTAGIRIA. ESKATZEKO ETA EMATEKO PROZEDURA

- Hildako pertsona baten senide batek hildakoaren gorpuzkiak aldatzeari eta errautsak lekuz aldatzeari buruzko ziurtagiria eskatzen badu, egin eta eman egin beharko zaio.
- Hildako pertsonak ez dira datu pertsonalak babesteko eskubidearen titularrak. Hala ere, hildako pertsona bati buruzko datu pertsonalak edo pertsona baten heriotzari buruzko datua ere datu pertsonaltzat jo ahal izango dira beste pertsona batzuei buruzko datu pertsonalak badira (hildakoaren seme-alabenak, oinordekoenak eta abar). Horrelakoetan, datu pertsonaltzat joko dira, datuen babesaren arloko legediaren ondorioetarako, eta babestu egin beharko dira.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 2. artikulua.
- DBEBren CN06-013 Irizpena.

HERRITARRAREN PORTAERA ONA ZIURTATZEA. ESKATZEKO ETA EMATEKO PROZEDURA.

- Udalak ez du Portaera Onari buruzko Ziurtagiririk ematen. Izan ere, horren ordez, gaur egun norberak egin behar du nobere buruari buruzko Herritarraren Portaeraren Aitorpena.
- Norbaitek zigor edo polizia aurrekaririk ez duela egiaztatu behar badu, Zigortuen eta Auzi-iheslarien Erregistro Nagusiak ematen duen Zigor Aurrekarien Ziurtagiria beharko du.
- Hala ere, udalak informazioa eman ahal izango dio Herritarraren Portaeraren Aitorpen Osagarria eskatu nahi duen pertsonari. Herritarraren Portaeraren Aitorpen Osagarriak honakoak jaso behar ditu:
 - Aitorpena egiten duen pertsona erruduntzat jo den edo prozesatuta dagoen.
 - Ea segurtasun neurriak ezarri zaizkion eta ea Gizarte Arriskuari buruzko Legean oinarritutako segurtasun diligentzietan sartuta dagoen.
 - Aitorpena egin aurreko hiru urteetan falta-judizioaren batean kondenatua izan den.
 - Ea aitorpenaren dataren aurreko hiru urteetan gobernu zehapenik ezarri zaion, portaera onaren txostena edo ziurtagiria eskuratu beharra ekarri dion espedientearen helbururekin zerikusi zuzena duten gertakariengatik ezarritako zehapen-espediente administratibo baten ondorioz.
 - Ondorio horietarako, ez da aitorpenik egin beharko zuhurtzigabetasunagatik ezarritako gobernu-zehapenak badira edo trafikoko arau-hausteengatik ezarritakoak badira.
 - Interesduna aurreko bi egoeretako batean badago, egoera horiek adierazi egin beharko ditu, bai eta diligentziak gauzatu dituen edo segurtasun neurria ezarri dion jurisdikzio organoa ere, bai eta, hala badagokio, zehazpena ezarri dion gobernu agintaritza ere.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Herritarren portaerari buruzko abenduaren 1eko 69/1980 Legea.

DATU PERTSONALAK ARGITARATZEA ALDIZKARI OFIZIALETAN EDO EDIKTU-TAULA BIRTUALETAN. NOLA JOKATU BEHAR DA ZUHURTASUNAGATIK?

- Toki erakunde batek jarduera informatzaile bat gauzatzea erabakitzen badu, eta, ondorioz, datu pertsonalak dauzkan komunikazioen bat egin nahi badu, nahitaez beharko da interesdunaren adostasuna, bestela ezin izango du horrelakorik egin.
- Aldiz, aldizkari ofizial baten bidez edo iragarki oholaren bidez jakinarazten edo argitaratzen badira, legezko betebeharrak bat delako eta horrela egin behar dela ezarrita dagoelako, arazorik gabe argitara daitezke interesdunen datu pertsonalak, gauzak gardentasunagatik argitaratzen direnean bezala. Adibidez, hautaketa prozesu bateko epaimahai bat nortzuk osatzen duten argitaratzen da herritarrek jakin dezaten nortzuk izango diren hautaketa prozesuko arduradunak. Baina, argitalpena legezko betebeharra denean ere zenbait irizpide hartu behar dira kontuan. Hona hemen:
 - Horrelakoetan jardunbide egokia izan daiteke datu pertsonalak argitaratzean proportzionaltasun printzipioari heltzea eta bakar-bakarrik argitaratzea legezko helburua betetzeko beharrezkoak diren datuak, ez gehiago.
 - Aldizkari ofizialak eta ediktu-taula birtualak jendearen eskurako iturri dira. Horrek esan nahi du datu horiek argitaratzean aukera ematen zaiela hirugarrenei, interesdunaren adostasunik gabe, bere datu pertsonalen berri izateko edo datu horiek atzitzeko. Horregatik, zehatz adierazi behar da argitalpen ofizialak baimena ematen duela datu horiek informazio helburuarekin bakarrik atzitzeko, eta ezin izango dela datuen argitalpena bestelako xedeetarako erabili.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 60. eta 61. artikulua.
- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 11. artikulua.

NORGEHIAGOKA PROZEDURAK ETA DATU PERTSONALAK ARGITARATZEA

- Norgehiagoka prozedura batean administrazioaren aldeko jarduerak parte hartzaile batzuei bakarrik egiten die on, prozeduraren helburua hautaketa bat egitea delako eta administrazioak finkatzen dituelako mugak. Norgehiagoka prozedurak dira laguntzen eta diru-laguntzen deialdiak, obren administrazio kontratuak eta langileak hautatzeko prozesuak besteak beste.
- Horrelakoetan, arau orokorra da hasierako eta bukaerako ebazpenak aldizkari ofizialetan argitaratzea, eta izapide-egintzen berri emateko, iragarki-oholetan edo web orri batean argitaratzea.
- Argitalpena legezko betebeharra denean ere zenbait irizpide hartu behar dira kontuan. Hona hemen:
 - Horrelakoetan jardunbide egokia izan daiteke datu pertsonalak argitaratzean proportzionaltasun printzipioari heltzea eta bakar-bakarrik argitaratzea legezko helburua betetzeko beharrezkoak diren datuak, ez gehiago. Aldizkari ofizialak eta ediktu-taula birtualak jendearen eskurako iturri dira.
 - Horrek esan nahi du datu horiek argitaratzean aukera ematen zaiela hirugarrenei, interesdunaren adostasunik gabe, bere datu pertsonalen berri izateko edo datu horiek atzitzeko. Horregatik, zehatz adierazi behar da argitalpen ofizialak baimena ematen duela datu pertsonal horiek informazio helburuarekin bakarrik atzitzeko, eta ezin izango dela datu pertsonalen argitalpena bestelako xedeetarako erabili.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 60. eta 61. artikulua.
- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 11. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 51. artikulua.

PERTSONEN ADOSTASUNA EZ DA NAHITAEZKO DERRIGORREZKO ARGITALPEN BAT EGIN BEHAR DENEAN, NAHIZ ETA DATU PERTSONALAK ARGITARATU, ARGITALPENAREN HELBURUA HAUETAKO BAT BADA: DEI BAT ZIURTATZEA, PROZEDURA BATEAN INTERESDUNAK DIREN PERTSONAK BERTARATZEA EDO LEGEZKO BETEBEHAR BAT BETETZEA

- Prozedura bateko interesdunei dei egiten zaiela edo bertaratuko direla ziurtatzeko teknika da haiei dagokien administrazio egintzaren argitalpen ofiziala egitea. Argitalpena iragarki-oholetan, aldizkari ofizialetan, web orrietan eta komunikabideetan egin daiteke.
- Gerta daiteke argi ez ikustea interesdunen adostasuna beharrezkoa den ala ez haien datu pertsonalak nahitaez argitaratu behar diren zenbait kasutan: establezimenduak irekitzeko lizentziak emateko, zerga zorrak jakinarazteko, ordaindu gabeko trafikoko isunak jakinarazteko edo ezinezkoa izan delako jakinarazpena modu pertsonalean egitea. Esa behar da horrelakoetan legeak agintzen duela argitaratu egin behar direla hainbat arrazoiengatik: gardentasunagatik (establezimenduak irekitzeko lizentziak ematea), prozeduraren ondorio baliagarria ziurtatzeagatik (zerga zorrak jakinaraztea) edo zentzarazteko helburuarekin (trafikoko isunak argitaratzea).
- Beraz, interesdunaren adostasuna ez da beharrezkoa, argitaratzea legezko betebeharra delako.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 58. eta 61. artikulua.
- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 6-2 artikulua.

ARGITARA DAITEZKE INTERNETEN UDALBATZAREN ETA GOBERNU BATZORDEAREN BILEREN AKTAK, AKTETAN DATU PERTSONALAK BADAUDE?

- Udalbatzetako aktak Interneten argitaratu ahal izango dira bertan agertzen diren datu pertsonalen titularren adostasunik gabe, honako bi baldintza hauek betetzen badira: toki erakundearen Erregelamendu Organikoak berariaz xedatzea horrela egin daitekeela eta datu pertsonalen informazioak kalterik ez egitea interesdunen ohore eskubideari, intimitate pertsonalerako nahiz familia intimitaterako eskubideari eta irudiari.
- Udalbatzak publikoak izan ohi dira, herritarren oinarritzko eskubideei eragin diezaioketen gaiak lantzen direnean izan ezik, eta gehiengo osoak erabaki badu. Gobernu Batzordearen bilerak, ordeak ez dira publikoak, eta, ondorioz, Gobernu Batzordearen aktak ezin dira Interneten argitaratu.
- Akten edukia laburtu eta jendaurrean jartzea, edozein bitarteko erabilita, ez dago datuen babesaren arloko araudiarekin kontrajarrita; azken finean argitalpenaren helburua da bizilagunei informazioa orokorra ematea. Hala ere, gomendatzen da akten laburpenetatik kentzea helburu horretarako egokiak, bereizleak eta neurrikoak ez diren datu pertsonal guztiak, batez ere bereziki babestutako datu pertsonalak.
- Toki erakundearen osoko bilkuren irudiak eta/edo soinuak grabatzeko baimena ematen bada, grabazioa eta grabazioaren hedapena eten edo mugatu egin beharko dira intimitate pertsonalari eta familiaren intimitateari kalte egin diezaioketen gaiak eztabaidatzen edo aipatzen diren bitartean.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70. artikulua.
- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 7. eta 11 2 a) artikulua.
- Toki Erakundearen Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduan 229-2 artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 53. artikulua.

ZEHAPEN PROZEDURAK ETA DATU PERTSONALAK ARGITARATZEA.

- Zehapen prozedurei buruz hartutako erabakiak argitaratzeko, prozedura bakoitzari buruzko araudiak hartuko dira kontuan, eta beraz, ez da beharrezkoa izango interesdunaren alde aurreko adostasuna.
- Hala ere, datu pertsonalak argitaratzean zenbait neurri hartu beharko dira interesduna bitarteko objektiboen bidez identifikatu ahal izateko, hau da, interesdunaren eremu pribatua inbaditu gabe, eta administrazioak gauzatzen duen jarduera informatzailea neurritz kanpokoia izan gabe. Adibidez: espediente zenbakia adieraz daiteke, baina arau-haustearen arrazoia eta ezarritako zigorra adierazi gabe.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 58. eta 61. artikulua.
- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 6-2 artikulua.

ZINEGOTZIEK DATU PERTSONALAK ESKATZEN BADITUZTE KONTROL EGINKIZUNETARAKO, NOLA JOKATU BEHAR DA ZUHURTASUNAGATIK?

- Korporazioetako kideek eskubidea dute korporazioko zerbitzuen esku dagoen informazioa (kualitatiboa edo kuantitatiboa, aurrekariak, datu pertsonalak eta abar) eskatzeko bertako lehendakaritzari eta informazio hori jasotzeko, baldin eta informazioa toki entitatearen gobernu organoen fiskalizazio eta kontrol eginkizunak aurrera eramateko behar badute.
- Toki erakundeek eskubide hau erabili ahal izateko prozeduraren bat ezarri beharko dute. Prozedurak eskabideak egiteko eta erantzuteko modua eta ereduak jaso beharko ditu.
- Eskatu den informazioak datu pertsonalak badauzka, lehendabizi aztertu egin beharko da ea datuak disoziatu daitezkeen, baina baldin eta disoziazioak ez badu kaltetzen toki entitateko kideek esleituta duten kontrol eginkizunez baliatzeko behar duten informazioa jasotzeko eskubidea.
- Zinegotziei ematen zaien informazioak datu pertsonalak badauzka eta ez bada disoziazio teknikarik erabili dokumentazioa emateko eremuan, toki erakundeko kide guztiei gogorarazi beharko zaie ordezkari karguan ari diren bitartean atzitzen dituzten informazio eta datu pertsonal guztien gaineko konfidentzialtasunaren bete beharraz gain, sekretu gorde beharra dutela, eta betebehar horiek iraun egiten dutela agintaldia bukatutakoan ere.
- Jasotako datuak gobernu organoen kontrol eginkizunetarako baino ezingo dira erabili.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 77. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 52. artikulua.
- DBEBren CN 05-022 Irizpena.

113

UDALBATZAN DATU PERTSONALAK AIPATZEN DIRENEAN, NOLA JOKATU BEHAR DA ZUHURTASUNAGATIK?

- Toki erakundeetako udalbatzak publikoak dira.
- Hala ere, Konstituzioaren 18.1 artikuluan xedatutako herritarren oinarritzko eskubideei eragiten dieten gaiak (ohore eskubideari, intimitate pertsonalerako nahiz familia intimitaterako eskubideari eta irudiari) eztabaidatzeko eta bozkatzeko saioak isilekoak izan daitezke, gehiengo osoak hala egitea erabakitzen badu.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeren 70. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 52. artikulua.
- DBEBren CN 06-015 Irizpena.

114

AKTEN EDUKIA LABURTU ETA JENDAURREAN JARTZEAN, DATU PERTSONALEKIN NOLA JOKATU BEHAR DA ZUHURTASUNAGATIK?

- Udalbatzak publikoak izan ohi dira, herritarren oinarritzko eskubideei eragin diezaieketen gaiak lantzen direnean izan ezik, eta gehiengo osoak erabaki badu.
- Udalbatzetako akten edukia laburtu eta jendaurrean jartzea, edozein bitarteko erabilita, ez dago datuen babesaren arloko araudiarekin kontrajarrita; azken finean argitalpenaren helburua da bizilagunei informazio orokorra ematea. Hala ere, gomendatzen da akten laburpenetatik kentzea helburu horretarako egokiak, bereizleak eta neurrikoak ez diren datu pertsonal guztiak, batez ere bereziki babestutako datu pertsonalak.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 53. artikulua.
- DBEBren CN 06-015 Irizpena.

115

UDALBATZAK EDO BATZORDEEN BILERAK TOKIKO TELEBISTA EDO INTERNET BIDEZ GRABATU ETA ZABALTZEN BADIRA, NOLA JOKATU BEHAR DA ZUHURTASUNAGATIK?

- Toki erakundearen osoko bilkuren irudiak eta/edo soinuak grabatzeko baimena ematen bada, grabazioa eta grabazioaren Internet bidezko edo toki telebistaren bidezko hedapena eten edo mugatu egin beharko dira intimitate pertsonalari, familiaren intimitateari edo norberaren irudiari kalte egin diezaioketen gaiak eztabaidatzen edo aipatzen diren bitartean.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 53. artikulua.
- DBEBren CN 06-015 Irizpena.

116

ETXEBIZITZEN ESLEIPENA DELA ETA, UDALEK JAR DITZAKETE IKUSGAI BEHIN-BEHINEKO ETA BEHIN BETIKO ZERRENDAK, ESLEIPENAK ETA ITXARON ZERRENDAK HERRITARREN ZERBITZURAKO BULEGOAN?

- Bai, jar ditzakete ikusgai. Babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedura arautzen duen Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko ekainaren 14ko Aginduak xedatzen du babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko, ezinbestean bete behar direla publizitate, lehia eta gardentasun printzipioak.
- Beraz, gardentasunak agintzen du argitaratu egin behar direla. Gainera, herritarrek esleipenaren administrazio egintza errekurritzeko aukera izan behar dute, beti ere aurreko arauan ezarritakoaren arabera.
- Horrez gain, xedatzen du onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda, adjudikaziodunen zerrenda eta ezer tokatu ez zaien itxaron zerrenda ere argitaratu egin beharko direla.
- Bestalde, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 55. artikulua dio koordinazio eta eraginkortasun administratiboa benetakoak izateko, Estatuak, autonomia erkidegoek eta toki erakundeek, elkarren arteko harremanetan, premiaren bat dagoenean, lankidetzak eta laguntza aktiboak eman behar dizkiotela elkarri, bakoitzak bere eginkizunak ahalik eta modurik eraginkorrean bete ahal izateko.
- Lankidetzarako eta laguntza emateko modu bat da etxebizitzak esleipenen behin-behineko eta behin betiko zerrendak eta abar argitaratzea udaleko iragarki oholean, baldin eta beste administrazioek hala egiteko eskatzen badute.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko ekainaren 14ko Agindua, babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzkoa.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 55. artikulua.

117

ETXEBIZITZEN ESLEIPENA DELA ETA, UDALEK JARRI AHAL DITUZTE IKUSGAI BEHIN-BEHINEKO ETA BEHIN BETIKO ZERRENDAK, ESLEIPENAK ETA ITXARON ZERRENDAK UDALAREN WEB GUNEAN?

- Bai, jar ditzakete ikusgai. Babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedura arautzen duen Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko ekainaren 14ko Aginduak xedatzen du babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko, ezinbestean bete behar direla publizitate, lehia eta gardentasun printzipioak.
- Beraz, gardentasunak agintzen du argitaratu egin behar direla. Gainera, herritarrek esleipenaren administrazio egintza errekurritzeko aukera izan behar dute, beti ere aurreko arauan ezarritakoaren arabera.
- Horrez gain, xedatzen du onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda, adjudikaziodunen zerrenda eta ezer tokatu ez zaien itxaron zerrenda ere argitaratu egin beharko direla.
- Bestalde, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 55. artikulua dio koordinazio eta eraginkortasun administratiboa benetakoak izateko, Estatuak, autonomia erkidegoek eta toki erakundeek, elkarren arteko harremanetan, premiaren bat dagoenean, lankidetzak eta laguntza aktiboak eman behar dizkiotela elkarri, bakoitzak bere eginkizunak ahalik eta modurik eraginkorrean bete ahal izateko.
- Lankidetzarako eta laguntza emateko modu bat da etxebizitzak esleipenen behin-behineko eta behin betiko zerrendak eta abar argitaratzea udaleko web gunean, baldin eta beste administrazioek hala egiteko eskatzen badute.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko ekainaren 14ko Agindua, babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzkoa.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 55. artikulua.

ESLEIPEN PROZEDURAK KUDEATZEKO ZERRENDETAN IZEN-ABIZENAK BAINO EZIN IZANGO DIRA JASO. BA AL DAGO NAN-AREN DATUA ARGITARATZERIK ALA EGOKIAGOA DA DATU EZ PERTSONALAK JARTZEA: ESPEDIENTE ZK., ZOZKETARAKO ESLEITUTAKO ZENBAKIA ETA ABAR?

- Babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozesu bateko parte hartzaileen gaineko zenbait datu pertsonal argitaratzeko, esan behar da Babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko ekainaren 14ko Aginduaren 8-2 artikulua xedatzen duela honakoak argitaratu egin behar direla: eskatzailearen izena eta NAN zk., bizikidetzaren unitatea eta eskaera zein erreserba edo kupotan sailkatu den. Horretaz gain, mugikortasun urri iraunkorra duten minusbaliatuen kupoaren kasuan, eskaera zein baremotan hartu den adieraziko da.
- Ondorioz, NAN zk. jaso daiteke. Hala ere, ez da administrazio jardunbide oso egokia, pertsonen alor intimoa erasotzen duelako eta neurritz kanpoko delako prozeduraren ondorio baliagarriak.
- Argitalpenerako nahikoa izan daiteke interesdunen izen-abizenak argitaratzea, NAN zk., helbidea eta abar argitaratu beharrik gabe.
- Bestalde, lehen aipatutako Aginduak alde batera uzten du puntu garrantzitsu bat: babes ofizialeko etxebizitza bat eskatu duten pertsona ezgaituei buruzko datua; izan ere, DBLOren 7. artikulua arabera, bereziki babestutako datua da. Hori horrela da ezgaitasuna pertsonen osasunarekin lotutako gaia delako.
- Aurreko arauak ikusita, esan behar da argitalpenak ez duela jaso behar zein den pertsona batek aitortuta dauzkan ezgaitasuna eta gradua, informazio hori ez delako proportzionala babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurak duen helburuarekiko.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko ekainaren 14ko Agindua, babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzkoa.
- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 7. artikulua.
- DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 8-6 artikulua.

UDALTZAINGOAK ATZITU AHAL DITU TRAFIKOKO ZUZENDARITZA NAGUSIAREN DATUAK? ZEIN DA ATZIPENAREN HELBURUA? DATU LAGATZEA DA?

- Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak dauka pertsonen eta ibilgailuen erregistroen erantzukizuna.
- Udalak trakzio mekanikodun ibilgailuen zerga biltzeko eskumena dauka eta alkateek hiriguneetan egiten diren zirkulazioko arau-hausteak zehatzeko eskumena dute.
- Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrek baimena ematen du hirugarrenek ibilgailuen erregistroa atzitu dezaten, baina interes legitimoa eta zuzena dutela egiaztatzen badute. Eta interes horrek indarra hartzen du Administrazio Publikoen arteko harremanak badira, atzipenaren alde agertzen baitira 30/1992 Legearen 4. artikulua eta Datu pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege organikoaren 21-1 artikulua. Izan ere, horien arabera, administrazio publikoen arteko komunikazioa baimenduta dago gai berari buruzko eskumena badute, eta kasu honetan gaia trafikoko arau-hausteen gaineko zehapenak dira.
- Ondorioz, esan behar da datu lagatze hau administrazioen arteko datu lagatzea edo datu komunikazioa dela eta arlo bereko eskumenak erabiltzeko egiten dela.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- 1449/2000 Errege Dekretua, Barne Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa aldatzen eta garatzen duena.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 15. artikulua eta hurrengoak.
- Toki ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duen 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren II. titulua.
- Trafikoari, Ibilgailu motordunen zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 68. artikulua.
- Ibilgailuen araudi orokorra onartzen duen 2822/1998 Errege Dekretua.
- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 4. artikulua.
- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 21.1 artikulua.

120

UDALTZAINGOAK LAGA AHAL DIZKIE ASEGURU KONPAINIEI ZIRKULAZIO ISTRIPIUEKIN ZERIKUSIA DUTEN DATU PERTSONALAK?

- Bai. DBLOren arabera, interesdunaren adostasuna eskatu beharrik ez dago, salbuespena delako. Zirkulazio istripu batekin zerikusia duten datu pertsonalak jasotzen dituen fitxategiaren kontrolatzaileak bertako datuak eman ahal izango dizkie aseguru konpainiei, baldin eta istripuan interesatutako alde moduan jarduten badute.
- Datuak laga baino lehen, aseguru etxeek nahitaez egiaztatu beharko dute aseguratuaren ordezkaritza dutela eta horiek istripuarekiko interes zuzena eta legitimoa dutela; izan ere, Udaltzaingoari eskatzen dioten informazioa istripu horri buruzkoa izango baita.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11.2 a) eta c) artikulua.
- Zirkulazioari buruzko 1428/2003 Erregelamenduaren 129. artikulua.
- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 35. artikulua.

121

UDALTZAINGOAK ATZITU AHAL DITU HERRIKO HEZKUNTZA ZENTROETAN ESKOLARATUTA DAUDEN ADIN GABEKOEN DATU PERTSONALAK?

- Udaltzaingoak prebentzio-diligentziak eta delitu-egintzak eragozteko edozein jarduera gauzatu ditzake Segurtasun Batzordeen arteko lankidetzak esparruen barruan.
- Segurtasun Indar eta Kidegoek datu pertsonalak jaso eta tratatu ditzakete, interesdunen adostasunik gabe polizia helbururako, baina muga bat dute, hau da, bakar-bakarrik jaso eta tratatu ahal izango dituzte segurtasun publikorako benetako arrisku bati aurrea hartzeko edo arau-hauste penalak zigortzeko ezinbestekoak diren datuen kasuetan eta datu kategoriek. Gainera, helburu horretarako ezarritako fitxategietan biltegitatu beharko dira. Fitxategiak fidagarritasunaren arabera kategorietan sailkatu beharko dira.

- Adin gabekoen datuen fitxategiaren tratamendu kontrolatzaileak (kasu honetan ikastetxea da) erantzun egin beharko dio Udaltzaingoak egindako informazio eskaerari, baldin eta eskaera zehatza eta berariazkoa bada, ezinezkoa baita datu eskaera masiboak egitea.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Estatuko segurtasun indar eta kidegoak, autonomia erkidegoetako poliziak eta udaltzaingoak arautzen dituen 2/1986 Lege Organikoa.
- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 22. artikulua.

122

EGOKIA DA IKASTETXE BATEK ADIN GABEKO BATEN GIZARTE ETA FAMILIA EGOERA BALIOZTATZEKO TXOSTEN BAT EGITEA UDALTZAINGOAK ESKATU DIOLAKO?

- Udaltzaingoak ez die, besterik gabe, bere kabuz, babes gabezia egoeran dauden adin gabekoen egoera baloratzeko txostenik eskatu behar ikastetxeei. Zer edo zer egitekotan, Udaltzaingoak horrelako egoera baten berri baldin badu, adin gabekoen babeserako batzordeari jakinarazi beharko dio.
- Agintari eta zerbitzu publikoek honako betebeharrak dituzte: batetik, edozein adin gabekori behar duen berehalako arreta ematea; bestetik, aurreko paragrafoan adierazitakoa lortzeko eta haien eskumenen esparruko eginkizuna bada, berehala jarduteko obligazioa dute; hala ez bada, ordea, gertatutakoa eskumena duen organoari helarazteko obligazioa dute, eta, azkenik, gertatutakoa adin gabekoen legezko ordezkariari jakinarazteko obligazioa dute, eta beharrezkoa bada, baita Fiskaltzari jakinaraztekoa ere.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Adin gabekoen babes juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren 14., 16. eta 18. artikulua.
- Kode Zibilaren 172. artikulua.

UDAL ERAIKINETAN DAUDEN BIDEOZAINZAKO SISTEMAK DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAN AITORTU BEHAR DIRA?

- Bideokameraz edo kameraz grabatutako edo jasotako pertsonen irudiak datu pertsonaltzat jo behar dira, DBLOren 3.a) artikulua hala xedatzen duelako: “pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri buruzko edozein informazio”.
- Gehiago zehaztuz, DBLO garatzen duen 1720/2007 Errege Dekretuaren 5.1 f) artikulua xedatzen duenez, datu pertsonala da “pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri buruzko edozein informazio (zenbakizkoa, alfabetikoa, grafikoa, fotografikoa, akustikoa edo beste edozein motatakoa)”.
- Udal eraikinetan instalatutako bideozaintza sistemak bi kontrol sistemaren menpe egon daitezke:
 - Segurtasun eta Indar Kidegoek erabili ohi dituzten bideozaintza sistemak badira, aldez aurreko baimenatarako erregimen berezia dute. Bestalde, horiek jartzean eta erabiltzean, herritarrek haien eskubideak erabiltzeari buruzko hainbat irizpide eta printzipio bete behar dituzte. Hori guztia araututa dago Segurtasun Indar eta Kidegoek toki publikoetan kamera edo bideokamerak erabiltzeari buruzko 4/1997 Lege Organikoan eta Lege hori Euskal Autonomian Erkidegorako garatzen duen 168/1998 Dekretuan.
 - Bideozaintza sistemen erabiltzaileak Segurtasun eta Indar Kidegoak ez badira, orduan datu pertsonalen babeserako araudia bete beharko da. Ondorioz, bideokamera horiekin egindako grabazioak erregistratzen dituzten fitxategiak sortu beharko dira eta Euskadiko Datuak Babesteko erregistroan inskribatu. Era berean, datu babesari buruzko araudian aurreikusitako segurtasun neurriak, betebeharrak eta printzipioak bete beharko dira.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa.
- DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua.
- 1/2006, JARRAIBIDEA, Datuak Babesteko Espainiako Agentziarena, kamera edo bideokamera sistemen bidez zaintza helburuarekin egiten den datu pertsonalen tratamenduari buruzkoa.
- Segurtasun Indar eta Kidegoek toki publikoetan kamera edo bideokamerak erabiltzeari buruzko 4/1997 Lege Organikoa.
- Euskal Herriko Poliziak toki publikoetan bideokamerak erabiltzeko baimenen eta haien erabileraren erregimena garatzen duen 168/1998 Dekretua.

NOLA ADIERAZI ETA JAKINARAZI BEHAR DA BIDEOZAIN-TZA SISTEMAK DAUDELA?

- Segurtasun eta Indar Kidegoek erabiltzen dituzten bideozaintza sistemak badira, argi eta garbi eta modu iraunkorrean adierazi behar zaie herritarrei bideokamera finkoak daudela, baina non dauden kokatuta esan gabe. Kameraren ardura duen agintaritza eskumenduna zein den ere adierazi beharko da.
- Bideozaintzako sistemen erabiltzaileak Segurtasun eta Indar Kidegoak ez badira, orduan datu pertsonalen babeserako araudia bete beharko da. Horrelakoetan, DBLOren 5. artikulua xedatzen duen informatzeko betebeharra bete beharko da. Horretarako, bideozaintzapeko guneetan informazio-oharrak edo bereizgarriak jarri beharko dira ondo ikusteko moduko lekuetan, gune itxiak nahiz irekiak izan. Ohar horietan honakoak adierazi beharko dira:
 - Zein den bideozaintzapean dagoen gunea.
 - Nori eskatu ahal zaion informazio gehigarria. Horretarako, DBLOren 5.2 artikuluan xedatzen den informazioa jasotzen duten inprimakiak jarri beharko dira interesdunen eskura, hau da, fitxategiari eta tratamenduari buruzko informazioa, helburuari buruzkoa, informazioaren hartzaileei buruzkoa eta abar.
 - Datu pertsonalak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta horien tratamenduei aurka egiteko eskubideak noren aurrean erabil daitezkeen.
- DBEBren web gunean informazio ohar baten eredia dago, bideozaintza sistemak daudela ohartarazteko balio duena.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa.
- DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua.
- 1/2006, JARRAIBIDEA, Datuak Babesteko Espainiako Agentziarena, kamera edo bideokamera sistemen bidez zaintza helburuarekin egiten den datu pertsonalen tratamenduari buruzkoa.
- Segurtasun Indar eta Kidegoek toki publikoetan kamera edo bideokamerak erabiltzeari buruzko 4/1997 Lege Organikoa.
- Euskal Herriko Poliziak toki publikoetan bideokamerak erabiltzeko baimenen eta haien erabileraren erregimena garatzen duen 168/1998 Dekretua.

125

IZAPIDETZEN ARI DEN HIRIGINTZAKO ESPEDIENTE BAT ATZITZEKO BAIMENA EMAN AHAL ZAIO INTERESDUNA DELA EGIAZTATZEN DUENARI?

- Bai, atzitzeko baimena eman behar zaio. Administrazio Prozedurako 30/1992 Legearen 35 a) artikulua aitortzen du eskubide hori. Eskubide horretaz baliatzeko nahikoa da administrazio prozedura batean interesduna izatea, hau da, dena delako prozeduran interes legitimoa izatea. Gainera, badirudi eskubide honek benetako balioa duela dena delako prozedura izapidetzen ari den bitartean erabili ahal den neurrian.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 35. artikulua.
- Toki erakundeetarako JEE. 48-1. artikulua.

126

IZAPIDETZEN ARI DEN INGURUMENARI BURUZKO ESPEDIENTE BAT ATZITZEKO BAIMENA EMAN AHAL ZAIO ESKATZEN DUEN EDONORI?

- Bai. Abenduaren 12ko 38/1995 Legeak ingurumenaren arloko informazioaren atzipen eskubidea arautzen du eta adierazten du administrazio publikoek aldian-aldian argitaratu beharko dutela ingurumenaren egoeraren gaineko informazio orokorra.
- Era berean, Publikoak ingurumenaren arloko informazioa atzitzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta 2003ko Kontseiluaren 2003/4/CE Zuzentarauak zabaldu egin zuen eman beharreko informazioaren esparrua, eta, ondorioz, bere eginkizunak direla-eta dauzkan datuak ematez gain, bere izenean beste entitate batek dauzkanak ere eman egin beharko ditu, beti ere informazio horren zabalkunde publikoa modu sistematikoan eta aktiboan egiteko, batez ere telekomunikazio informatikoaren edo elektronikoaren bidez.
- Aurreko paragrafoan adierazitako araua ezartzeko, esan behar da hirigintzako eta ingurumeneko informazioa dela administrazio publikoek ondoko hauei buruz duten informazio guztia, edozein dela erakusteko era eta gordetzeko euskarri materiala: hirigintzako planeamendu eta kudeaketa tresnei buruzko informazioa, lursailen hirigintza egoerari buruzkoa eta hirigintzari eragin diezaioketen jarduerari eta neurriei buruzkoa.

- Hirigintzako informazioa atzitzeko eskubidea erabiltzeko ez da interes legitimorik egiaztatu behar.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Ingurumenaren arloko informazioa atzitzeari buruzko abenduaren 12ko 38/1995 Legea.
- Publikoak ingurumenaren arloko informazioa atzitzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta 2003ko urtarrilaren 28ko Kontseiluaren 2003/4/CE Zuzentaraua.

127

TOKI ERAKUNDEEK ZEINTZUK DATU PERTSONAL ETA FITXATEGI KUDEATZEN DITUZTE LANGILEEN ADMINISTRAZIORAKO ETA PERTSONEN ZUZENDARITZA EGINKIZUNETARAKO?

- Giza baliabideen fitxategia: datu pertsonalak (izen-abizenak eta NAN), lan bizitzari buruzko datuak (betetako lanpostuak, ikastaroak, eta bestelakoak, hau da, frogatu dituen lanbide konpetentziak eta gaitasunak eta abar), prestakuntzari buruzko datuak (titulazioak, gradu akademikoak, etengabeko prestakuntza eta espezializazio ikastaroak), administrazioarekiko harremana (lan harremana, egoera administratiboa, hautaketa eta hornitze prozesuetan izandako emaitzak, izandako lizentzien eta baimenen gaineko datuak, datak barne, eta abar).
- Gizarte Segurantzako fitxategia edo datu ekonomikoak: ordainsariak, zerga atxikipeak, gizarte segurantzako kotizazioak, helbidea, egoera zibila, seme-alabak, sindikatu afiliazioa, eta sindikatu kuotaren deskontua, seme-alaben ezgaitasunak, ebazpen judizial batek agindutako pentsioren bat ordaindu beharra, bankuko kontu zenbakia, baja egunak (gaixotasun arrunta ala lanbide gaixotasuna izan den) eta abar.
- Osasunari buruzko edo zerbitzu medikuaren fitxategia: laneko osasuna, mediku azterketak, ezgaitasunak eta abar.
- Beste fitxategi edo datu batzuk: datu biometrikoak ordutegi kontrolerako, posta elektronikoaren zaintza datuak, Interneteko atzipenen zaintza datuak eta abar.

128

LANGILEENTZAKO ASEGURU POLIZA KOLEKTIBOAK EDO PENTISIO PLANAK KONTRATATZEKO, PERTSONA ONURADUNEN ALDEZ AURREKO ADOSTASUNA BEHAR DA?

- Toki erakundeak aseguru poliza bat edo pentsio plan bat kontratatzen badu hitzarmen kolektiboan edo lan baldintzen hitzarmenean adostutakoa betetzeko, ez da beharrezkoa izango langilearen adostasuna eskatzea erakunde aseguratzaleari edo aurreikuspen erakundeari (kasu batzuetan bata eta besteetan bestea izan daiteke) datu pertsonalak lagatzeko, baina toki erakundeak lagapenaren berri eman beharko die langileei.
- Aseguru poliza bat edo pentsio plan bat kontratatzeako erabakia ez bada hitzarmen kolektiboan edo lan baldintzen hitzarmenean adostu, aldez aurreko adostasuna eskatu beharko da.

129

INTERESDUNEN ADOSTASUNA BEHAR DA PFEZ-AREN HELBURURAKO FORU OGASUNEI EGIN BEHARREKO DATU LAGATZEETARAKO?

- Ez da behar interesdunen adostasuna, foru ogasunetan ezartzen den zerga araudiak baimentzen duelako lagapena.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 11. artikulua.
- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko zerga araudia, bereziki toki ogasunen konturakoa, txikipenei eta sarrerei dagokiena. Adibidez, Arabako Lurralde Historikoan honako hauek dira: Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 17ko 651/2007 Foru Agindua eta urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Araua.

130

INTERESDUNEN ADOSTASUNA BEHAR DA GIZARTE SEGURANTZAKO DIRUZAINNTZA NAGUSIARI DATUAK LAGATZEKO, TOKI ERAKUNDEAK ARLO HORRETAN DAUZKAN OBLIGAZIOAK BETE DITZAN?

- Ez da behar interesdunen adostasuna, gizarte segurantzaren zerga araudiak baimentzen duelako lagapena.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 11. artikulua.
- Gizarte Segurantzaren izena eman eta afiliatzeko araudia, bereziki honako hau: Gizarte Segurantzako enpresen inskripzioari buruzko eta langileen afiliazioari buruzko eta horien altei, bajei eta datuen aldaketei buruzko Erregelamendu Orokorra onartzen duen urtarrilaren 26ko 84/1996 Errege Dekretua.

131

LANGILEEN ALDEZ AURREKO ADOSTASUNA ESKATU BEHAR DA LANGILEEN ORDEZKARIEI LANGILEEN DATU PERTSONALAK KOMUNIKATZEKO?

- Ez da behar langileen aldez aurreko adostasuna legeetan jasota dauden kasuetan, batez ere, Langileen Estatutuan jasota dauden kasuetan.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 11. artikulua.
- Langileen Estatutuaren 64. artikulua.

132

LANGILEEI BURUZKO ZEINTZUK DATU LAGA AHAL ZAIZKIO ENPRESA BATZORDEARI EDO LANGILE BATZORDEARI?

- Honako hauek:
 - Bere eremu ekonomikoarekiko, enpresaren edo erakundearen egoera azaltzen duen informazioa hiru hilabeteen behin.
 - Kontratuen oinarritzko kopiak.
 - Enpresaren martxari buruzko informazio ekonomikoa: balantzea, emaitzen kontua, memoriaren eta sozietatearen dokumentuak.
 - Honako hauei buruzko hasierako txostena egin ahal izateko informazioa: aurrekontu plantilak, lanaldi murrizketak, instalazioak lekuz aldatzea, laneko antolaketa eta kontrol sistemak ezartzea eta enpresarioak lan araudiaren, gizarte segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen gaineko araudia betetzen dituela zaintzeari buruzko informazioa.
 - Enpresa xurgatzeari, bat egiteari edo estatusa aldatzeari buruzko txostena egin ahal izateko informazioa.
 - Enpleguak enpresan duen eraginari buruzko informazioa.
 - Hautesleen erroldari buruzko informazioa.
- Askotan nahikoa da datu disoziatuak ematea, hau da, interesduna edo ukitua identifikatzea galarazten duten datuak ematea eta, horrela, bete informatzeko legezko betebeharra.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 11. artikulua.
- Langileen Estatutuaren 64. artikulua.

133

HAUTESKUNDE SINDIKALETAN LANGILEEN HAUTESLE ERROLDA ARGITARATZEKO MUGAK DAUDE?

- Hautesleen errolda hauteskunde mahaletako kideei helarazi behar zaie. Honako datuak dauzka: izan-abizenak eta jaiotze data.
- Hauteskunde mahaiek errolda argitaratuko dute honako lekuetan: iragarki oholetan edo Interneten. Baina errolda ezin izango da argitaratu sarbide irekia edo sarbide ez murriztua duen web gune batean.
- Nahiz eta berariaz ez den esaten sindikatuei hautesleen zerrenda eman behar zaienik, zentzuzkoa ematen du eman egin behar zaiela pentsatzea, sindikatu bakoitzak hauteskunde aurreko kanpaina egin dezan.
- Hauteskundeen aurretik sindikatuei hautesle errolda lagatzen bazaie, kalitatearen printzipioa ezarri beharko da, hau da, sindikatuak hauteskunde kanpaina egiteko bakarrik erabiliko dutela eta ez dutela beste helburu baterako erabiliko, eta sindikatu kanpaina bukatutakoan datuak ezereztu egin beharko dituztela.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- DBEBren CN 29/2006 Txostena.

134

LANGILE BAKOITZAREN ALDEZ AURREKO ADOSTASUNA BEHAR DA TOKI ERAKUNDE BATEK BERTAKO LANGILEEN MEDIKU AZTERKETA ANTOLA DEZAN?

- Bai, langileen aldez aurreko adostasuna beharko da honako kasuetan izan ezik: a) mediku azterketa ezinbestekoa bada lan baldintzek langileen osasunean duten eragina ebaluatzeko, b) egiaztatu nahi bada ea langile baten osasun egoerak kalte egin ahal dion langileari berari edo kalte egin ahal dien bere lankideei edo enpresarekin harremana duten pertsonen eta c) berariazko arriskuetatik eta jarduera oso arrisksuetatik babesteari buruzko legegindapenen batek agintzen badu. Kasu horietan guztietan langileen ordezkarien aldeko txostena beharko da lehendabizi.

- Osasuna zaintzeko jarduerak nahitaezkoak badira eta langileak adostasuna adierazi badu eta horretarako prest agertu bada, ez da beharrezkoa izango adostasun adierazpen osagarririk langile horren osasun datuak tratatzeko.
- Edozelan ere, goiko kasu guztietan bete behar da informazio eskubidea, hau da, langileei esan egin behar zaie zertarako biltzen diren haien datuak (osasunari buruzkoak, identifikaziokoak eta abar), zein fitxategitan gordeko diren, nor den fitxategi horren arduraduna, zeintzuk eskubide dauzkaten, datuak beste pertsona edo entitate bati komunikatuko zaizkien ala ez, eta baiezkoa bada, nori komunikatuko zaizkion, eta abar.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Laneko arriskuen prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 22-1. artikulua.
- DBEBren 434-2004 Txostena.

135

LANGILEEN OSASUN DATUAK DIRELA ETA, NOLA JOKATU BEHAR DA ZUHURTASUNAGATIK?

- Toki erakundeak bertako langileen osasunari buruzko datuak biltzen ditu laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan dauzkan betebeharrak bete ahal izateko.
- Toki erakundeak prebentzio zerbitzu bat sortu behar du nahitaez legeak agintzen duelako, eta zerbitzu horrek arriskuen prebentzio eta babes arloko erantzukizunak hartzen ditu bere gain. Beste aukera bat izan daiteke, toki erakundeak Lan-istripu eta Gaixotasun Profesionalen Mutua bat kontratatzea zerbitzu hori emateko.
- Azken kasu horretan toki erakundeak DBLOren 12. artikulua xedatzen duena jaso beharko du kontratuan edo hitzarmenean. Artikulu hori hirugarrenen konturako datu atzipenei buruzkoa da, hau da, bertan zehaztuko dira: nola tratatu beharko dituen Mutuak datu pertsonalak tratamendu kontrolatzailearen jarraibideak kontuan hartuta, kontratuan jasotzen den helbururako bakar-bakarrik erabiliko dituela eta ez beste helburu baterako, ez dizkiola inori komunikatuko eta zeintzuk segurtasun neurri ezarri beharko dituen nahitaez.
- Langileen osasunari buruzko datuak jasotzeko fitxategi berezitu bat sortu beharko da. Osasunari buruzko datuak bereziki babestutako datuak dira.

- Toki erakundeko osasun arloko profesionalek, mutuak eta langileak berak bakarrik daukate langilearen osasunari buruzko datuak atzitzea, atzipena murriztuta baitago. Kasu jakin batzuetan, informazioa laga ahal izango zaie Segurtasun eta Higiene Batzordeko prebentzio ordezkariari, baina normalean datu erantsiak edo sozialak emango zaizkie eta datu pertsonalak, ordea, salbuespeneko kasuetan bakarrik.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Laneko arriskuen prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legea.
- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. 7. eta 8. artikulua.

136

LANGILEEN ALDEZ AURREKO ADOSTASUNA BEHAR DA GIZARTE SEGURANTZAKO LAN-ISTRIPU ETA GAIXOTASUN PROFESIOALEN MUTUARI DATUAK LAGATZEKO?

- Gizarte Segurantzako Lan-istripu eta Gaixotasun Profesionalek Mutuek arriskuen prebentziorako eta babeserako eginkizunak burutu ahal izango dituzte enpresentzat, baina horretarako nahitaez behar dute lan agintaritzaren egiaztapena.
- Zerbitzu hau eman behar duen Mutua da fitxategiaren tratamendu arduraduna, eta toki erakundeak kontratu idatzi bat izenpetu beharko du Mutuarekin eta bertan DBLOren 12. artikulua xedatzen duena jaso beharko du. Artikulu hori hirugarrenen konturako datu atzipenei buruzkoa da, hau da, bertan zehaztuko dira: nola tratatu beharko dituen Mutuak datu pertsonalak tratamendu kontrolatzailearen jarraibideak kontuan hartuta, kontratuan jasotzen den helbururako bakar-bakarrik erabiliko dituela eta ez beste helburu baterako, ez dizkiola inori komunikatuko eta zeintzuk segurtasun neurri ezarri beharko dituen nahitaez. Tratamendu-enkargu honen ondorioz, datu pertsonalak hara eta hona ibil daitezke toki erakundearen eta Mutuaren artean.
- Mutuek langileari buruzko gaitasun psikofisikoaren gaineko txostena bakarrik helarazi ahal izango diote toki erakundeari. Erakundearen mediku zerbitzuari, ordea, mediku datuak ere bidali ahal izango dizkiote. Azkenik, mediku txostenak langileei bakarrik komunikatu ahal izango zaizkie eta Mutuaren erantzukizuna izango da erakundeko langileekiko komunikazioetan konfidentzialtasuna eta segurtasuna bermatzea.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Laneko arriskuen prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 32. artikulua.

137

LANGILEAK UDALEAN SARTZEKO KONTROLETAN DATU BIOMETRIKOAK ERABIL DAITEZKE?

- Gero eta gehiago erabiltzen dira datu biometrikoetan oinarritutako sistemak langileen lantokiko sarrera eta presentzia kontrolatzeko. Sistema biometrikoa gehienetan azterna digitala izaten da, eta inoiz eskuaren edo irisaren ingerada.
- Langileak fisikoki non dauden kontrolatzeko datu biometrikoak erabiltzea gai gatazkatsua izan da; baina gaur egun justizia epaitegiek ebatzi dutenez, datu biometrikoak erabiltzea legezkoa da.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Kantabriako Auzitegi Nagusiaren 2003ko urtarrilaren 23ko eta 2003ko otsailaren 21eko Epaiak.

138

HAUTAKETA PROZESUETAN DATU PERTSONALAK ESKATZEAN, ZEINTZUK JARDUERA DIRA DESEGOKIAK?

- Toki erakundeak gai izan behar du kontratatu nahi dituen pertsonak lanpostuetan jarduteko gai diren ebaluatzeko eta hautagaien artean egokienak hautatzeko, haien merezimenduak eta gaitasunak kontuan hartuta.
- Arau orokorra da pertsonaren adostasuna eskatzea datu pertsonalak bildu aurretik. Baina, esan behar da hautaketa saio batean parte hartzeko eskabide orria betetzen bada, eskabidea betetzen duen pertsonak adostasun argia adierazten duela bere datuak jaso ditzaten, baldin eta jasotzen diren datuak hautaketa helbururako egokiak, bereizleak eta neurrikoak badira.
- Zentzu horretan ahaleginak egin beharko dira hautaketa prozesuetan ez dezaten eskatu pertsonaren eremu pribatua muturra sartzen duen informazio pertsonala, eta ez ditzaten garrantzirik gabeko datuak eskatu, hau da, datu egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak baino ez ditzaten eskatu.

- Eskabide orrietan edo hautaketa elkarrizketetan zeintzuk datu pertsonal - datu delikatuak edo bereziki babestuak barne - bildu behar diren zehazteko unean, kontuan izan beharko da eskatu beharreko informazioak enplegu arloan hartu beharreko erabakiarekin zerikusi zuzena duela eta literatura zientifikoan jasota dagoela.
- Zaila da esatea zenbat datu mota erabil daitezkeen hautaketa prozesu batean, enpleguaren ezaugarrien arabera zehaztu daitezkeelako. Badirudi egokiena dela eragiketaren gardentasuna bermatzen duten zenbait arau ezartzea eta interesdunak edo ukituak arauon berri izatea. Hala ere, gehienetan ez da beharrezkoa izaten lanetik kanpo zer nolako bizimodua duten galdetzea pertsoneri.
- Hona hemen zenbait jardunbide DESEGOKI:
 - Hautagaien gaitasuna balioztatzeko behar direnak baino datu gehiago eskatzea.
 - Hirugarren pertsoneri eskatzea hautagaiaren datu pertsonalak, hautagaiaren adostasunik gabe. Adibidez, aurretik izandako enplegatzaile bati eskatzea hautagaiaren errendimenduari buruzko informazioa.
 - Hautagaiei azterketak egitea edo osasunari buruzko galderak egitea, lanpostuko eginkizunak ez diren beste helburu batzuetarako.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- 1996ko urriaren 7ko OIT/96/29. Langileen datu pertsonalen babesari buruzko gomendio praktikoen errepertorioa.

139

BIDEZKOA DA TOKI ERAKUNDEAREN KOMUNIKAZIO GIDA BAT ARGITARATZEA INTERNETEN ETA ZERBITZU PUBLIKOA EMATEN DUTEN LANPOSTUAK ZEINTZUK DIREN JASOTZEAZ GAIN, LANPOSTUA BETETZEN ARI DIREN PERTSONEN IDENTIFIKAZIO DATUAK ERE EMATEA?

- Erakundeek nahi dute herritarrekin duten komunikazioa errazagoa izatea. Toki erakundeek horregatik identifikatzen dituzte bertako zerbitzu unitateak, lanpostuak eta harremanetarako datuak (posta elektronikoa, telefonoa eta posta helbidea), eta horregatik argitaratzen dituzte paper formatuko edo formatu digitaleko komunikazio gidetan.

- Lanpostu horiek betetzen ari diren pertsonen identifikazioko datu pertsonalak (izena eta abizenak) argitaratzeari buruz esan behar da, batez ere argitalpena Interneten egiten bada, argitalpen horiek behin baino gehiagotan arazoak sortu dituztela toki erakundearen eta bertako langileen artean, eta gehienetan langileei alde aurreko adostasunik ez eskatzeagatik izan dela.
- Alde praktikotik begiratuta, hau da, administrazioa herritarrengana hurbiltzeko eta behar duen informazioa ahalik eta azkarren eman ahal izateko, esate baterako telefono dei bat egiteko, ez dirudi beharrezkoa eta ezinbestekoa denik dena delako funtzionarioaren datu pertsonalak Interneten argitaratzea. Are gehiago, kontuan hartzen badugu lanpostu berean egoten diren pertsonak aldatu egin daitezkeela eta oporraldietan nahiz gaixotasun baje irauten duten bitartean inor ez egotea ere gerta daitekeela, pentsatzekoa da Interneten argitaratutako datu pertsonalak behin-behingo edo behin betiko aldatu beharra gerta daitekeela.
- Edozelan ere, toki erakunde batek komunikazio gida bat argitaratzea erabakitzen badu, eta komunikazio gidan bertako langileen identifikazio datuak jaso nahi baditu, 1720/2007 Errege Dekretuaren 2.2 artikulua hartu beharko du kontuan. Artikulu horren ezarpenak helburu murriztailea duela aurreikusten denez, badirudi jardunbiderik gomendagarriena dela langileei alde aurreko adostasuna eskatzea eta argitalpenean argi adieraztea bertan argitaratzen den informazioa ez dela jendearen eskurako iturri.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Enplegatu publikoaren estatutuaren 74. artikulua.
- DBEB. CN3/2007 Txostena
- DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 2.2 artikulua.

140

ZEINTZUK DATU ARGITARA DAITEZKE HAUTAKETA PROZESUETAKO EDO LEKUALDATZE LEHIAKETETAKO PROZESUEN KUDEAKETAKO HAUTAGAIEN EDO EMAITZEN ZERRENDETAN?

- Hautaketa prozesuetako edo lanpostuak betetzeko prozesuetako datu pertsonalen zerrendek (onartuen zerrendak, puntuazioen zerrendak eta abar) zabalkunde handia (aldizkari ofizialak edo Internet) ala ez hain handia izan dezakete (intraneta, Internet sarbide gakoekin, paper formatuko iragarki oholak), deialdiaren oinarrietan xedatzen denaren arabera. Pribatutasunaren eskubidea babesteko, zerrendetan publizitatearen printzipioa betetzeko behar diren gutxieneko datuak bakarrik jaso daitezke, arau orokor moduan.

- Bestalde, zerrenda guztiek klausula bat izan beharko dute honako ohartarazpenak egiteko: zerrendak datu pertsonalak dauzkala, datu babesaren arloko egungo legediarekin bat datorrela eta zerrendaren helburu bakarra dela prozesuko dena delako faseari publizitatea ematea eta parte hartzaileei jakinarazi beharrekoak jakinaraztea.
- Horrez gain zerrendek beste informazio ohar bat ere jaso beharko dute honakoak adierazteko: zerrendak ez direla jendearen eskurako iturri eta ezin direla zati batean edo osorik erreproduzitu, eta ezin direla informazioa berreskuratzeke ezelako sistemen bidez eman edo erregistratu, baldin eta ukituek ez badute adostasunik adierazi.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- DBEB. 07-028 eta 07-036 Txostenak.

141

BIDEZKOA DA TOKI ERAKUNDEKO LANGILEEN POSTA ELEKTRONIKOAREN EDUKIA AZTERTZEA?

- Posta elektronikoa laneko tresna bat da, berehalako komunikazioa ahalbideratzen du, lana errazten du eta laneko denbora modu eraginkorragoan kudeatzeko lagungarri izan daiteke.
- Posta elektronikoa guztiak kontrolatzeko eta atzitzeko teknika batzuk daude, eta bidalketei eta jasotzei buruzko datuez gain, mezuen edukia ere kontrola ditzakete. Baina erakundeek ezin dituzte bereizi gabe erabili kontroleko tresna horiek. Konstituzioak komunikazioen sekretua bermatzen du, batez ere, posta bidezkoena, telefono bidezkoena eta telegrafikoena. Hedapenez, ulertzen da konstituzioak posta elektronikoen sekretua ere babesten duela.
- Langileak zaintzea ez dago debekatuta, baina mugak dauzka. Izan ere, bakar-bakarrik kontrolatu ahal izango da alde zurretik langileak hori gertatuko denaren jakitun badaude eta enplegatzaileak informatu baditu. Beraz, ezin da posta elektronikoa isilpean kontrolatu. Bakar-bakarrik kontrolatu ahal izango da delituren baten edo arau-hauste larriren baten susmorik badago eta susmoak ondo arrazoituta badaude. Ondorioz, zaintza-jardueraren bat abian jarri aurretik, langileek jakin behar dute zertarako egingo den eta noiztik noiz arte gauzatuko den.

- Komenigarria da lan hitzarmenen esparruan edo lan baldintzen akordioan jardute-protokolo batzuk adostea, langileek posta elektronikoaren erabilera egokia egin dezaten, eta hala badagokio, bai eta toki erakundeak erabili beharreko kontrol sistemak adostea ere.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Espainiako Konstituzioaren 1-3 artikulua.
- Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren 197.1 artikulua.
- 1996ko urriaren 7ko OIT/96/29. Langileen datu pertsonalen babesari buruzko gomendio praktikoen errepertorioa.

142

BIDEZKOA DA TOKI ERAKUNDEKO LANGILEEK INTERNETEN IKUSI DITUZTEN ORRIAK AZTERTZEA?

- Toki erakundeak Interneteko sarbideak zehazteaz gain, ikus daitezkeen leku elektronikoak eta abar murrizteko zeintzuk mekanismo ezarri ere erabaki dezake.
- Langileek ikusitako web guneak kontrolatzeko eta zeintzuk diren jakiteko teknika batzuk daude, baina erakundeek ezin dituzte bereizi gabe erabili kontroleko tresna horiek.
- Langileak zaintzea ez dago debekatuta, baina mugak dauzka. Izan ere, bakar-bakarrik kontrolatu ahal izango da aldezturik langileak hori gertatuko denaren jakitun badaude eta enplegatzailerak informatu baditu. Beraz, ezin da Interneten erabilera isilpean kontrolatu. Bakar-bakarrik kontrolatu ahal izango da delituren baten edo arau-hauste larriren baten susmorik badago eta susmoak ondo arrazoituta badaude. Ondorioz, zaintza-jardueraren bat abian jarri aurretik, langileek jakin behar dute zertarako egingo den eta noiztik noiz arte gauzatuko den.
- Komenigarria da lan hitzarmenen esparruan edo lan baldintzen akordioan adostea jardute-protokolo batzuk, langileek Interneten erabilera egokia egin dezaten, eta hala badagokio, bai eta toki erakundeak erabili beharreko kontrol sistemak adostea ere. Edozelan ere, hoberena da, kontrol prozedurak ezartzeko, ordezkari sindikalen parte hartzea izatea, eta prebentzioa sustatzea, hau da, hobe da zenbait web gunetan sarbidea galaraztea, bertan sartzeagatik zigortzea baino.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- 1996ko urriaren 7ko OIT/96/29. Langileen datu pertsonalen babesari buruzko gomendio praktikoen errepertorioa.

ZEIN EGOERATAN LAGA AHAL DIZKIO ERAKUNDE PUBLIKO BATEK (FORU ALDUNDI BATEK EDO EUSKO JAURLARITZAK) TOKI ERAKUNDE BATI BERTAKO GIZARTE ZERBITZUETAKO ESPEDIENTEETAKO DATUAK, DATUEN TITULARRAREN ALDEZ AURREKO ADOSTASUNIK GABE?

- DBLOren 11. artikulua xedatzen duenez, gizarte zerbitzuen espedienteetako datuak goian aipatutako erakundeei laga ahal izateko, honako balditzetako bat bete beharko da:
 - Erakunde lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin zerikusi zuzen-zuzena duten helburuak betetzeko egiten bada lagapena izatea, eta interesdunaren alde zuzeneko adostasuna egotea.
 - Lege batek berariaz arautzea lagapena.
- Prozedura bat ezarri beharko da honako gertakariak eta eskumenak egiaztatu ahal izateko: datu eskaera, erakunde eskatzailearen eskumena eta lagapenerako legezko habilitazioa edo interesdunaren adostasuna.
- Erabat bestelakoa da herritarrek duten eskubidea Administrazio Jarduleak lehendik dauzkan dokumentuak berriro aurkeztu beharrik ez izateko. Edozelan ere, eskubide horrek ez dio ematen administrazioari inoren datu pertsonalik atzitzeko aginpiderik, datuen titularraren adostasunik ez badu. Izan ere, herritarrak berak adierazi behar du eskubide hori erabili nahi duela, eta horretarako berak adierazi beharko du zeintzuk datu edo agiri dauzkan lehendik administrazioak eta horiek erabiltzeko baimena eman beharko du. Horrela ez du berriro aurkeztu beharrik izango.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki erakundeetarako JEE. 42-44 artikulua.
- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35 a) artikulua.
- 30/1992 Legea egokitzen duen 1778/1994 Errege Dekretua.

144

ADIN GABEKO EDO EZGAITU BATEN GAINEN INFORMAZIOA EMAN AHAL ZAIO AITARI EDO AMARI, HORREN ZAINTZAREN ARDURA FORU ALDUNDIAN EGINKIZUN HORI DAGOKION SAILAK HARTU BADU? ETA HARRERA PROGRAMA BATEN BIDEZ ADIN GABEKOAREN KARGU EGITEN DIREN PERTSONEI?

- Kode Zibilaren arabera, guraso-ahalaz baliatzea nahitaezkoa da adin gabekoen edo ezgaituen legezko ordezkari izateko. Arau orokorra da adingabekoen gurasoek izatea guraso-ahala eta ahal hori bakar-bakarrik gal daiteke, gurasoek haien betebeharrak betetzen ez badituzte eta epaileak ahala kentzen badie.
- Beraz, galderako bi kasuetan gurasoek bakarrik atzitu ditzakete adin gabekoen edo ezgaituen datuak.
- Zaintzaren kasuan horrela jokatu behar da, baina beste kontu bat da erakunde publiko batek hartzen duenean bere gain tutoretza, horrelakoetan guraso-ahala eten egiten baita.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Kode Zibilaren 172-2 eta 3. artikulua.

145

INTERESDUNARI EMAN AHAL ZAIO ESPEDIENTE BATEN BARRUAN ZENBAIT PROFESIONALEK EGINDAKO TXOSTEN EDO IRIZPENEN KOPIARIK?

- Bai. Araudi orokorrak, datuak babesteko araudiak eta artxiboak eta dokumentuak atzitzeari buruzko berariazko araudiak ezartzen dutenez, horiek pertsonaren intimitateari buruzko datuak badauzkate, interesdunak baino ezin izango ditu atzitu. Beraz, interesdunak bere espedientea osatzen duten dokumentu guztiak eskatzeko eta guztien kopiak eskuratzeko eskubidea dauka.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren 15 artikulua.

146

GIZARTE ZERBITZUAK EMATEN DITUZTEN UDALEK ZEINTZUK FITXATEGI AITORTU BEHAR DITUZTE?

- Toki erakunde batek datu pertsonaldun fitxategi guztia-guztiak aitortu behar ditu, berdin dio informatizatuak diren, egituratuta dauden ala eskuzko formatuan dauden.
- Hainbat gizarte zerbitzu ematen dituztenez, honakoak dira toki erakundeek aitortu ohi dituzte fitxategiak:
 - Gizarte laguntzen kudeaketa.
 - Gizarte baliabideak izapidetzea eta kudeatzea.
 - Artatutako pertsonen fitxa sozialak eta egindako esku hartzeak.
 - Gizarte laguntzen eskatzaileak.
 - Gizarte zerbitzuen erabiltzaileak eta gizarte arretarako zentroen erabiltzaileak.
 - Gizarte larrialdietarako laguntzak.
 - Etxez etxeko laguntza.
 - Ezgaituak.
 - Telealarma zerbitzuaren erregistroen tratamendua.
 - Gizarte ongizateko zerbitzuaren onuradunak.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren 3.a) artikulua.
- Datuak Babesteko Erregistroa ikusi hemen: www.avpd.es

147

TOKI ERAKUNDE BATEK PERTSONA BATI ZEINTZUK DATU ESKATU AHAL DIZKIO GIZARTE ZERBITZU BAT EMAN AHAL IZATEKO?

- DBLOn jasotako datu pertsonalen kalitatearen printzipioaren arabera, datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legítimoekiko. Bestalde, helburuak ere zehatzak, esplizituak eta legítimoak izan behar dira.
- Gizarte zerbitzuen jardute eremuan datu pertsonal ugari bildu behar izaten dira (ekonomikoak, prestakuntzakoak, soziofamiliarak, lan arlokoak, psikologikoak eta abar), pertsona eskatzaileari behar bezalako arreta eta laguntza eman ahal izateko.

- Arau orokorra da pertsonaren adostasuna eskatzea datu pertsonalak bildu aurretik. Baina, esan behar da gizarte zerbitzu batera zerbitzu bat eskatzen joanez gero, horrek berak adierazten duela pertsonak adostasun argia adierazten duela bere datuak jaso ditzaten, baldin eta jasotzen diren datuak bereizleak eta neurrikoak badira eta gehiegizkoak ez badira laguntza psikosozialaren helbururako.
- Zentzu horretan ahaleginak egin beharko dira ez dezaten eskatu pertsonaren eremu pribatuan muturra sartzen duen informazio pertsonala, eta ez ditzaten garrantzirik gabeko datuak eskatu, hau da, datu egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak baino ez ditzaten eskatu.
- Eskabide orrietan edo elkarrizketetan zeintzuk datu pertsonal - datu delikatuak edo bereziki babestuak barne - bildu behar diren zehazteko unean, kontuan izan beharko da eskatu beharreko informazioa literatura zientifikoan jasota dagoela eta informazioak gizarte prestazioen arloan hartu beharreko erabakiarekin zerikusi zuzena duela.
- Zaila da esatea zenbat datu mota erabil daitezkeen gizarte prestazio baterako prozesu batean; izan ere, datu batzuk edo beste erabili beharko dira laguntza premia edo eskea sortu duen arazoaren edo gabezia egoeraren ezaugarrien arabera. Badirudi egokiena dela eragiketaren gardentasuna bermatzen duten zenbait arau ezartzea eta interesdunak edo ukituak arauon berri izatea.
- Bereziki babestutako datu pertsonalen kasuan, datu horiek erabili edo tratatzeko, DBLOan ezarritako printzipio guztiak bete behar dira: sekretu gorde beharra, informazioa jasotzeko eskubidea eta abar.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren. 4. artikulua.

DATUEN TITULARREI GIZARTE ZERBITZUREN BAT EMATEKO ESKATUTAKO DATUAK ERABILI DAITEZKE GEROAGO BESTE HELBURU BATZUETARAKO?

- Ez, helburu zehatz, esplizitu eta legitimo baterako bildutako datu pertsonalak, kasu honetan gizarte zerbitzu bat emateko bildutakoak, ezin izango dira erabili edo tratatu bildu zirenean zegoen helburuarekin bateragarriak ez diren bestelako helburuetarako. Gainera, interesdunak helburuaren berri izan behar du bere datuak eman aurretik.
- Hasierako datu bilketaren helburuarekin bateragarritzat joko dira datu horiekin egiten diren erabilera eta tratamenduen helburuak, baldin eta helburu historikoak, estatistikoak eta zientifikoak badituzte.
- Azterketa eta ikerketa historikoak, estatistikoak eta zientifikoak egiteko helburua duten datu tratamenduak berdin-berdin egin daitezke datu disoziatuekin ere, hau da ematen diren datuei disoziazio prozeduraren bat ezarri, eta horrela ezinezkoa egiten da datuen titularra den pertsona identifikatzea.
- Beste batzuetan azterketa historikoak edo zientifikoak egin nahi direnean edo benetako gizarte egoera aztertu nahi denean, behar bezala egokitutako politika publikoak egin ahal izateko, datu pertsonalak baino baliagarriagoak eta erabilgarriagoak izan daitezke datu sozialak edo datu erantsiak, hau da, talde sozial edo multzo sozial bati buruzko informazioa. Zentzu horretan, datu pertsonalen babesak ez du traba bat izan behar politika eta programa publikoen emaitzak ebaluatu behar dituzten erakundeek edo gizarteko taldeek behar duten informazioa izan dezaten.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren 4. artikulua.

TOKI ERAKUNDE BATEKO GIZARTE ZERBITZUETAN LAN EGITEN DUEN LANGILE BATEK BADAUKA BERTAKO FITXATEGIETAN DAUDEN DATU PERTSONALAK ATZITZERIK?

- Langileak bakar-bakarrik atzitu ditzake bere eginkizunetarako behar dituen datu pertsonalak. Segurtasun agirian egongo da zehaztuta datu pertsonalen fitxategi bakoitza atzitzeko baimena duten erabiltzaileen zerrenda.
- Gizarte zerbitzu bat emateko sortzen diren datu pertsonalen fitxategiak bereziki babestutako datuak izaten dituzte (osasuneko datuak, arrazari buruzkoak edo genero indarkeriako ekintzetatik datozenak). Horregatik guztiagatik, segurtasuna bermatzeko neurri bereziak behar dituzte. Segurtasun neurri horiek goi-mailakoak dira.
- Ondorioz, fitxategi automatizatuen kasuan segurtasun neurri bereziak egon beharko dira bereziki babestutako datu pertsonalak dituzten euskarriak identifikatzeko eta garraiatzeko, babes kopiak eta berreskuratze kopiak egiteko, atzipen erregistroetarako eta datu horiek telekomunikazio sistemen bidez eskualdatzeko.
- Beti izan behar ditugu gogoan fitxategi ez automatizatuak edo eskuzko fitxategiak direnean bete behar diren neurriak; izan ere, gizarte zerbitzuen arloan oraindik era horretako fitxategi asko daude. Hona hemen:
 - Fitxategia atzitu duten pertsonak identifikatzeko sistemak ezartzea, baldin eta fitxategia atzitzeko baimena duten pertsona bat baino gehiago badaude.
 - Espedienteak gordetzen diren lokaletan giltzak jartzea edo sarbidea kontrolatzeko sistemaren bat.
 - Baimenik ez duten pertsonen espedienteen kopiak egitea debekatzea.
 - Datu pertsonalak dauzkaten dokumentuen kopiak suntsitzea eta ezinezkoa izatea gero horiek berreskuratzea.
 - Baimena daukan pertsonari esleitzea artxiboan dagoen dokumentazioa zaintzeko betebeharra.
 - Neurriak jartzea, espedienteak fisikoki lekuz aldatzen direnean, hirugarren pertsonen atzitu ez ditzaten.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki erakundeetarako JEE. 24-40 artikulua.
- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren 7-9 artikulua.
- DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 101-104 artikulua eta 111-114 artikulua.

ERANSKINA



TOKI
ERAKUNDEETAKO
KASU
KONKRETUAK

3. DATUAK BABESTEKO EUSKAL
BULEGOA, JARDUNBIDE EGOKIEN
ESKULIBURUA ETA EUDEL

150

ZER DA DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA?

- Kontrol agintaritza aske bat da eta honako eginkizunak dauzka:
 - Begiratzeari euskal administrazio publikoek pertsonen gaineko informazioa kudeatzen dutenean, datu babesaren arloko araudia betetzen dutela. Horretarako, ikuskaritza jarduerak egiten ditu, espedienteak bideratzen ditu eta arau-hausteak aitortzen ditu.
 - Datu babesaren arloan herritarrek eta erakundeek egiten dizkioten mota guztietako kontsultei eta txosten eskeei erantzutea.
 - Administrazio publikoetako langileek informazioaren kudeaketaren arloan jardunbide egokiak eskuratu ditzaten sustatzea.
 - Pribatutasunerako eta haien datu pertsonalen babeserako eskubidearen gainean informatzea eta sentsibilizatzea herritarrek.
 - Datuak Babesteko Erregistro batean jasotzea Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio eta erakundeek egiten dituzten datu pertsonalen tratamendu guztiak (datu pertsonalen tratamendu motak, ez datuak).

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko 2/2004 Legea.

151

ZEINTZUK DIRA DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN ETA TOKI ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZARAKO ILDOAK?

- DBEBk eta Euskadiko Udalen Elkarrekin lankidetzak hitzarmen bat izenpetu dute datu pertsonalen babeserako eskubidea sustatzeko udal informazioaren kudeaketan. Jardunbide Egokien Eskuliburu hau erakunde biek lankidetzan egindako lanaren emaitza da.
- DBEB:
 - Bulegoak bilera presentziala egin ditu toki erakunde gehienekin, elkarrekin hartu-emanetan hasi ahal izateko, DBEBren xedea eta eginkizunak ezagutarazteko eta toki erakundeetako alkateei, zinegotziei, idazkariei eta beste kide batzuei azaltzeko zeintzuk diren datu babesaren arloan erakundeek dituzten legezko betebeharrak, herritarren eskubideak eta printzipio nagusiak.

- DBEBk proposatu du datu babeserako koordinatzailearen figura sortzea toki erakunde guztietan, aurrerago arlo honetako koordinatzaileen sare bat sortzeko, eta sare horren bitartez informazioa, prozedurak, jardunbideak eta sortzen diren egoera berriei erantzuteko proposamenak trukatu ahal izateko, eta hartara, informazio pertsonala gero eta hobeto kudeatzeko.
- DBEBk hasierako erantzuna eman die toki erakundeek adierazi dituzten informazio eta prestakuntza premiei eta bestelako eskakizunei, horretarako, sensibilizaziorako materialak editatuz, prestakuntza jarduerak diseinatuz eta emanez eta datu pertsonalen kudeaketa aldatzeko proiektuak planifikatuz.

152

DBEB-K ZEINTZUK EGINKIZUN GAUZATU BEHAR DITU TOKI ERAKUNDEEK DATU BABESAREN ARLOKO LEGEDIA BETETZEN DUTELA ZAINDU AHAL IZATEKO ?

- DBEBk honako kontrol eginkizunak burutu behar ditu:
 - Legearen kontrako jarduerak **ikertzea** eta egindako arau-haustek **ebaztea**, halakorik egonez gero.
 - DBEBk, euskal administrazio publikoen gaineko kontrol eginkizuna gauzatzen hasi ahal izateko, bi aukera ditu, bata da norbaitek salaketa bat aurkeztea eta bestea da kontrola ofizioz hastea, hau da, komunikabideen, beste administrazio batzuen edo hirugarrenen bidez jakin duelako arau-hausteren bat egon daitekeela.
 - **Jarduera arlo publikoen arabera ikuskatzeak ere egiten ditu** eta horrela auditatu edo ebaluatzen du jarduera arlo jakin batean nola egiten den datu pertsonalen kudeaketa eta ea legea betez egiten den. Era berean, eta hala badagokio, gomendioak eta jardunbide egokiak proposatzen ditu.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea.

EAE-KO TOKI ERAKUNDEETARAKO DATU BABESARI BURUZKO JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUA ZERGATIK ERREGISTRATU DA EREDUZKO GIDA BEZALA?

- Datu babesaren arloko ereduzko kodeak dira arlo pribatuko jarduera sektore batek (bankuen arloa, higiezinaren arloa edo aseguruaren arloa ...) edo arlo publikoko jarduera sektore batek (ospitaleen arloa, ikastetxeen arloa, toki administrazioaren arloa ...) hartzen dituen administrazio-ko edo kudeaketako erabakiak edo hitzarmenak, hartara, erakundean informazio pertsonalaren tratamendua kudeatzeko antolaketa baldintzak, funtzionamendua, prozedurak eta arauak ezartzeko.
- EUDEL – Euskadiko Udalen Elkartearen eginkizunen artean bertako kide diren udalen interes orokorrak babestea eta ordezkatzea dagoenez, elkarteak datu babesari buruzko Ereduzko Kode bat egin du helburu horrekin sortutako lan talde baten bidez. Lan taldean udalen eta DBEBren ordezkariak egon dira. EUDELek prozedura bat eratuko du toki erakundeak atxiki daitezen.
- Eskuliburua DBEBn aurkezteak eta Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan inskribatzeak informazioa bermatzen die eskuliburuari atxikita dauden toki erakundeekin harremanak dauzkaten herritarrei.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki erakundeetarako JEE. 57-62 artikulak.

154

ZER DA EUSKADIKO UDALEN ELKARTEAK (EUDEL)?

- EUDEL (Euskal Udalen Elkartea) erakunde autonomia da eta Euskal Autonomia Erkidegoko ia udalerrri guztiek, Nafarroako Foru Erkidegoko zenbait udalerririk eta Trebiñu Konderriko udalerriek osatzen dute.
- 1982an sortu zen udal autonomia babesteko eta tokiko interesak beste erakunde batzuen aurrean ordezkatzeko helburuarekin.
- Azken urte hauetan EUDEL euskal udalgintzaren erreferente bilakatu da. Horrela, Euskal Udalen Elkartea gainerako erakundeekin politika publikoen inguruko koordinazioa eta adostasuna sustatzeko eragile egokia bihurtu da.
- Zuzenbide positiboaren aitormena modu berezian egiten da Toki Araubidearen oinarritzko legedian.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Honako horria kontsultatu: www.eudel.net
- Honako horria kontsultatu: www.eudel.net/aNG/web/cas/eudel/index.jsp

155

NOLA FORMALIZATU DA EUDEL-EUSKAL UDALEN ELKARTEAREN ETA DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN ARTEKO LANKIDETZA HARREMANA?

- EUDEL eta DBEB toki administrazioen eremuan datuen babesa bermatzeko indarrak biltzeko elkartu diren bi erakunde aske dira.
- Helburu horrekin, Lankidetzarako Esparru Hitzarmen bat izenpetu zuten 2005eko urriaren 28an, eta bertan zehazten da erakunde bien arteko harremana.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Honako horria kontsultatu: www.eudel.net/aNG/web/cas/eudel/index.jsp eta www.avpd.es.
- Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren eta Euskal Udalen Elkartearen arteko 2005eko irailaren 28ko Lankidetzarako Esparru Hitzarmena.

156

NOLA EGIN DA EAE-KO TOKI ERAKUNDEETARAKO DATUEN BABESAREN ARLOKO JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUA?

- EUDELe eta DBEBk 2005eko irailaren 28an izenpetu zuten Lankidetzarako Esparru Hitzarmenaren emaitzetako bat da Jardunbide Egokien Eskuliburua. Hitzarmenean toki administrazioan datuen babesari bermatzeko jarduerak egiteko konpromisoa hartu zuten entitate biek.
- Esparru Hitzarmeneko konpromisoetako bat zen euskal toki erakundeen barruan datu babeserako koordinatzaile sare bat sortzea datu pertsonalen babeserako prozedurak eta tresnak diseinatzeko. Tresna horietako bat Jardunbide Egokien Eskuliburua da.
- Datu babeserako koordinatzaileen sare honetatik abiatuta, baina saretik aparte, batzorde tekniko bat sortu da. Batzordea EAEko zenbait udaletako kide batzuk eta DBEBko beste kide batzuk osatzen dute. Kide horiek hartu dute parte Jardunbide Egokien Eskuliburuaren idazketan.

157

EUDEL-EK ETA TOKI ADMINISTRAZIOAREN ARLOAN ESKUMENAK DAUZKATEN FORU ALDUNDIETAKO SAILEK NOLA SUSTATZEN DUTE DATU PERTSONALEN KUDEAKETAN ETA BABESEAN JARDUNBIDE EGOKIAK GARATZEA TOKI ERAKUNDEETAN?

- EUDELe eta toki administrazioan eskumenak dauzkaten EAEko foru aldundietako sailek beheko jardute-ildoak zehaztu dituzte toki erakundeetan datu pertsonalen kudeaketaren eta babesaren arloan jardunbide egokiak sustatzeko:
 - Udal jardueretan bertan erabiltzen diren datuen babesari errazteko prozedurak, lan tresnak eta ereduzko agiriak diseinatzea DBEBren zuzendaritzapean.
 - Sustapen lana egitea euskal udal guztiak datu pertsonalen babesari buruzko Jardunbide Egokien Eskuliburuari atxiki daitezen. Eskuliburuak ereduzko kode izaera du.
 - Informazioaren kudeaketari eta datu pertsonalen babesari buruzko informazio jarduerak eta prestakuntza ekintzak koordinatzea eta kudeatzea DBEBren lankidetzarekin.

- Euskal toki erakundeetan banatzea DBEBk bidaltzen dituen agiriak, inprimakiak, prozedurak eta abar, errazagoa izan dadin datu pertsonalen babesaren arloko legezko betebeharrak betetzea.
- Euskal udalek datu babesari buruz egiten dituzten kontsultak bideratzea DBEBren bitartez, bere irizpenak kontuan hartuta.
- Euskal udalak estutzea datu pertsonalen babesaren arloan arreta etengabe jarrita izateko.

158

ZER DA DATU PERTSONALAK KUDEATZEKO ETA BABESTEKO EAEKO TOKI ERAKUNDEETARAKO EREDUZKO KODEA?

- Kodeen helburua da datu pertsonalen babesari buruzko araudian ezarritakoa egokitzea kodeari atxikitzen zaizkion erakundeek egiten dituzten datu pertsonalen tratamenduen berezitasunetara. Hori lortu ahal izateko, kode horiek berariazko arauak edo ereduak jasotzen dituzte atxikita dauden erakunde guztien tratamenduak bateratzeko, ukituei haien eskubideez baliatzea errazteko eta abenduaren 13ko 15/1999 Lege organikoa eta hura garatzen duen Erregelamenduan xedatutako betetzea ahalbideratzeko.
- Kode hauek kode deontologikoak edo lanbideko jardunbide egokien kodeak ere badira, eta lotesleak dira haiei atxikita daudenentzat.
- Toki erakundeetako datu pertsonalen babesaren arloko Jardunbide Egokien Eskuliburua ereduzko kodea da eta lortu nahi du toki erakundeetan lan egiten duten pertsonen artean pribatutasunerako eta datuen babeserako eskubideen gaineko kontzientziazioa handitzea kudeaketa lanetan.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki erakundeetarako JEE. 56. artikulua.
- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren 32. artikulua.
- DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duen 1720/2007 Errege Dekretuaren 71-78 artikulua.

159

ZEIN DA DATU BABESERAKO JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUARI ATXIKITZEKO PROZEDURA?

- EAEko edozein toki erakundek du Jardunbide Egokien Eskuliburuari atxikitze aukera. Horretarako bi urrats eman behar dira:
 - Eskuliburuari atxikitze erabakia hartzea.
 - Eskuliburuari atxikitze erabakia hartu dela jakinaraztea EUDeLi.
- Eskuliburuaren eranskinean dauden agiriak eta inprimakiak erabil ahal izateko, toki erakundeek erakundearen bereizgarri grafikoak erantsi behar dituzte Eskuliburuaren eranskinetan. Beste aukera bat da eredueta aldaketak egitea eta eredu horiek korporazio bakoitzaren komunikazio estiloetara egokitzea.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki erakundeetarako JEE. 58. artikulua.

160

NOLA KUDEATZEN DA JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUARI ATXIKITA DAUDEN TOKI ERAKUNDEEN ZERRENDAA?

- EUDEL-Euskal Udalen Elkartearen ardura izango da Eskuliburuari atxikitako udalen zerrenda eguneratzea. Bestalde, zerrendaren berri eman beharko dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari (DBEB).
- Atxikitako toki erakundeen zerrenda ereduzko kode era baden Jardunbide Egokien Eskuliburuari erantsiko zaio, VI. eranskina erabiliz, Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan inskribatu eta sei hileko epean.
- Eskuliburuari atxikitako toki erakundeen zerrenda EUDELen web orrian (www.eudel.net) eta DBEBren web orrian (www.avpd.es) egongo da ikusgai.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki erakundeetarako JEE. 58. artikulua.
- 1720/2007 Errege Dekretua, DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duena. 76-78. artikulua.

161

ZEINTZUK BETEBEHAR IZANGO DITU JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUARI ATXIKITZEN ZAION TOKI ERAKUNDEAK?

- Jardunbide Egokien Eskuliburuari (JEE) atxikitzen zaizkion toki erakundeek honako betebeharrak izango dituzte:
 - Eskuliburuan ezarritako arauak betetzea.
 - Eskuliburuan proposatzen diren ereduak eta agiriak erabiltzea, korporazioak egokien ikusten dituen egokitzapen grafikoekin edo komunikatiboekin.
 - Eskuliburuak zehazten dituen prozedurak ezartzea, herritarrek AZETA eskubideak erabiltzeko aukera izan dezaten toki erakundearen aurrean.
 - Onartzea Eskuliburuan bertan jasota dagoen prozedura Eskuliburuan xedatutako betetzen dela gainbegiratzeko, eta zehapenak onartzea, ez-betetzereen bat antzematen bada.

- Toki erakundeetako langile guztiei zuzendutako prestakuntza jarduerak eta jarduera informatzaileak antolatzea aldiro-aldiro, eta lehentasunez datu pertsonalak edo datu sentsibleak tratatu ohi dituztenentzat.
- Erakundeko langileei dekalogo bat ematea labur-labur azalduz datu babesaren printzipioak, herritarren eskubideak eta udal korporazioen betebeharrak.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki erakundeetarako JEE. 2-2 eta 60. artikulak.

162

NOLA EBALUATZEN DA TOKI ERAKUNDE BAT BETETZEN ARI DELA JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUAN JASOTAKOA?

- Jardunbide Egokien Eskuliburuak gainbegiratze prozedura bat eta zehapen erregimen bat dauzka, Eskuliburuari atxikitako toki erakundeek haien betebeharrak betetzen dituztela zaintzeko.
- Ondorio horietarako, lan talde bat eratuko da Eskuliburuari atxikita dauden toki erakundeen artean, Jardunbide Egokien Eskuliburua indarrean sartu eta lehenengo sei hileko epean. Lan taldeak proposatu beharko du nola arautu gainbegiratzeko eta zehatzeko prozedurak.
- Jardunbide Egokien Eskuliburuan ezarritakoa betetzen dela gainbegiratzeko eta zehatzeko prozedurak Eskuliburuaren eranskinetan gehituko dira.
- Eskuliburuan ezarritakoa betetzen dela gainbegiratzeko eginkizuna eta, hala badagokio, ez-betetzeak sortutako zehapena sailkatzeko proposamenak egiteko eginkizuna gaitasun eta espezializazio tekniko egokiak dituzten pertsonen ardura izango da.
- Zentzu horretan, prozedura horiek arautu ahal izateko, egoki ikusten da datu babeserako koordinatzaileek hartzea eginkizun hori bere gain. Ebaluazio sistema honek kostu ekonomikorik izan ez dezan, Eskuliburuari atxikitzen zaizkion toki erakunde batzuk, biztanle kopuru jakin batetik gora dutenek adibidez, bertako datu babeserako koordinatzailea beste toki erakunde batzuen eskura jar dezakete, Eskuliburua betetzeari buruzko ebaluatzaile aditu gisa.

Informazio gehiago behar izanez gero, testu hauek kontsulta daitezke:

- Toki erakundeetarako JEE. 59. artikulua.